

Barometroa 2025

Atzerritar jatorriko biztanleen inguruko
pertzepzioak eta jarrerak EAEn




Argitaraldi elektronikoa

Ikertzaile-taldea: Julia Shershneva Zastavnaia (koordinatzailea)
Larraitz Nerea Zumeta Sánchez
Ane Estebaranz Delgado
José Antonio Oleaga Páramo
Oier Ochoa de Aspuru Gulin

Urtea eta lekua: 2025, Bilbo

Edita: Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Dokumentazioa: Antonio Gómez
Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia



Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Migrazioa zenbakitan eta testuinguru mediatikoa	7
Panoramika kuantitatibo laburra: 2025ean Euskadin bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen zifrak	7
Diskurtso mediatikoa eta politikoa eta immigrazioa	11
3. Metodologiari buruzko oharra	21
4. Atzerritar jatorriko biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak	23
Euskal gizartearen iritziak atzerritar jatorriko biztanleei buruz	23
Migrazio-politikak eta eskubideak eskuratzea	38
Gizarte hartzailean hautemandako ondorioak	58
Bizikidetzaren ereduak eta kultura-ereduak mantentzea	67
Distantzia eta kontaktu soziala	84
Estereotipoak eta aurreiritziak	95
5. Euskal gizartearen immigrazioari irekitzea	107
Immigrazioarekiko Irekiera Indizea: tipologia bat	107
Talde handiak euskal biztanlerian	124
Irekitasun indibidualaren eta kolektiboaren pertzepzioa	133

6. Ondorioak	135
7. Eranskinak.....	141
I. eranskina: Informazio metodologikoa.....	141
II. eranskina: Kontzeptu-esparrua	147
III. eranskina: Irekiera Indizearen aldagaiak eta haztapenak	160
IV. eranskina: Item osoen bilakaera-grafikoak	164
V. eranskina: Galdera-sorta	183

1

Sarrera

“Jatorri atzeritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak EAEn” azken Barometrotik urtebete igaro den honetan, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak egindako 2025eko Barometroaren emaitzak aurkeztuko ditugu ondoren. Azterlan honen helburu nagusia da EAEko migrazio-fenomenoarekiko pertzepzioei eta jarrerei buruzko argia ematea eta ezagutza zabaltzea, ebidentzian oinarritutako informazioa emanaz euskal gizarte osoari, eta, aldi berean, analisi-tresna erabilgarriak eskainiz haren kudeaketaz arduratzen diren entitate eta erakundeentzat. Horrela, 2025eko Barometroak immigrazioaren ezagutza zorrotz eta eguneratuan oinarritutako erabaki informatuagoak hartzen lagundu nahi du, giza historiaren fenomeno estruktural eta errepikakor gisa ulertuta. Fenomeno hori ulertzeko, kontuan hartu behar dira bai fluxuak eta zifrak, bai sortzen dituen eguneroko pertzepzioak, jarrerak eta esperientziak.

Horrela, bi hamarkada baino gehiagotan zehar, ondoz ondoko Barometroek aukera eman digute aztertzeke eta ezagutzeko nola eboluzionatu duten eta nola egokitu diren euskal biztanleriak immigrazioarekiko dituen pertzepzioak testuinguru sozioekonomiko, demografiko eta politikoaren aldaketetara. Horrela, edizio honetan egiaztatu dugu, COVID-19aren osasun-larrialdiak eta Ukrainako gerrak markatutako hainbat urteren ondoren, eta 2024ko hauteskunde-kanpainen eragina kontuan hartuta, euskal herritarrek atzeritar jatorriko pertsonekiko dituzten jarrerak 2019ko eta 2020ko mailetara hurbiltzen ari direla.

Txostena ibilbide baten inguruan egituratuta dago, eta euskal gizarteak immigrazioa nola hautematen duen eta harekin nola lotzen den ulertzeko aukera ematen du, hainbat alderditatik begiratuta. Lehenik eta behin, atzeritar jatorriko

etorkinek¹ Euskadin duten presentziari eta bolumenari buruzko pertzepzioa aztertzen da, immigrazioarekiko jarrera orokorrak testuinguruan kokatzeko abiapuntua baita. Ondoren, migrazio-politikak jorratuko dira —bai sartzeari eta bertan geratzeari buruzkoak, bai nazioarteko babesari eta adingabe eta gazte atzerritarrei arreta emateari buruzkoak—, bai eta biztanleria horrek eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeari buruzkoak ere. Barometroak immigrazioak euskal gizartean dituen ondorioak aztertzen jarraitzen du, zenbait dimentsio kontuan hartuta, hala nola ongizatea, ekonomia eta kultura-identitatea. Jarraian, bizikidetza-ereduetan eta kultura-joeretan sakontzen da, integrazioaren eta gizarte-kohesioaren ikuspegian eragina duten euskal kidesunaren eta identitatearen irizpideekin batera. Halaber, hautemandako distantzia eta kontaktu sozialaren mailak aztertzen dira, arreta berezia jarritz eguneroko harreman-espazioetan eta bizikidetza-giroan, horiek funtsezkoak baitira taldeen arteko dinamikak ulertzeko. Azkenik, atzerritar jatorriko pertsonetikiko sinpatia-maila, estereotipoak eta aurreiritziak aztertzen dira, eta, amaitzeko, Irekiera Indizea aurkezten da; hau da, euskal gizarteak immigrazioarekiko denboran zehar izan dituen jarrera orokorrak alderatzeko eta ebaluatzeko aukera ematen duen adierazle sintetikoa.

¹ “*Etorkin*” terminoa erabiltzen da, estatistika- eta administrazio-iturriekiko koherentziagatik. Onartzen da kategoria horrek identitateak ezar ditzakeela legezko estatusaren edo jatorriaren arabera, eta ez beti migrazio-ibilbideen aniztasuna.



Migrazioa zenbakitan eta testuinguru mediatikoa

Barometroa 2025 inkestaren emaitzetan sartu aurretik, beharrezkotzat jo dugu testuinguru txiki bat eskaintzea, lehenik eta behin Euskadiko atzeritar jatorriko biztanleriaren dimentsioa deskribatzen duten zifrei begira, eta, ondoren, komunikabideetan eta sare sozialetan funtsezkoak izan diren gaiei begira, bai landa-lana egin aurreko hilabeteetan, bai landa-lana gauzatzeko aldian. Bigarren hurbilketa horren bidez, biztanleriak immigrazioarekiko izan dituen jarretan eragina izan duten faktore batzuk azaldu nahi dira; izan ere, fenomeno hori prentsan duen tratamendua erabakigarria da herritarren pertzepzioa eraikitzeko.

Panoramika kuantitatibo laburra: 2025ean Euskadin bizi diren atzeritar jatorriko pertsonen zifrak


EINek 2025eko urtarrilaren 1ean argitaratutako zentsu-datuek² adierazten digutenez, Euskal Autonomia Erkidegoan —EAE hemendik aurrera— 2.240.113 pertsona bizi dira, eta horietatik 316.942 atzerrian jaio dira, hau da, EAEn bizi den biztanleria osoaren % 14,1. Sexuaren arabera banaketari dagokionez, atzeritar jatorriko biztanleen % 51,8 emakumeak dira, eta % 48,2 gizonak.

Bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu atzeritar jatorriko pertsonen kopuruak gora egin duela aurreko urtearekin alderatuta (2024) 21.040 pertsonatan, 2023ko igoyeraren antzekoa, eta bi kasuetan 20.000 pertsona baino gehiagoko urte arteko hazkundea izan dela. 1. grafikoan ikus daitekeenez,

² Duela gutxi, 2025eko urtarrilaren 1eko erroldako estatistika jarraituaren behin-behineko datuak argitaratu dira. Datu horiek ahal den guztietan erabiliko ditugu, eta gainerakoetan 2024ko urtarrilaren 1ari dagozkionak erabiliko ditugu (behin betikoak).

atzeritar jatorriko pertsonen kopuruak goranzko joera izan du urteetan zehar, eta 2003. urtetik 250.594 pertsona gehiago izan dira.

1. grafikoa. EAEn bizi diren atzeritar jatorriko biztanleak (absolutuak eta %), 2003-2025




Iturria: Geuk egina, EInen datuak oinarri hartuta

Euskadin izandako migrazio-fluxuen bilakaerak hainbat fase edo une ditu (2. grafikoa). Lehenengo fasean, hasierakoa eta sendotzekoa (2003-2008) —1998tik aurrera hasi zen zehazten—, EAE migrazio-stock oso txikiak izatetik beste herrialde batzuetatik etorritako egoiliarren gorakada etengabea eta nabarmena izatera igaro zen; hori guztia hazkunde ekonomikoko aldi batean. Krisiaren eta atzeraldi ekonomikoaren bigarren fasean (2009-2014), hasiera batean, stockak nabarmen moteldu ziren (2009-2011), eta EAEn bizi ziren pertsonen kopuruak ere behera egin zuen (2012-2014). Hirugarren fasea susperraldi eta suspertze ekonomikoarekin bat dator (2015-2020); izan ere, atzeritar jatorriko pertsonen kopuruak gora egin zuen berriro pixkanaka, eta 2020an 21.987 pertsona gehiago ziren. Laugarren fasea pandemiaren inpaktuak definitzen du (2021-2022), eta, mugak ixtearen eta ezegonkortasun ekonomikoaren eta sanitarioaren ondorioz, stockak bat-batean jaitsi ziren bi urte horietan, baina saldoa positiboa izan zen. Horrela, logikoa denez, aurreko fasean eraikitzen ari zen eredia hautsi zen. Azkenik, bosgarren fasean, ekonomia berreskuratze eta suspertze aldia itzuli da (2022-2025), eta gaur egun ere jarraitzen du. Hala, 2022tik aurrera gora egin du berriz ere errolatutako atzeritar jatorriko pertsonen kopuruak, 20.000 pertsonatik gorako magnitudeekin urtero, eta 2019an eta 2020an gertatzen ari zenaren oso antzeko ereduarekin. Izan ere, badirudi pandemia-aldia fase beraren barruko parentesi bat dela, 2015ean hasi eta gaur egun arte garatzen dena, non EAEko lan-merkatuan oparoaldi ekonomikoak eta eskulanaren beharrak EAEn bizi

diren atzerritar jatorriko pertsonen kopurua nabarmen handitzea eragin duen, eta ehunekotan ia puntu bat egin du gora azken urteetan; hala, 2022an % 11,3 izatetik 2025ean % 14,1 izatera igaro da.

2. grafikoa. Atzerritar jatorriko biztanleriaren urtetik urterako hazkundera EAEn (absolutuak), 2003-2024



Iturria: Geuk egina, EInen datuak oinarri hartuta

EAEko datuak lurralde historikoen arabera banakatuta aztertuz gero (3. grafikoa), ikus dezakegu Araba dela atzerritar jatorriko biztanleriaren ehuneko handiena duen lurralde historikoa (% 16,4). Urrun samar daude Bizkaia eta Gipuzkoa (% 13,8 eta % 13,7, hurrenez hurren).

Jatorrizko eremu geografikoak kontuan hartuta, Latinoamerikak jarraitzen du nagusi izaten, atzerritar jatorriko biztanle guztien % 55,5 inguru handik baitator. Distantzia handira daude Magreb —% 14,6— eta Europar Batasuna —% 11,6— (1. taula). Sexuaren arabera, Latinoamerikaren kasuan emakumeak dira gehiengoa (% 59,6), baina Magrebeko edo Asiako gizonen presentzia handiagoa da (% 36,5 eta % 45,5, hurrenez hurren).

1. taula. Atzeritar jatorriko biztanleak EAEn eremu geografikoen eta sexuaren arabera, 2024³

	Guztira	% Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Emakumeen %
EB 27	34.203	11,6	17.842	16.361	47,8
Europako gainerakoa	14.788	5,0	6.709	8.079	54,6
Magreb	43.275	14,6	27.471	15.804	36,5
Afrikako gainerakoa	18.816	6,4	12.032	6.784	36,1
AEB eta Kanada	2.314	0,8	1.131	1.183	51,1
Latinoamerika	164.141	55,5	66.266	97.875	59,6
Asia	17.927	6,1	9.765	8.162	45,5
Ozeania	438	0,1	257	181	41,3
Guztira	295.902	100,0	141.473	154.429	52,2

Iturria: Geuk egina, EInen datuak oinarri hartuta

2024an EAEn pisu handiena duen jatorrizko herrialdea Kolonbia da, guztizkoaren % 13,5; oso gertu dago Maroko (% 11,4), eta distantzia batera beste jatorri batzuk, hala nola Nikaragua (% 6,1) eta Venezuela (% 5,2). Azpimarratzekoa da, halaber, 10 herrialde garrantzitsuenetatik denak latinoamerikarrak direla, Maroko eta Errumania izan ezik. Bestalde, ikus daiteke azken urtean gorakada handiena izan duten jatorrizko herrialdeak Kolonbia (+5.524), Maroko (+2.741) eta Venezuela (+2.379) direla. Izan ere, lau pertsona berritik batek Kolonbia du jatorri, herrialde hori gorakada osoaren % 25,4 baita. Era berean, argi ikusten da stocketako igoeraren gehiengoa Latinoamerikatik datorrela. Horrela, 2023an atzeritar jatorriko 21.760 pertsona gehiago izan ziren, eta horietatik 16.286 Latinoamerikatik etorri ziren, hau da, guztizkoaren % 74,8. Edo, bestela esanda, Euskadin erroldatutako lau pertsona berritik hiru latinoamerikarrak ziren.

³ 2025eko urtarrilaren 1eko behin-behineko datuek ez digute eremu geografikoei buruzko informaziorik ematen. Horretarako, aurreko urteko datuak erabili ditugu, 2024ko urtarrilaren 1ekoak.

2. taula. Atzerritar jatorriko pertsonen hamar herrialde nagusiak EAEn, eta urte arteko hazkundera (absolutuak eta %), 2023-2024

	2024	2024%	2023	2024-2023
Kolonia	39.997	13,5	34.473	5.524
Maroko	33.815	11,4	31.074	2.741
Nikaragua	18.090	6,1	16.675	1.415
Venezuela	15.454	5,2	13.075	2.379
Errumania	14.424	4,9	14.587	-163
Bolivia	13.029	4,4	12.598	431
Honduras	11.212	3,8	9.966	1.246
Peru	10.526	3,6	8.992	1.534
Paraguai	10.507	3,6	9.262	1.245
Ekuador	9.743	3,3	9.371	372
Guztira 10	176.797	59,7	160.073	16.724
Gainerakoak	119.105	40,3	114.069	5.036
Guztira	295.902	100,0	274.142	21.760

Iturria: Geuk egina, EInen datuak oinarri hartuta

Diskurtso mediatikoa eta politikoa eta immigrazioa

Euskadin dauden atzerritar jatorriko pertsonen zifrak eman ondoren, bigarren atal honetan euskal herritarren pertzepzio eta jarreretan erabakigarriak izan diren funtsezko gai batzuk aipatzen saiatuko gara. Zehazki, immigrazioak komunikabideetan izandako tratamenduak informazio-bilketan (2025eko martxoaren 11tik 27ra bitartean egin zen) izan duen eragina aztertuko dugu (ikus informazio metodologikoari buruzko I. eranskina).

Argi dago egoera sozial, ekonomiko eta politikoak baldintzatu egiten dituela herritarren iritzia. Txosten honen emaitzen analisisian islatzen den bezala, adierazgarria da, adibidez, pandemiak 2020an markatutako krisi-testuinguru globalean edo Ukrainako gerra 2022an areagotzean, euskal gizartean irekiera-mailak handiagoak direla atzerritarrak etortzeari dagokionez, edo beste adierazle batzuek erakusten dutela ezohiko elkartasun-jarrera dagoela —2022an Irekiera Indizeak hiru puntu baino gehiago egin zuen gora—.

Setting agendaren teoriari edo agendaren ezarpenari dagokionez, masa-komunikabideek informazio-interesekotzat jotzen diren gaiak aukeratzeak eta ematen zaien garrantzi-mailak eragin nabarmena dute biztanleria zibilak gai horiei buruz eraikitzen duen iritzian. Aipagarria da, beraz, immigrazioak egungo

agenda mediatikoan lortu duen posizio nagusia: komunikabideek eta sare sozialek maiz jasotzen dituzte atzeritik datozen pertsonen etorrerarekin edo pertsona migratuak interpelatzeko dituzten gertaerekin lotutako gaiak.

Era berean, María Ruiz Aranguren (2024⁴) azaltzen duen bezala, migrazioei buruzko kazetaritzak gaur egun duen joeraren ezaugarri nagusia da metaforak erabiltzen direla, atzeritik jende ugari etortzen dela erakusten dutenak, eta migratutako pertsonak mehatxu ekonomiko, kultural, delituzko edo sanitario gisa irudikatzen direla, “gu” eta “haiek” bereizi egiten direla agerian utziz. Aldi berean, egile horrek adierazten du immigrazioaren sekuritazioa areagotu dela, eta ultraeskuineko alderdien gorroto-diskurtsoak ugaritu egiten direla.

Illo horretan, Europako eta estatuetakoa esparru politikoan eskuin-muturrak gora egin duenez, sarritan agertu dira immigrazioaren aurkako diskurtsoak, arrazistak eta xenofoboak, ordezkari politikoek eginak, hautetsiak direlako legitimatuta, eta komunikabideek eta sare sozialek horien berri ematen dute. Horrela, Overtonen leihoaren teoriarekin bat etorriz —gizartean pentsaezina zena pixkanaka onargarri bihurtzen duen prozesua deskribatzen du—, lehen onartezinak ziren diskriminazio-adierazpen batzuk maiz entzuten dira gaur egun.

Ondorioz, egokia da 2025eko Barometroaren edizio honetan immigrazioarekiko jarrerak neurtutako testuinguru mediatikoa ezaugarritzea. Horrela, inkesta egindako garaian garrantzia lortu duten iritzi publikoko gaitan jarri nahi izan dugu arreta, uste baitugu erabakigarriak direla gaur egun immigrazioa bezalako agenda mediatiko eta politikoan hain garrantzitsua den gai batekiko iritziak, sinesmenak eta jarrerak eraikitzeke.

Immigrazioari buruzko estaldura mediatikoa Espainiako Estatuako komunikabide jeneralistetan azken hamarkadan, eta gorroto-diskurtsoak sare sozialetan

Hasteko, Acoge Sareak (2024⁵) egindako *10 años de Inmigracionalismo* ikerketaren zirriborro txiki bat ekarri nahi izan dugu. Txosten horretan, immigrazioak komunikabideetan duen tratamenduan eragin handia duten alderdiak jasotzen dira, hala nola pertsona migratuei buruz hitz egiteko hizkuntza nola erabiltzen den, haiek irudikatzeko erabiltzen diren irudiak, haiei

⁴ María Ruiz Aranguren (2024). El periodismo de migraciones más allá de las críticas. In Julia Shershneva Zastavnaia (Ed.). *Bi hamarkada Euskadiko migrazioari eta asiloari buruz hausnartzen* (119.-134. or.) https://www.ikuspegi.eus/files/publicaciones/200_3.pdf

⁵ Red Acoge (2024). *10 años de Inmigracionalismo. Tratamiento mediático de las migraciones en España 2024*. https://inmigracionalismo.es/wp-content/uploads/2024/11/INFORME_INMIGRACIONALISMO_2024.pdf

buruz hitz egiteko erabiltzen diren iturriak, eta migrazioen estaldura mediatikoan gehien errepikatzen diren gaiak. 2015etik 2023ra gai horren inguruan izandako albisteen estalduraren erradiografia hori egiteko, Espainiako Estatuko hedabide jeneralistetan argitaratutako migrazioari buruzko 30.000 informazio inguru aztertu ziren.

Hizkuntza funtsezko elementua da, “pentsamendua osatzen duen organo” gisa jokatzeko duena, eta, beraz, errealitateak egituratzen dituena. Zehazki, aipatutako txostenean baieztatzen da migrazioaren gaurkotasuna deskribatzeko erabiltzen diren hitzek migratzaileak kriminalizatzen eta haien aurrean prebentziozko diskurtsoa sortzen laguntzen dutela. Ikertutako informazioen erdiek ez dute “pertsona” hitza aipatzen migratzaileei buruz hitz egiteko, eta informazioen % 6,4k “ilegaltzat” jo zituen.

Bestalde, immigrazioarekin lotutako gertaerak kontatzeko irudi batzuk gehiegi erabiltzeak estereotipoak eta aurreiritziak bultzatu ditzake. Horrela, aztertutako argitalpenen % 16,4k irudien erabilera desegokia egiten zutela erregistratu zen, eta irudi horiek, gainera, autonomia izan dezakete informazio-testuarekiko.

Albisteak kontatzeko erabiltzen diren iturriak elementu erabakigarriak dira kontakizuna egiteko. Ikerketak dioenez, informazio-iturri ofizialak dira immigrazioari buruzko komunikazioetan gehien erabiltzen direnak. Ildo horretan, azpimarratzen da % 80k baino gehiagok ez diotela biztanleria migratzaileari kontsultarik egiten iturri gisa, eta ondorioztatzen da hedabideek ez dutela publiko objektibotzat hartzen.

Azkenik, txostenak immigrazioari buruz prentsan lantzen diren gaiak aztertzen ditu, eta adierazten du gaur egun migrazioei buruzko informazioa ikuspegi etnozentrikoan eta mendebaldekoan oinarritzen dela, eta ikuspegi horrek zehazten duela gai jakin batzuk beste batzuen gainetik aukeratzea. Aztertutako urteetan, komunikabideen fokua migratzaileak Estatura eta Europara iristera bideratu da, batez ere Hegoaldeko Mugan edo Kanaria uharteetan: aztertutako albisteen % 24,4k gai hori jorratzen zuen, eta, ondoren, gaur egungo migrazio-politikaren estaldura (% 15).

Irudikapen horren bidez, komunikabide jeneralistetan dauden estrategia diskurtsibo deshumanizatzaile nagusiak identifikatu ahal izan dira. Era berean, komunikabide horiek imajinario kolektiboan ideiak eraikitzeke eta finkatzeko duten gaitasuna islatzen da, bai eta migrazioek estaldura horretan duten protagonismo zabalak gizartean oro har eta migratzaileen bizitzan bereziki izan dezakeen eragina ere.

Gorrito-diskurtsoak sare sozialetan

Komunikabideekin batera, sare sozialak funtsezko ingurunea dira, gaurkotasuneko gaien inguruko eztabaida publikorako. Ingurune horretan dauden joera batzuk identifikatzeko asmoz, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Espainiako Behatokiak (OBERAXE) sare sozialetan aldizka jasotako gorrito-diskurtsoen monitorizazio-datuak aurkezten ditugu labur-labur. Datu horien helburua da eduki horiek kontabilizatzea eta plataformek edukiari eusteko duten eraginkortasuna ebaluatzea, ingurune digital segurua eta errespetuzkoa lortzen laguntzeko.

2024. urtean zehar⁶, 2.870 gorrito-eduki arrazista, antisemita, ijitoen kontrako, xenofobo edo islamofobo identifikatu ziren aztertutako bost sare sozialetan, eta horiek delitu edo arau-hauste administratiboa izan daitezke, edo jokabide-arauak urra ditzakete. Jakinarazpen horietatik, % 26 X-n zabaldu ziren, eta % 25 Facebooken, ondoren Instagramen (% 19), TikTok (% 17) eta YouTube (% 13). Mezu horien % 96k plataforma bakoitzaren arauak urratzen bazituzten ere, % 35 bakarrik kendu zituzten.

2025eko lehen hiruhilekoan⁷, 171.273 gorrito-zko diskurtsoren berri eman zen aztertutako sare sozial guztietan, eta zabaldutakoen % 34 erretiratu egin ziren. Eduki horiek bereziki Afrika iparraldeko pertsonen (% 74) eta musulmanen (% 17) aurka zuzendu ziren, eta deshumanizazioa eta degradazioa izan zuten ezaugarri nagusi; gainera, mehatxutzat hartu ziren eta atzeritar jatorriko pertsonak kanporatzera bultzatu zituzten. Herritarren segurtasunik eza, politika publikoak eta erlijio-ekitaldiak —Ramadana nabarmentzen da jendetza-aldi esanguratsu gisa— dira gorrito-edukiak eragiten dituzten gertakari nagusiak.

Landa-lanaren aurreko hiru hilabeteetako testuinguru mediatikoa eta digitala

Jarraian, landa-lana hasi aurreko hiru hilabeteetan estaldura mediatikoan funtsezkoak izan ziren gaiak aztertuko ditugu: 2024ko abendutik 2025eko martxoaren hasierara, eta, aurrerago, inkesta egiteko aldiari erreparatuko diogu.

⁶ OBERAXE (2025). *Gorrito-diskurtsoa sare sozialetan monitorizatzeko buletina: plataformen erreakzioa eta eraginkortasuna*. <https://www.lamoncloa.gob.es/serviciosdeprensa/notasprensa/inclusion/Documents/2025/300725-boletin-discurso-odio.pdf>

⁷ OBERAXE (2025). *Gorrito-diskurtsoa monitorizatzeko hiru hilean behingo buletina. Urtarrilak 1 – martxoak 31 2025*. https://www.inclusion.gob.es/documents/6602794/6868134/Bolet%C3%ADn+trimestral+enero++marzo+2025_subsanoado.pdf/c4aa7856-b313-b7be-ecbe-3723e88fc46e?t=1752150108553

Atzerriko pertsonak modu irregularrean iristeari buruzko albisteak etengabeak dira komunikabide jeneralistetan. 2024an, Mendebaldeko Afrikatik Kanaria uharteetarako migrazio-ibilbideak izandako garrantzia nabarmendu zen, ibilbidea egin zuten pertsonen kopurua % 100 igo baitzen aurreko urtearekin alderatuta, eta, gainera, ibilbidean zehar heriotza ugari izan ziren⁸. Halaber, komunikabideek modu nabarmenean eman zuten iritsi berrien harreraren kudeaketak dakartzan gaien berri. Marokoko hegoaldeko mugatik iritsitako kopuruak, ordura arte nagusi zenak, behera egin zuen aldi horretan.

Uharteetara modu irregularrean iristek, batez ere 18 urtetik beherako haur eta nerabeak, harrera egiteko baliabideek gainezka egitea eragin zuen. 2024ko abenduan, immigrazioari buruzko agenda mediatiko eta politikoak gai horretan jarri zuen arreta, eta nabarmendu behar da Kanariak eta Euskadik adingabeak hainbat probintzian modu koordinatuan banatzeko eskaera egin zutela, abegi-zentroen gainkarga zela eta. Gobernu zentralaren eta autonomia-erkidegoen arteko bilerak egin ziren, eta tentsio politikoa piztu zen oposizioak zuzentzen zituen erkidegoekin⁹.

Aztertutako hilabeteetan, Euskadin, zehazki, eraso arrazistak nabarmendu ziren Gipuzkoako eremu batzuetako kaleetan, sare sozialetako txatetan jatorria zutenak¹⁰. 2024ko urrian jakinarazi zen Telegram talde bat zegoela, bi mila parte-hartzaile baino gehiagorekin, gorrotoa, arrazakeria eta xenofobia sustatzen zituzten mezuak eta edukiak zabaltzeko, batez ere migratzaileen aurka, bai eta mobilizazioak antolatzeko edo bultzatzeko ere, Donostian aniztasunarekin lotutako beldurraren eta gaitzespenaren diskurtsoa erabiliz. Horrek alarma handia piztu zuen hedabide eta sareetan, Pasaia Trintxerpe auzoan kaputxadun pertsonen patruilak antolatu zirelako, barrote eta guzti, migratzaileak jazartzeko.

2025eko urtarrilean, eztabaida mediatikoa taldean zentratu zen berriro, taldekide batzuek eraso arrazistak egiteko zabalduetako gonbidapen ugariengatik, baita Donostiako Egia auzoan egindako kontzentrazio erreakzionarioagatik ere. Mobilizazio hori, taldeak sustatuta eta Alderdi Popularreko hiru zinegotzik babestuta, baliabiderik gabeko pertsonentzako afari solidarioak antolatzen

⁸ Ruiz, Oscar (2024ko urriaren 21a). Migrazioari buruzko 2024ko balantzea: sarrera irregular gutxiago, baina Kanaria uharteak kolapsatuta. *Escudo Digital*. <https://www.escudodigital.com/internacional/balance-migracion-2024-menos-entradas-irregulares-islas-canarias-colapsadas.html>

⁹ EFE (2024ko abenduaren 21a). Espainiak porrot egin du adingabe migratzaileen harreran, Kanarietara iritsi diren urte errekorrean. <https://efe.com/espana/2024-12-21/acogida-menores-migrantes-canarias/>

¹⁰ B., A. (2025eko maiatzaren 1a). Diskurtso erreakzionarioa gora doa Euskal Herrian. *El Salto*. <https://www.elsaltodiario.com/racismo/olatu-erreakzionario-arrazista-euskal-herrira-iritsi-da>
Barcenilla Roman, Lu (2025eko urtarrilaren 25a). 'Donostiaz kontaktzen ez dizutena'edo nola antolatu ehizaldi arrazista bat Telegram bidez. *El Salto*. <https://www.elsaltodiario.com/racismo/lo-no-te-cuentan-donosti-telegram-racismo>

ziren eremu berean egin zen, eta Udalak afarien ekimen hori debekatu egin zuen azkenean.

Txateko mezuetan hirian dagoen ustezko segurtasunik ezaren sententzia aipatzen da, nazionalitate jakin batzuetako pertsonen presentziagatik sentitzen dutela esaten baitute (gorrotoa bereziki jatorri magrebtarreko gizonei eta familia-erreferenterik gabeko adingabeei zuzenduta dago), eta, hortik abiatuta, polizia-indarren “esku gogorraren” apologia egiten da. Horrela, migratzaileak modu kriminalizatu eta mehatxagarrian irudikatzen dira berriro, sarritan gertakari negatiboak eta etsaiak immigrazioarekin lotzen dituzten albisteek sustatuta¹¹. Gorroto-diskurtso horietan antzematen da adierazpenen maila gainditzen dela, indarkeria zuzenean bultzatuz eta kaleetan eraso arrazistak gauzatuz.

Hizpide dugun aldiaren estaldura mediatikoa maila globalean ikusita, aipatzekoa da Donald Trump 2025eko urtarrilean itzuli zela Estatu Batuetako gobernuaren burura, immigrazioaren aurkako diskurtsoz betetako hauteskunde-kanpaina baten ondoren, gorrotoa bultzatzeko erretorika indartsuarekin eta, bereziki, herrialdean bizi diren eta egoera irregularrean dauden pertsonen deportazio masiboaren promesarekin¹². Izan ere, Trumpen bigarren agintaldia hasi zenean, Latinoamerikarako deportazioak eta AEBko migrazio-agintarien tratu erdeinagarriak ere hasi ziren, eta horiek agenda mediatikoaren erdigunean jarri ziren.

Trumpen diskurtsorik entzutetsuena “legez kanpoko” deituriko pertsona migratuen aurkakoa bazen ere, migrazio erregularreko aukera apurkak ixteak agerian utzi zuen gobernu horrentzako arazoaren pertzepzioa ez zela haietara mugatzen, baizik eta migratzaileen multzora zabaltzen zela, arreta bereziki jatorri latindarra zutenetan jarrita¹³. Ildo horretan, migrazio-prozesuan dauden pertsonen etorrera adierazteko, “inbasio” hitza maiz agertu zen hainbat agerraldi mediatikotan. Horrekin batera, eztabaida publikoan presente egon zen X sare sozialeko diskurtso arrazisten ugaritzea ere; izan ere, Elon Muskek sare horren jabetza lortu zuenetik, murriztu egin ziren diskurtso horiek eta desinformazio-mezuak kontrolatzeko neurriak.

¹¹ Napal, Jorge (2024ko urriaren 19a). Pasaian gero eta gordinagoa da atzeritarren aurkako indarkeria. *Noticias de Gipuzkoa*. <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/sociedad/2024/10/19/pasaia-violencia-personas-extranjeras-vez-8825737.html>

¹² Babiker, Sarah (2024ko abenduaren 20a). 2024a, migratzen duten pertsonen aurkako beste urte bat. *El Salto*. <https://www.elsaltodiario.com/migracion/2024-otro-ano-guerra-personas-migran>
Qin, Amy (2024ko azaroaren 1a). Xenofobia eta gorroto-diskurtsoak areagotu egin dira AEBko hauteskundeei begira. *Nytimes.com*. <https://www.nytimes.com/es/2024/11/01/espanol/estados-unidos/xenofobia-discursos-de-odio-elecciones.html>

¹³ Canal Laiton, Ximena (2025eko urtarrilaren 30a). Sarekadak telebistan, gorroto instituzionaleko diskurtsoak eta beste herrialde batzuei ‘bullying’ egitea: Trumpen migrazio-politika berria. *Cerosetenta*. <https://cerosetenta.uniandes.edu.co/redadas-por-tv-discursos-de-odio-institucional-y-bullying-a-otros-paises-la-nueva-politica-migratoria-de-trump/>

Europari erreparatuz gero, migrazio-politika murriztaileak areagotu egin dira hainbat estatutan eta Europar Batasunean bertan¹⁴. Joera horren aurrekaria da EBko Migrazio eta Asilo Ituna, 2024ko maiatzean onartua, migratzaileen eskubideei buruzko neurri mugatzaileak biltzen dituen. Zehazki, neurri horien ondorioz, asiloa eskatzeko oztopo gehiago daude, eta mugetako atxilotetak areagotu egin dira. Horrez gain, modu anbiguoan definitutako egoeretan, estatu kideei asilorako sarbidea eteteko edo ukatzeko aukera ematen zaie.

Adibide paradigmatico bat Giorgia Meloniren eskuin-muturreko Italiako gobernuaren izenaz, asiloa eskatzen zuten pertsonak Albaniara eramango zituela adierazi zuenean (Erresuma Batuko eta Ruandako aurrekariarekin), eta horrela egiten hasi zen 2024ko urrian eta azaroan, botere judizialek geldiarazi zuten arte. Hungariak ere muturreko neurriak hartu ditu, sarrera-baimenik gabe mugara iristen diren pertsonak berehala itzularaziz, eta horrek asiloa eskatu ahal izatea eragozten du. Joera hori immigrazioarekiko Europako erreakzio- eta segurtasun-politikaren erakusgarri da (FRA, 2025¹⁵).

2025eko otsailean hauteskundeak egin ziren Alemanian, eta kanpaina horretan garrantzi handia hartu zuen immigrazioaren kudeaketak¹⁶. Hauteskundeetako emaitzaren ezaugarria izan zen, hein batean, eskuin-muturrerako botoen gorakada (AfD), “birmigrazioari” buruzko adierazpenekin edo migratzaileen eskala handiko itzulketekin. Era berean, desinformazioa eta informazio faltsuak erabiltzeagatik seinatu zen alderdi hori. Boto gehien lortu zituen hauteskunde-taldeak (CDU), Friedrich Merz buru zela, immigrazioaren kudeaketaren aurrean aurreko urteetan baino jarrera gogorragoa defendatu zuen, mugako kontrolak indartzea eta harrera mugatzea proposatuz.

Hala etagutziz ere, migrazioei buruzko albisteen zentraltasuna komunikabideetan eta sare sozialetan, eta immigrazioaren aurkako diskurtsoak eta neurriek eremu politikoan duten goranzko joera landa-lanaren aurreko testuinguruaren parte dira.

¹⁴ Human Rights Watch (2025eko urtarrilaren 16a). Europar Batasuna: migrazio-politikek areagotu egiten dituzte mugetako gehiegikeriak. <https://www.hrw.org/es/news/2025/01/16/union-europea-las-politicas-migratorias-agravan-los-abusos-en-las-fronteras>

¹⁵ FRA (2025). *Fundamental Rights Report 2025*. https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra_uploads/fra-2025-fundamental-rights-report-2025-opinions_en.pdf

¹⁶ Bassets, Marc (2025eko urtarrilaren 29a). Alemaniako Parlamentuak migrazioaren aurkako mozio bat onartu du, eskuinaren eta eskuin-muturraren botoekin. *El País*. <https://elpais.com/internacional/2025-01-29/el-parlamento-aleman-aprueba-una-mocion-contra-la-migracion-con-los-votos-de-la-derecha-y-la-extrema-derecha.html>
Isabel Dólera. (2025eko otsailaren 22a). Immigrazioa eta ‘Musk faktorea’, Alemaniarentzako Alternatibaren gorakadaren gakoak. *RTVE.es*. <https://www.rtve.es/noticias/20250222/inmigracion-factor-musk-factores-clave-para-auge-alternativa-para-alemania/16461620.shtml>
Rodil, L., Pérez, U. & Nicolás, S. (2025eko otsailaren 24a). Alemania, 2025eko hauteskundeak, laburpena: Merz kontserbadoreak irabazi ditu hauteskundeak eta ultraeskuina bigarren indarra da. *RTVE.es*. <https://www.rtve.es/noticias/20250223/resultados-elecciones-alemania-2025-directo-ganador-cronica/16459087.shtml>

Gaurkotasuneko gaiak eta giro mediatikoa inkesta-aldian

Landa-lanaren aldian agenda mediatikoan zentraltasuna lortu duten gaiei arreta berezia eskaini nahi izan zaie; izan ere, uste dugu inkesta egitetik gertuen dauden egunetan jorratutako albisteak bereziki erabakigarriak direla. Beraz, 2025eko martxoan protagonismo handiena hartu zuten immigrazioarekin lotutako gaietan zentraltuko gara.

Hilabete horretan, gure hurbileko testuinguruan, Gasteizen errefuxiatuentzako harrera-zentro berri bat martxan jartzea izan zen gai garrantzitsuenetako bat. Horri dagokionez, eztabaida bat sortu zen esparru publikoan, iritzi desberdinekin, ezaugarri hauetako zentro batean harrera egiten zaien pertsonen eskaini beharko litzaizkiekeen arreta-irizpide eta -modalitateei buruz.

Bestalde, Atzeritarrei buruzko Legearen erreformak, familia-erreferenterik gabeko adingabeak Estatuko erkidegoetan banatzeko, eragin handia izan zuen migrazioen inguruko agenda mediatikoan hilabete horretan. Lege-aldaketa martxoaren 18an gauzatu zen, Ministroen Kontseiluak onartutako lege-dekretu batean, eta familia-erreferenterik gabeko migratzaile adingabeen banaketa ezartzen du autonomia-erkidegoen artean, haien harrera-zentroen ohiko edukiera hirukoizten denean¹⁷.

Beste herrialde batzuetatik migratu duten eta azken urteetan kriminalizazio handiaren biktima izan diren adingabeen talde hori aipatzen denez, komeni da haiei buruz hitz egiteko erabiltzen den hizkuntzaren erabilera aztertzea. Gaztelaniazko “*mena*” akronimoak (*menores extranjeros no acompañados*: bakarrik dauden adingabe migratzaileak) administrazio-arloan du jatorria. Hala ere, termino horren erabilera mediatiko eta herrikoia mespretxuzko etiketa deshumanizatzailea ekarri du. Etiketa hori, oro har, Magrebeko edo Saharaz hegoaldeko gazteei aplikatzen zaie, adingabeak izanik bakarrik migratu

¹⁷ De Diego, Sara eta Prieto, Alberto D. (2025eko martxoaren 18a). Gobernuak Juntsekin adostu du bakarrik dauden 4.400 migratzaile adingaberen banaketa: Kataluniak 20-30 hartuko ditu. *El Español*. https://www.elespanol.com/espana/politica/20250318/gobierno-acuerda-junts-reparto-menores-no-acompanados/932156794_0.html

Europa Press. (2025eko apirilaren 6a). Bakarrik dauden adingabe migratzaileen banaketa autonomia-erkidegoen artean aste honetan helduko da Kongresura. *europapress.es*.

<https://www.europapress.es/epsocial/migracion/noticia-reparto-menores-migrantes-no-acompanados-comunidades-autonomas-llega-semana-congreso-20250406123250.html>

Lluís Vilà. (2025eko martxoaren 19a). “Adingabe” izatetik “*mena*” (bakarrik dauden adingabe migratzaileak) izatera, migrazioari buruzko Feijooen eta PPren diskurtsoaren bilakaera. *LaSexta*.

https://www.lasexta.com/noticias/nacional/menores-menas-evolucion-discurso-feijoo-migracion-que-acerca-vox_2025031967dadb7c9d5e65000172bf10.html

Iker Rioja Andueza. (2024ko abenduaren 8a). «Auzo-patrulak», «salbuespen-egoera» edo «bakarrik dauden adingabe migratzaileak»: migrazio-eztabaida bete-betean sartu da Euskadiko agendan. *ElDiario.es*. https://www.eldiario.es/euskadi/patrullas-vecinales-excepcionalidad-menas-debate-migratorio-entra-lleeno-agenda-euskadi_1_11884548.html

dutenei. Era berean, komunikabideetan nahiz eskuineko eta eskuin-muturreko sektoreetan behin eta berriz lotu izan da liskarrekin, gatazkekin eta indarkeria-ekintzeekin, eta horrek pertsona horiek kriminalizatzen eta estigmatizatzen lagundu du. Are gehiago, termino hori OBERAXEk (2025) monitorizatutako gorroto-mezuetako gakoetako bat da.

Alde horretatik, beste herrialde batzuetatik migratu duten adingabeen harreraren kudeaketari buruzko eztabaidak, sarritan agerian geratzen den deshumanizazioarekin batera, leku nagusia izan du migrazioen estaldura mediatikoan eta gaurkotasuneko eztabaidan inkestaren landa-lanaren aldian. Ildo horretan, migrazio-fenomeno osoaren artean, arreta immigrazio “irregularrera” zuzenduta zegoen, zehazki, immigrazio hori kudeatzeko zailtasunetara. Horrek guztiak eragina izan zezakeen herritarrek migratutako pertsonak eta migrazio-fenomeno osoa hautemateko moduan, eta horiek neurtzea da txosten honen helburu nagusia.

3

Metodologiari buruzko oharra

Edozein kolektibo minoritariorekiko jarrera arrazistak eta diskriminatzaileak hautematea beharrezkoa da hainbat mailatan (maila akademikoan, politikoan, sozialean, asoziatiboan, etab.). Izan ere, maila sozialean, diskurtso xenofoboak eta arrazistak hautematen laguntzeaz gain, haiek kuantifikatzen eta monitorizatzen ere laguntzen du. Zeregin hori beharrezkoa da, batetik, gizartean ezkutuko ideia baztertzaileren sistema bat dagoela ikusarazteko, eta, bestetik, ebidentzietan eta gizarte-ekimenetan oinarritutako politika publikoak hobeto bideratzea ahalbidetuko duen esparru bat izateko, estereotipoen eta aurreiritzien aurka borrokatzeko (Cortés Gómez eta End, 2019; Makkonen, 2016; Open Society European Policy Institute, 2017; Europako Batzordea, 2018).

Horrela, bada, Barometro hau ikerketa sozialeko tresna metodologiko bat da, eta bere helburua da zehaztea zer jarrera (ekintzarako jarrera edo jokabidearen dimentsioa) eta egoera dituen euskal biztanleria autoktonoak atzeritar jatorriko pertsonetikiko. Horrela, diskurtso xenofoboak eta arrazistak detektatzea eta monitorizatzea ahalbidetzen duen kalitatezko informazioa ematen da, diskurtso horien existentzia agerian utziz. Kalitatezko informazio horrek laguntzen du, halaber, politika publikoak hobeto bideratzen eta gizarte-ekimenak justifikatzen, estereotipoen eta aurreiritzien aurka borrokatzeko.

Horretarako, metodologia kuantitatiboa aukeratu da, eta erabilitako teknika inkesta izan da. Teknika hau aukeratu da egokia delako pertzepzioak eta jarrerak neurtzeko eta aurreiritziak eta estereotipoak aztertzeko. Era berean, bildutako datuak herritar guztiei estrapolatzeko aukera ematen duenez, oso baliagarria da gizarteak immigrazioarekiko duen jarrera deskribatzeko, azterketa horretan sakondu ahal izateko eta immigrazioa arbuiatzea azaltzen duten usteak identifikatzeko, bai eta jarrera hori murrizten lagunduko duten neurriak diseinatzeko ere, gizarte berdinzalego baten alde.

2004. urteaz geroztik, Ikuspegik urtero egiten du Immigrazioaren Barometroa, eta horrek testuinguruaren arabera ikuspegia ematen du, kontsultatutako aldagaien bilakaera azter baitaiteke. 2004ko lehen ikerketa hura egiteko, Ikuspegiko ikerketa-taldeak dokumentazio-lan handia egin zuen, Espainiako Estatuan eta European egindako antzeko ikerketetan arreta jarritz, eta haien dimentsioak euskal gizartearen errealitatera egokitu zituen. Hala, erreferentzia bereziko azterketa bat *European Monitoring on Racism and Xenophobia* (EUMC) izan zen, eta 2000ko Eurobarometroari buruz egin zuen berariazko azterketa, Vienako *Institute for Social Research and Analysis* ikerketa-taldeak egin. Izan ere, Barometro hau garatzeko ere oinarri izan zen.

Lagina 600 pertsonakoa izan da, % 95eko konfiantza estatistikoarekin ($P=Q=0,5$ kasuan) eta laginaren guztirako aurreikusitako gehieneko lagingakatsa $\pm \% 4,00$ koa izan da). Aukeratutako laginketa esleipen proportzionalaren bidez estratifikatutakoa izan zen, habitataren tamainaren eta adinaren arabera, eta esleipen sinplearen bidez, sexuaren aldagairako. Landa-lana 2025eko ekainaren 11tik 27ra bitartean egin zen¹⁸.

Txosten hau deskriptiboa da, galderak beste aldagai batzuekin gurutzatuta aztertzen baititu; aldagai horiek estatistikoki alde esanguratsuak erakusten dituzte. Aldagai biko analisisan zenbait aldagai soziodemografikoren garrantzia eta elkarreragina egiaztatu ahal izan dugu, hauena, adibidez: sexua/generoa, ikasketa-maila, adina, soldata-maila, sexu-orientazioa/desioa, eta jatorria. Azkenik, esan behar da genero-ikuspegia kontuan izanik garatu eta aztertu dela ikerketa hau. Ikuspegi horren ondorioz, datuak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak zehaztuz aurkeztu dira, alde horiek estatistikoki esanguratsuak eta garrantzitsuak direnean¹⁹. Halaber, ikuspegi hori kontuan hartu da galdetegia diseinatzean.

Emaitzen analisiari buruzko hurrengo atalean, datu batzuk modu sintetikoan aurkezten dira, eta IV. eranskinean zehaztutako grafikoekin osatzen dira: Item osoen eboluzio-grafikoak.

¹⁸ Informazio gehiagorako Eranskin Metodologikoa kontsultatu (laginaren xehetasunak, alderdi etikoak, landa-lanaren xehetasunak, datuen babesa eta anonimizazioa, datuen prozesamendua eta horien analisi estatistikoa).

¹⁹ Genero-ikuspegiari dagokionez, inkestak egiteko irizpide "klasiko" batzuk ere aldatu dira; zehazki, sexua/generoa aldagaia hiru erantzun-aukerarekin jaso da (emakumea, gizona eta ez-binarioa).

4

Atzerritar jatorriko biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak

Euskal gizartearen iritzia atzerritar jatorriko biztanleei buruz

Ondoren, *Atzerritar jatorriko biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak 2025* izeneko Barometroaren inkestan jasotako informazioaren azterketa aurkezten da, EAEko biztanleek atzerriko immigrazioari buruz adierazten dituzten pertzepzio, jarrera, sinesmen, balio eta iritzietan oinarrituta. Urte hauetan guztietan jasotako ebidentziari esker, jarrera eta iritzi horiek azken urteetako galdeketeekin alderatuta izan duten bilakaera ikus daiteke, baita jarrera horien eta iritzi publikoaren bilakaeran joera nagusiak zein diren hauteman ere.

Kapitulu honen egitura hiru bloketan antolatu da. Lehenengoan, EAEko gizartearen arazo nagusien balorazioa egiten da. Bigarren atalean, EAEn bizi den atzerritar jatorriko biztanleriaren bolumenaren pertzepzioa aztertzen da, eta, azkenik, hirugarren kapituluan, jatorriaren arabera migrazio-ibilbideak dituzten atzerritar jatorriko pertsonen etorrera-joerei buruzko aurreikuspenak aztertzen dira.

Zein dira EAEko gizartearen arazo nagusiak?

Gizarte bateko bizikidetzari eragiten dioten funtsezko alderdietako bat biztanleria hartzaileak migrazio-fenomenoarekiko dituen jarrerak dira. Ildo horretatik, txosten hau hasteko, pertsona horien aurretiazko pertzepzioei erreparatuko diegu, hau da, oro har migrazio-fenomenoari eta, bereziki, atzerritar jatorriko pertsonen etorrera-prozesuari buruzko pertzepzioei.

Lehenengoatal horretatik hasita, gai erabakigarri bat dajakitea euskal biztanleriak immigrazioa arazotzat hartzen duen, dela arazo pertsonaltzat, dela gizartearena oro har. Horretarako, lehenik eta behin, elkarrizketatuei galdetu zaie zein diren gaur egun Euskadin dauden hiru arazo nagusiak, eta erantzun espontaneoak bildu ditugu. Gero, galdera berbera egin dugu, baina Eurobarometroa egiteko oinarritzat erabilitako arazo-zerrenda bat erakutsita²⁰. Azkenik, galdera bera egin dugu beste behin, baina inkestatuen arazo pertsonaletan arreta jarrita, eta haiek modu espontaneoan emandako erantzunak bildu ditugu (3. grafikoa).


Euskadik berez dituen arazo nagusiei buruz modu espontaneoan erantzutean, hau da, erantzuteko aukerarik iradoki gabe, etxebizitza da, alde handiz, arazo nagusia herritarren % 51,2rentzat. Aipatutako gainerako arazoak oso urrun daude, eta batez ere ekonomia-gaietan (% 30,3), osasunean edo osasun-sistemarekin lotutako arazoetan (% 22), langabezian (% 19,2) eta lan-arazoetan (% 19) oinarritzen dira. Pixka bat urrunago eta garrantzi txikiagorekin dago immigrazioa; izan ere, hamar pertsonatik batek baino gutxiagok (% 9,7) adierazten du fenomeno hori arazo bat dela.

Aukera-zerrenda bat iradokiz Euskadiri eragiten dioten arazoei buruz galdetzen denean, etxebizitza (% 66,7), prezioen igoera (% 54) eta osasuna (% 32,5) aipatzen dira herritarrek gehien kezkatzen dituzten hiru arazo gisa, eta immigrazioa (% 10,7), berriz, bederatzigarren lekuan agertzen da hamahiru aukera posibleren zerrendan.


Maila pertsonalean gehien eragiten duten arazoei dagokienez, aipatutako hiru horiek —etxebizitza (% 36), zailtasun ekonomikoak (% 34,3) eta osasun-sistema (% 25,7)— herritarrei eragiten dieten arazo nagusien artean daude. Immigrazioa, berriz, azken postuan dago, eta biztanleriaren gutxieneko ehuneko batek aipatzen du (% 2,7).

²⁰ Eurobarometroa Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren pertzepzioei, jarrerei eta iritziei buruzko aldizkako inkesta bat da. Erreferente metodologiko eta konparatibo bat da, eta aukera ematen du eskualdeko edo estatuko inkesten emaitzak —Barometro hau, esaterako— Europako joeren testuinguruan kokatzeko.


3. grafikoa. Euskadiko arazoak, erantzun espontaneoak, iradokitakoa eta eragin pertsonala. 2025 (%)



1.g. Zein dira, zure ustez, gaur egun Euskadin dauden 3 arazo nagusiak? (gehienez ere 3 erantzun: erantzun espontaneoak)



2.g. Txartel honetan ageri diren arazoen artean, zure ustez zein dira Euskadiko hiru arazo nagusiak?




25.g. Zein dira zuri pertsonalki gehien eragiten dizuten hiru arazoak?

Aurreko edizioetako ildo beretik, emaitzek agerian uzten dute gai sozio-ekonomikoak direla garrantzitsuenak, eta, ondorioz, euskal gizartearen kezka nagusia direla. Nagusitasun horrek bigarren mailan uzten ditu sozialagoak izan daitezkeen beste arazo batzuk, hala nola immigrazioa, hezkuntza, ustelkeria, iruzurra eta diskriminazioa, beste arazo sozial batzuen artean.

Beraz, immigrazioa arazo bat al da euskal herritarrentzat? Datuek erakusten digute EAeko biztanle gehienentzat immigrazioa ez dela arazo, alderantziz baizik. Herritarrek adierazten dute arazo askoz larriagoak eta garrantzitsuagoak daudela. Immigrazioari dagokionez, biztanleriaren % 9,7k modu espontaneoan dio immigrazioa arazo soziala dela; aldiz, euskal gizartearen % 93k ez du immigrazioa arazo gisa aipatzen. Arazo posibleen zerrendan oinarrituta galdetzean (iradokita), % 10,7k immigrazioa arazo bat dela adierazten du.

Bestalde, maila pertsonalean eragiten dieten arazoei buruz galdetzean, aipamen guztiak kontuan hartuta, EAeko biztanleen % 2,7k baino ez du baieztatzen immigrazioa eguneroko bizitzan eragina duen arazoa dela, eta % 1,2k baino ez du aipatzen lehen aukera gisa. Aurten ere pertzepzio horien bolumenak ehuneko bosteko ²¹ langatik behera jarraitzen du, eta ia marjinalak dira euskal gizartean (1. irudia).

1. irudia . Immigrazioa arazotzat hartzea Euskadin. 2025




1.g, 2.g, 25.g

Azken 18 urteetako erantzunak aztertzean (4. grafikoa), ikusten da immigrazioa arazotzat hartzea pixka bat handitzen dela 2024. urtearekin alderatuta, bai iradokita aipatzen denean, bai modu espontaneoan ematen denean. Hala ere, pertzepzio hori arinki jaisten da galdera maila pertsonalean planteatzen denean; joera hori egonkor mantentzen da 2007tik, eta badirudi euskal gizartearentzat immigrazioa ez dela zuzenean eragiten dion kezka bat, baizik eta garrantzi pixka

²¹ % 5etik beherako ehunekoak tentu handiz interpretatu behar dira; izan ere, laginketaren berezko ausazko aldaketen ondorio izan daitezke, eta ez dute nahitaez biztanleriaren benetako joera islatu behar.

bat hartzen duela eztabaida sozial eta publikoaren eremuan. Hala, puntuazioek baxuak izaten jarraitzen duten arren, immigrazioa iradokitako arazo gisa agertzen da nagusiki, eta haren garrantzia ia desagertu egiten da maila pertsonalera eramaten denean.

4. grafikoa. Immigrazioa arazotzat hartzearen bilakaera Euskadin. 2007-2025 (%)



Euskadin immigrazioa arazotzat hartzearen bilakaerak, modu espontaneoan, iradokita edo modu pertsonalean, beherezko joera erakusten du 2007-2025 aldian, baina immigrazioak arazo gisa duen garrantziaren ehunekoak ere txikiak direla erakusten du. Azpimarratu behar da, halaber, 2022ko datuak Ukrainako gerrak eragindako krisi humanitarioak markatzen dituela. Krisi horrek eragin nabarmena izan zuen erantzunetan, eta immigrazioarekiko ezohiko irekiera erakutsi zuen —joera hori ez da denboran zehar mantentzen—.

Lehenik eta behin, Euskadiko arazo nagusiei buruzko erantzun espontaneoek dagokienez, immigrazioa, urtetik urtera, arazo txikiko postu batean kokatzen dela ikusten da. 2007an, herritarren % 15ek immigrazioa modu espontaneoan aipatu zuten, baina 2025ean ehuneko hori % 9,7ra jaitsi da. Hala, pixkanaka behera egin du eta gorabehera puntualak izan ditu, hala nola 2010eko gorakadak (% 15,4), baita 2014 (% 12,1) eta 2016 (% 12,3) artekoak ere.

Iradokitako galderaren aurrean, immigrazioa arazotzat hartzen dutenen ehunekoa handiagoa da modu espontaneoan aipatzen direnekin alderatuta neurri gehienetan, eta horrek garbi islatzen du galdera egiteko moduak erantzunean duen eragina. Hala ere, hemen ere ikusten da pertzepzioak behera egin duela arazo gisa, aldien arabera azterketan: 2007ko % 13,5etik 2025eko % 10,7ra, 2010ean maximoa lortu ondoren (% 20,2), krisi ekonomikoaren eta haren ondorioen unerik gogorrenetan, bereziki lan-merkatuan.

Azkenik, immigrazioa eguneroko bizitzan modu pertsonalean eragiten duen arazoa ote den galdetzean, ehunekoak etengabe dira baxuenak, une gorenetan

biztanleriaren % 9ra iristen ez direnak, eta beheranzko joera egonkorra adierazten dute, % 4tik beherako ehunekoetan kokatuz. 2007an % 6,4 zen, 2025ean % 2,7, eta 2023an, berriz, minimo historikoa (% 1,7).

Datu horietatik ondoriozta daiteke immigrazioa ez dela, ez orain ez lehen, euskal herritarren kezka nagusia. Ematen zaion garrantzi-mailan gorabeherak dauden arren, gorabehera horiek egoera espezifikoekin lotuta daude —2008-2010eko ekonomia- eta lan-krisia, Ukrainako gerra 2022an edo ikusgarritasun-une jakin batzuk hedabideetan edo diskurtso publikoan—. Oro har, EAEko biztanle gehienek ez dute immigrazioa lehentasunezko arazotzat jotzen Euskadirentzat, eta are gutxiago beren bizitza pertsonalarentzat.

Atzeritar jatorriko pertsonen bolumenaren pertzepzioa

Puntu honetan, EAEko biztanleek Euskadira migratu duten eta bertan bizi diren atzeritar jatorriko pertsonen bolumenari buruz duten pertzepzioa aztertzen da. Gai garrantzitsua da, gizartean migrazio-fenomenoari buruzko pertzepzio gaindimentsionatuta²² dagoen jakiteko aukera ematen baitu. Talde arteko giroaren adierazle hori immigrazioaren bolumenaren pertzepzioaren aldearekin eraikitzen da, hau da, batetik, hautematen den immigrazioaren ehunekoa eta, bestetik, Euskadin bizi diren atzeritar jatorriko biztanleen benetako bolumena edo ehunekoa.

Bi balio horien arteko alde hori positiboa eta handia denean, gehiegizko dimentsionamendua gertatzen da, eta horrek immigrazioarekiko jarrera negatiboen adierazle gisa joka dezake. Semyonov *et al.* (2004²³, 2008²⁴) egileek diotenez, biztanleria migratzailearen tamainaren gehiegizko pertzepzioa lotuta dago mehatxu- eta arbuio-sentimenduekin, bai eta politika murriztaileen aldeko jarrerekin ere.

Beraz, pertzepzioaren eta errealitatearen arteko arrakala hori aztertuz gero, hobeto uler daiteke immigrazioari buruzko iritziak garatzen diren gizartearen testuingurua, bai eta taldeen arteko balizko tentsioak aurreikustea ere. Horretarako, EAEn erroldatuta dauden atzeritarren benetako bolumena zein


²² Gehiegizko pertzepzioa edo pertzepzio handitua, aipatzen den fenomenoaren errealitatearekin alderatuta.

²³ Semyonov, M., Rajman, R., Yom Tov, A., & Schmidt, P. (2004). Population size, perceived threat, and exclusion: a multiple-indicators analysis of attitudes toward foreigners in Germany. *Social Science Research*, 33, 681–701. <https://doi.org/10.1016/j.ssresearch.2003.11.003>

²⁴ Semyonov, M., Rajman, R., & Gorodzeisky, A. (2008). Foreigners' impact on European societies public views and perceptions in a cross-national comparative perspective. *International Journal of Comparative Sociology*, 49(1), 5–29. <https://doi.org/10.1177/0020715207088585>

den jakitera eman aurretik eta jakitera eman ondoren aztertu dugu etorkinen bolumenari buruzko pertzepzioa.

2. irudia. Euskadiko etorkinen bolumenari buruzko zenbatespena. 2025




3.g. Euskadin bizi diren beste herrialde batzuetako etorkinen kopurua handiegia dela iruditzen al zaizu, nahiko handia dela, egokia dela, txikia dela edo ez dela nahikoa?

Euskal gizartearen bolumen-pertzepzioa eta erkidegoan erroldatutako atzerritar jatorrikoen benetako zifrak alderatzen baditugu, ikusiko dugu euskal biztanleriak migrazio-fenomenoari buruzko pertzepzio gairak gehiegizatuak direla. Euskadira migratu duten pertsonen bolumenari buruzko pertzepzio hori % 22,6ra iristen da, eta horrek ia bikoiztu egiten du erroldatuta eta erregistratuta dauden atzerritar jatorriko pertsonen ehunekoa —estatistika ofizialen arabera, % 14,1 da— (2. irudia).

Euskal herritarrek migrazio-ibilbidea duten eta EAEn finkatu diren pertsonen bolumenari buruz duten pertzepzioa aztertze aldera, euskal gizarteari galdetu zaio Euskadin atzerritar jatorriko zenbat pertsona dauden, datu errealak eman aurretik (5. grafikoa). 2025ean, EAEko biztanleen % 19,0k uste du gehiegi direla, eta % 26,8k, berriz, dezente. Oro har, % 45,8k uste du dezente edo gehiegi direla beste herrialde batzuetatik EAera migratu duten pertsonak, eta % 45,3k uste du bolumena egokia dela; % 4,7k, berriz, uste du gutxi direla edo ez direla nahikoak, eta % 4,2k ez daki edo ez du erantzun.

5. grafikoa. Atzeritar jatorriko biztanleen kopuruaren pertzepzioa, datu ofiziala eman aurretik.
2004, 2007-2025 (%)



3.g


Euskadin atzeritar jatorriko biztanleriaren bolumenari buruz gizarteak duen pertzepzioaren bilakaerak aldaketa garrantzitsuak erakusten ditu. 2013 eta 2014 artean, handitu egin zen EAEn atzeritar jatorriko biztanle migratzaileak gehiegi edo dezente zirela uste zuten pertsonen kopurua, % 37,7ra iritsiz (2012an, "egokia" kategoria sartu zen). 2016an, adibidez, % 36,8k uste zuen zifra egokia zela, eta % 21,3k uste zuen zifra handiegia zela. Joera hori sendotu egin da azken urteetan: 2022an, herritarren % 61,0k uste zuten zifra egokia zela, eta % 10,2k baino ez zuten uste handiegia zela. Serie historikoko daturik baxuena da, eta gertaera historiko garrantzitsuen sekuentziak eragindako testuinguru atipiko batekin bat dator.

Azken urteetan, hala ere, pertzepzio kritikoen gorakada txiki bat ikusten da. 2024an, biztanleriaren % 24,5ek uste zuen handiegia zela Euskadin bizi ziren pertsona migratuen bolumena, eta 2025ean, berriz, zifra hori % 19,0ra jaitsi da. Hala ere, datu horrek polarizazio-maila handiagoa islatzen du 2022–2023 urteetan jasotako datuekin alderatuta, urte haietan bolumen egokiaren pertzepzioa nagusitu baitzen, posizio moderatuagoak babestuz.

Barometrorako bildutako emaitzek berresten dute euskal gizarteak EAEn bizi den atzeritar jatorriko biztanleriaren bolumenari buruzko pertzepzio gaimentsionatua duela. Baieztapen hori etorkinen bolumenaren pertzepzioa datu

errealarekin alderatzean oinarritzen da (6. grafikoa). Aurten (2025), bolumenari buruzko pertzepzioa estatistika ofizialetan erroldatuta eta erregistratuta dauden atzeritar jatorriko pertsonen zifra baino 8 puntu handiagoa da.

6. grafikoa. Euskadin hautemandako atzeritar jatorriko eta benetako biztanleriaren bolumena 2007-2025²⁵ (%)




4.g. Euskadin bizi diren 100 pertsonatik, gutxi gorabehera zenbat dira, zure ustez, atzeritar jatorrikoak, Espainiatik kanpo jaiotakoak?

2007tik 2025era bitartean beste herrialde batzuetatik migratu duten biztanleen ehunekoaren eta benetako ehunekoaren arteko aldea aztertuz gero, ikusten da migratutako pertsonen bolumena gehiagi handitzeko joera ez dela fenomeno berria, denboran zehar konstante bat baizik. Pertzepzioaren eta errealitatearen arteko arrakala modu iraunkorrean mantendu da, portzentajezko 6 eta 10 puntu artean. 2007an, adibidez, atzeritar jatorriko pertsonak EAEko biztanleriaren % 17,9 zirela uste zen, baina, egiaz, % 5,7 ziren. Azken urteetan (2022-2025), bi ehuneko horien arteko aldea ia bikoitza da. Pertzepzioaren eta errealitatearen arteko distantzia proportzionala murrizteko joera erakusten duten datuek iradokitzen dute herritarren begiradan bilakaera bat izan dela, eta horretan eragina izan dutela, ziur aski, biztanleria migratzailearekiko hurbiltasun handiagoak, informazio zehatzerako sarbide handiagoak eta datu errealak hobeto egokitutako narratibak eskuratzeak.

7. grafikoa, Euskadiko atzeritar jatorriko biztanleriaren bolumenari buruzko galdera beraren emaitzak jasotzen dira, baina, kasu honetan, inkestatutako pertsonen zifra errealaren berri eman ondoren (% 14,1, 2025ean). Ariketa horren helburua da egiaztatzea datu zehatzaren ezagutzak zenbateraino eragiten duen herritarren pertzepzioan.

²⁵ Azken urteetan, Estatistikako Institutu Nazionalak aldatu egin du biztanleen proportzioa kalkulatzeko metodologia. 2023tik aurrera, udal-erroldatik ateratako datuak erabili beharrean, zenbatespen estatistiko baten bidez lorturiko zifrak argitaratzen dira (izartxo markatutako zifrak).

7. grafikoa. Atzerritar jatorriko biztanleriaren bolumenari buruzko pertzepzioaren bilakaera, errolatutako atzerritar jatorriko pertsonen zifraren berri eman ondoren. 2004, 2007-2025 (%)



5.g. Esango banizu Euskadiko 100 pertsonatik % 14 inguru atzerritar jatorrikoak direla, gauza bera pentsatzen jarraituko duzu edo beste iritziz bat duzu?

Emaitzek erakusten dute benetako informazioa edukitzeak pertzepzioak aldatzen dituela, baina espero zitekeena baino neurri txikiagoan. Ildo horretan, EAE etorkin gehiegi daudela uste dutenen ehunekoa 9,2 puntu jaitsi da aurreko balorazioarekin alderatuta, eta % 9,8 da. Era berean, aurrez etorkin dezente zeudela uste zuten pertsonen taldea 5,3 puntu murriztu da, % 21,5era arte. Aldaketarik esanguratsuena da etorkinen kopurua egokia dela uste dutenen ehunekoak gora egin duela, 10,9 puntu hazi baita, % 56,2ra iritsi arte. Hau da, datu erreala eman ondoren, pertsona gehienek adierazi dute Euskadira migratu duten pertsonen bolumena egokia dela. Era berean, “gutxi” direla uste dutenen ehunekoak ere gora egin du, neurri txikiagoan bada ere (% 9,5ek adierazi du hori, datua ezagutu ondoren).

Generoaren arabera azterketak erakusten du alde estatistikoki esanguratsua dagoela etorkinen bolumenaren datu erreala jakin ondoren: emakumeek Euskadin bizi diren eta migrazio-ibilbidea duten atzerritar jatorriko pertsonen bolumen handiagoa adierazten dute datu erreala jakin ondoren ($M = \% 24,6$),

gizonek baino ($M = \% 20,7$). Garrantzitsua da aipatzea generoen arteko alde hori txikia dela²⁶.

Bolumenaren balioespenaren ikuspegi historikoa aztertzean, datu erreala ezagutu ondoren, ikusten da 2012 (% 16,3 gehiegi eta % 24,6 dezente) eta 2015 artean (% 22,3 eta % 25,3) atzeritar jatorriko pertsonen presentzia gehiegizkoa edo handia zela uste zutenen kopuruak gora egin zuela. Joera horrek behera egin zuen lehenik 2016-2017an eta, are gehiago, 2019tik aurrera (2020an, % 9,8 eta % 18,8). Hala ere, azken urteetan iritzi kritikoen gorakada gertatu da (2024an, % 15,1 eta % 21,6). 2025ean, zifra erreala eman ondoren, badirudi gorakada hori lehengoratu egin dela eta 2020koen antzeko mailetara itzuli dela.

Nahiz eta datu objektiboak sartzeak aukera ematen duen atzeritar jatorriko biztanleriaren presentziari buruzko pertzepzio gaindimentsionatu batzuk neurri batean zuzentzeko, alde handiak daude zenbatespen subjektiboaren eta zifra errearen artean. Eraitza hori 2004. urtetik berretsi da edizio guztietan, eta iradokitzen du informazioen pirikoak eta objektiboak neurriz gaineko pertzepzioak zehazten edo moderatzen lagundu dezakeela; hala ere, ez da nahikoa alde aurretik finkatutako imaginario kolektiboak eta estereotipoak desaktibatzeke —kasu honetan, biztanleria migratzailearen bolumenaren ingurukoak—.

Migratzaileak etorkizunean etortzeari buruzko espektatibak

Etorkizunerako espektatiben azterketari esker, Euskadiko immigrazioari buruzko pertzepzio sozialen egungo argazkitik haratago joan daiteke, herritarrek migrazio-fenomenoaren bilakaera datozen urteetan nola ikusten duten aztertzeko begirada prospektiboa eskaintzen baitu. Gai hori funtsezkoa da egungo jarrerak ulertzeko, bai eta herritarrek proiektatzen dituzten interpretazio-esparruak ulertzeko ere; izan ere, esparru horiek iritzi publikoa bideratzen dute, eta migrazio-politiketarako eskaerak baldintzatzen dituzte, egungo egoeratik harago.

Interes hori justifikatzen da espektatibek aurretiazko sinesmen gisa funtzionatzen dutelako, gizarte-errealitatearen interpretazioa bideratzen dituztenak eta egoera eta kolektibo jakin batzuekiko jarrera baldintzatzen dutenak. Pertsonen mundu soziala aurrez ezarritako pentsamendu-esparruen bidez hautemateko joera duten heinean, espektatibek pertzepzioan zein ekintzan eragiten duten interpretazio-gida gisa jokatzen dute; hau da, informazioa prozesatzeko moduari


²⁶ $d = 0,27$; $IC \% 95$ 0,11-0,43, Cohenen efektuaren magnitudearen interpretazio-irizpideen arabera (1988), non $d \approx 0.20$ efektu txikia den, $d \approx 0.50$ moderatua eta $d \geq 0.80$ handia.

zein portaera sozialari eragiten diote (Hamilton, Sherman eta Ruvolo, 1990²⁷; Fiske & Taylor, 2021²⁸).

Illo horretan, 2023an Barometroaren analisisetan identifikatu zen aldagai horrek iragartzeko ahalmen handia zuela, eta pertsona batek immigrazioaren aurrean duen jarrera orokorraren iragarle onena zela, baita faktore ideologiko edo soziodemografikoen gainetik ere (Ikuspegi, 2023²⁹).

Uste horiei dagokienez, 2025eko datuetan, pertzepzioa argia da: biztanleriaren gehiago absolutuak datozen urteetan etorkinen bolumenak gora egingo duela aurreikusten du. Hala, hamar pertsonatik bederatzik (% 90,0) uste dute migrazio-prozesuan dauden pertsonen etorrerak gora egingo duela datozen bost urteetan. Aitzitik, % 1,3k soilik uste du behera egingo duela, % 7,3k uste du berdin jarraituko duela eta % 1,3k ez du iritzirik ematen (8. grafikoa).

8. grafikoa. Euskadiko immigrazio-fluxuen etorkizunerako espektatibaren bilakaera. 2017-2025 (%)



6.g. Hurrengo 5 urteetako egoerari begira, immigrazioak EAEn, zure ustez, behera egingo du, gora egingo du edo oraingoa bezalakoa izango da gutxi gorabehera?


²⁷ Hamilton, D. L.; Sherman, S. J. eta Ruvolo, C. M. (1990). Stereotype-based expectancies: Effects on information processing and social behavior. *Journal of Social Issues*, 46(2), 35–60. <https://doi.org/10.1111/j.1540-4560.1990.tb01922.x>

²⁸ Fiske, S. T. eta Taylor, S. E. (2021). *Social cognition: From brains to culture* (4th ed.). SAGE.

²⁹ Ikuspegi (2023). *Barometroa 2023 Jatorri atzeritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak* (151.-152. or.). https://www.ikuspegi.eus/files/publicaciones/129_4.pdf

Immigrazioaren hazkunde-aurreikuspenari buruzko gizarte-adostasun hori³⁰ ez da bat-batean sortu, baizik eta serie historikoan joera egonkor baten emaitza da. 2017an, biztanleriaren erdiak baino gehixeagok (% 54,5) hazkundera aurreikusten zuen; hamarretik ia hiruk (% 28,4), berriz, egonkor mantenduko zela uste zuten, eta hamarretik batek (% 10,0) behera egingo zuela. 2018tik aurrera, hazkunde-espektatibek indarra hartu zuten, eta % 70eko atalasea gainditu zuten 2019-2020 aldian. 2021etik aurrera, hazkunde-aurreikuspena ia aho batez sendotu da gehiengo gisa, % 73 eta % 85,7 arteko balioekin 2022ra arte, eta nabarmen igo dira azken urteetan (% 82,8 2024an eta % 90,0 2025ean). Aldi berean, beherakada edo egonkortasuna adierazten zuten erantzunek pisua galdu dute pixkanaka, eta minimo historikoetan kokatu dira 2025ean. Beraz, immigrazioa jada finkatuta dagoen egiturazko fenomenotzat hartzen da Euskadin (9. grafikoa).

9. grafikoa. Migratzaileen etorrerari buruzko espektatibak jatorriaren arabera. 2025 (%)




7.g. Demagun etorkizunean ere etorkinek EAEra etortzen jarraituko dutela. Zure ustez, nongoa izango da etorkinen talderik handiena? Eta etorkinen bigarren talderik handiena? Eta hirugarrena?

2025ean, euskal herritarrek etorkizuneko immigrazioaren jatorriari buruz dituzten espektatibak hiru eskualde handitan biltzen dira nagusiki: Magreb, Latinoamerika eta Saharaz hegoaldeko Afrika. Magreb da gehien aipatzen den jatorria: lehen aipamenen % 40 eta aipamen guztien % 75 biltzen ditu. Oso gertu dago Latinoamerika, % 31k lehen aukera gisa identifikatzen baitu, eta % 72,3k metatutako guztizkoan. Ondoren, Saharaz hegoaldeko Afrika nabarmentzen da,

³⁰ Ohikoa da kontuan hartzea item batek adostasun soziala lortzen duela edo gizartean iritzi bat argi eta garbi nagusitzen dela % 70 inguruko babesa gainditzeko duenean (adostasunez edo desadostasunez, formulazioaren arabera).

% 21,2 lehen aukeran, eta % 66,7 aipamen guztietan (10. grafikoa). Bigarrenik, balio dezente txikiagoekin, Ekialdeko Europarekin lotutako pertzepzioak daude. EBko gainerakoek (Bulgaria, Errumania eta Kroazia) aipamenen % 8,3 biltzen dituzte guztira, eta Ekialdeko Europako gainerakoek, berriz, % 10,7. Bestalde, Asia herritarren % 5,8k aipatzen du. Datu horiek zifra ofizialekin alderatzen baditugu, ondoriozta dezakegu pertzepzio hori ez datorrela bat errealitatearekin; izan ere, 2024an Euskadira iritsi ziren etorkinen % 74,8 Latinoamerikatik etorri ziren —Euskadin migrazio-bolumen handiena duen eskualdea (Ikuspegi, 2025³¹)—, eta Magrebetik eta Afrikako beste herrialde batzuetatik etorritakoen ehunekoa askoz txikiagoa da.

10. grafikoa. Euskal biztanleriaren ustez nagusiki iritsiko diren etorkinen jatorriaren bilakaera. 2018-2025 (erantzunak guztira, %)



Bilakaeraren ikuspegitik (10. grafikoa), ikusten da Magreb etengabe hazi dela immigrazioaren jatorri nagusi gisa identifikatzean: 2018an % 50,2 izatetik 2024an % 87,3 izatera igaro da, eta 2025ean pixka bat jaitsi da. Latinoamerikak, immigrazioaren jatorri potentzial gisa, bilakaera gorabeheratsuagoa izan du, minimoa 2022an (% 36,5) eta gorakada esanguratsua azken hiru urteetan, 2025ean serieko mailarik altuenean kokatu arte (% 72,3). Saharaz hegoaldeko Afrikak ibilbide egonkor samarra izan du azken bosturtekoan: % 62,7 2022an, maximoa 2024an (% 76,4), eta 10 puntuko atzerakada 2025ean (% 66,7).


³¹ Ikuspegi (2025). Begirada 95. Atzeritar jatorriko biztanleak EAEn 2025.
https://ikuspegi.eus/files/publicaciones/206_4.pdf

Kasu berezi bat Ekialdeko Europa da, 2022an ezohiko gailurra lortu baitzuen (% 72,2), ziurrenik Ukrainako gerrari eta migrazio-fluxu horren ikusgarritasun mediatikoaren koiunturazko gorakadarekin lotuta. Hala ere, urte horren ondoren, adierazleak behera egin zuen, eta 2025ean oso maila txikietara itzuli zen (% 10,7); horrek erakusten du gorakada hori ohiz kanpokoia izan zela, eta ez egiturazko joera bat.

Migrazio-politikak eta eskubideak eskuratzea

Atal honetan, euskal herritarren arabera erakunde publikoek zer-nolako immigrazio-politika egin behar duten aztertuko dugu. Horretarako, Euskadiko biztanleei galdetu zaie zein den, beren ustez, immigrazio-politika egokiena kanporatzearen gaiari buruz edo, oro har, jarraitu beharreko politikari buruz, baina baita nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen buruz eta familia-erreferenterik gabeko atzeritar jatorriko adingabe eta gazteei buruz ere. Azkenik, atal honetako azken epigrafean herritarrek zer jarrera dituzten aztertzen da, EAera migratutako pertsonen eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeari buruz.


3. irudia. Kotsultatutako migrazio-politikaren pertzepzioa



Migrazio-politikak: sartzea eta bertan geratzea

Euskal gizarteari atzeritar jatorriko pertsonak sartzeko eta bertan geratzeko politikei buruz galdetzean, % 34,2k uste du legezko oztoporik gabe sartzan utzi beharko litzatekeela, hau da, herritarren herenak sarrera librean babesten du; gehiengoak, berriz, % 40,8k babestuta, lan-kontratu bat dutenei soilik sartzan uztearen alde egiten du, immigrazioa lan-jarduerarekin lotuz. Bestalde, % 17,8k legezko beste baldintza batzuk betetzen dituzten pertsonen sartzan uztearen alde egiten du, hala nola familia berriz elkartzea, ikasteko baimenak edo asilo-eskaera. Posizio murriztaileak gutxiengoa dira: % 2,7k soilik uste du erabat debekatu beharko litzatekeela migrazio-ibilbideak dituzten atzeritar jatorriko pertsonen sarrera (11. grafikoa).

11. grafikoa. Immigrazio-politiken irizpideak: sartzeko irizpideak. 2007-2025 (%)



11.g. Zure ustez, zein izango litzateke etorkinak herrialdean sartzeari buruzko politika egokiena?

Etorkinak herrialdean sartzeko irizpideei dagokienez, euskal gizartearen iritzari buruzko denbora-seriearen azterketak erakusten du bilakaera esanguratsua izan dela azken urteotan, egoeraren arabera faktoreek nahiz sakoneko joerak baldintzatuta. Legezko oztoporik gabe sartzeko irizpidea nabarmen hazi da 2007an lehen aldiz erregistratu zenetik (% 9,4). Hala, % 10,0 inguruan mantendu da 2015era arte –krisiaren osteko susperraldi ekonomikoaren hasierarekin bat dator—. Urte horretatik aurrera, jarrera irekien gorakada progresiboa ikusten da, eta 2020tik aurrera bizkortu egin da. Goranzko joerak biztanleriaren herenaren babesa lortu du 2021ean (% 33), eta maila horietan finkatu da hurrengo urteetan, 2024an ezohiko datua izanik (% 26,4) (11. grafikoa).

Denbora-serie osoan, lan-kontratua dutenei soilik sartzeko irizpidea da babesik handiena duen aukera, gaur egun % 40,8k babesten baitu. Hala ere, beherakada nabarmena izan da seriearen lehen urteekin alderatuta, orduan biztanleriaren % 80k baino gehiagok (2007-2010) lan-jarduerari hertsiki lotutako immigrazio-politika defendatzen baitzuen. Hala ere, hamar pertsonatik lauk uste dute migrazio-ibilbidea duten atzerritar jatorriko pertsonen presentzia legitimatzeko bide nagusia lan-merkatuan sartzeko irizpidea dela.

Hirugarren tokian, beste baldintza espezifiko batzuk (familia berriz elkartzeko irizpidea, ikasketak edo errefuxiatua izatea, esaterako) betetzen dituztenei sartzeko irizpidea da.


uzteko joera duen biztanleria-taldea dago. Aukera horrekiko adostasun-mailak kurba konbexuaren moduko bilakaera erakusten du: balio moderatuetatik abiatzen da 2012an (% 16,7), eta maximoetara iristen da krisi ekonomikoaren osteko suspertze-urteetan (% 34,5, 2018an), eta gaur egun hasierako mailaren antzekoa da (% 17,8, 2025ean). Oro har, jarrera hori nahiko egonkor mantendu da, unean uneko gorabeherekin, eta erabateko irekieraren eta lan-murritzketaren bitarteko aukera gisa eratu da.

Aldi berean, immigrazioaren debeku osoa defendatzen duen taldea oso zifra txiki eta egonkorretan mantentzen da serie osoan zehar (% 2-3 inguru), eta 2025ean % 2,7 da. Horrek baieztatzen du jarrera argi eta garbi murriztaileek gutxiengoa izaten jarraitzen dutela Euskadin.

Sarrera-irizpideei emandako babesaren azterketa historikoak euskal gizartearen immigrazioari buruzko pertzepzioaren sakoneko aldaketa adieraz lezake. Lan-merkatuak sarrera legitimatzeko funtsezko erreferentea izaten jarraitzen badu ere, immigrazioa egiturazko fenomeno gisa gero eta gehiago onartzen denez eta irekieraren aldeko jarrerak sendotzen ari direnez, esan dezakegu imajinario kolektiboan eraldaketa sakona dagoela migrazio-politikei dagokienez.

Euskal herritarren ustetan atzeritar jatorriko biztanleak hemen sartzeko bete beharko lituzketen baldintzak aztertu ondoren, honako gai honi heldu diogu: zein dira, herritarren ustez, hemen geratzeko eta hemendik kanporatzeko faktoreak? Delitu baten kasuan, euskal biztanleria zatituago ageri da (12. grafikoa). 2025ean, biztanleriaren herenaren iritziz (% 33,3), herrialdetik kanporatzeko arrazoi bat izan beharko luke; % 40,8, aldiz, ez daude ados, eta % 23, berriz, zalantzazko tarteko posizioetan daude.

12. grafikoa. Immigrazio-politikekiko jarreraren bilakaera: delitua, kanporatzeko arrazoi gisa. 2004-2025 (%)



8f.g. Esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazten denarekin: Hona etorri den norbaitek delituren bat egiten badu, herrialdetik kanpora bidali beharko litzateke

Denboran izandako bilakaerak (12. grafikoa) erakusten duenez, nahiz eta delituagatiko kanporatzearekin lortutako adostasuna nagusi izan den serieko urte gehienetan, gorabeheraz eta intzidentzia-gertaerez haratago, hori ez da horrela izan azken urteetan. Aldaketarik garrantzitsuenak 2019tik aurrera gertatu da, adostasunaren ehunekoa nabarmen murriztu baitzen, eta joera hori, 2024an izan ezik, sendotu egin da azken bost urteetan. Alderantziz, delituagatiko kanporaketarekin ados ez egoteak gora egin zuen, 2020an gehien babestu zen alternatiba izan baitzen (% 51,4), eta, azken bost urteetan zertxobait jaitsi den arren, gaur egun ere gizartearen babes handiena duen alternatiba izaten jarraitzen du.

Emaitzek erakusten dutenez, euskal gizarteak jarrera zorrotza du legea betetzeari dagokionez, baina, aldi berean, herritarren segmentu esanguratsu batek eztabaidarako gune bat irekitzen du eta ikuspegi proportzionalago bat defendatzen du, zigor penalak nahitaez kanporatzea ez dakarrena.


Migrazio-politikak administrazio-irregularitasunen aurrean

EAEko biztanleek migrazio-politikari buruz duten iritzia aztertu ondoren, garrantzitsua da jakitea zer jarrera duten kudeaketa-politikei buruz, administrazio-egoera irregularrean dauden atzeritar jatorriko pertsonen dagokienez.

2025ean, hamar pertsonatik zortzi baino gehiago (% 85,8) formula baten edo bestearen arabera erregularizazioaren alde agertu ziren, eta horrek kolektibo horrekiko ikuspegi oso inklusiboa berresten du. Horrela, % 41,5ek administrazio-egoera irregularrean dauden pertsona guztiak erregularizatzearen alde egiten du, eta % 44,3k lan-kontratua dutenak bakarrik erregularizatzearen alde (13. grafikoa).

Aukera murriztaileek babes askoz txikiagoak biltzen dituzte. % 4,5ek uste du bitartekoak eman beharko lirakeela egoera irregularrean dauden pertsonak beren herrialdera itzultzeko, eta % 3,5ek baino ez du defendatzen zuzenean kanporatzea; % 6,2k, berriz, ez du iritzirik ematen.

13. grafikoa. Egoera administratibo irregularrean dauden pertsonekin loturiko politikei buruzko jarreraren bilakaera. 2004-2025 (%)



12.g. Zure ustez, zer egin beharko luke gobernuak bizileku-baimenik ez duten etorkinekin?

Bilakaerari dagokionez, emaitzek aldaketa nabarmena erakusten dute azken hamarkadan. Seriearen lehen urteetan (2008-2012) administrazio-egoera irregularrean zeuden pertsonak oro har kanporatzeko aukera % 10 eta % 21,3 artekoa zen (2012), baina azken urteetan —2024an izan ezik— neurri horren babesa murrizten joan da, eta aurten gutxieneko historikoetara iritsi da (% 3,5).


Aldi berean, pertsona guztiak erregularizatzeko alternatibaren babesak hazkunde iraunkorra izan du serie historiko osoan zehar. 2004an, biztanleriaren % 15,5 baino ez zegoen aukera horren alde, eta 2025ean, berriz, % 41,5era

iritsi da —orain arte erregistratutako mailarik altuena, 2022an lortutako gailurrarekin batera (% 44,3)—. Eraitza horiek argi eta garbi erakusten dute jarrera inklusiboagoak eta normalizataileagoak hartzeko joera dagoela, eta jarrera horiek gero eta leku handiagoa hartu dute euskal herritarren artean, proposamen murritzaleagoen aurrean.

Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen zuzendutako politikak

Politika eta ekintza instituzionalekiko jarreraren analisiaren barruan, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen jarreraren azterketa sartu da. Gaur egun, hamarretik zortzi (% 86,6) harreraren alde daude, baina ñabardurak eta desberdintasunak dituzte baldintzei dagokienez. Hala, % 31,3 ados dago murritzetarik gabeko harrerarekin, eta gehiengoak (% 40,3), berriz, hori egitea defendatzen du, baldin eta benetan jazarriak direla egiaztatzen bada. Bestalde, % 15,0 onarpenen urteko muga bat ezartzearen alde dago, eta % 3,3 soilik dago edozein harrera-motaren aurka. % 10,0k ez du erantzun zehatzik ematen (14. grafikoa).

14. grafikoa. Nazioarteko babesa eskatzen dutenekin loturiko politikei buruzko jarreraren bilakaera. 2008-2025 (%)




13.g. Eta babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonekin, zure ustez, zer egitea izango litzateke egokiena?

Seriearen bilakaeraren analisiak (2008-2025) aukera ematen du euskal gizarteak asilo-eskatzailen harrerari buruz duen iritzia aldaketa garrantzitsuenak identifikatzeko. Lehen urteetan, jarrerarik irekiena —murrizketarik gabeko harrera defendatzea— % 13,3ra baino ez zen iritsi 2008an, eta gehienak, berriz, harrera onartzearen alde zeuden, baina jazarpena egiaztatuz gero (% 39,1), edo kopuru-mugak ezartzearen alde (% 12,8). Nabarmenezkoa da, halaber, 2015. urtearen aurreko urteetan galdera horri erantzuten ez zioten pertsonen ehunekoa handiagoa zela azken hamar urteetan baino.

Aldi berean, 2010eko hamarkadan zehar, murrizketarik gabe hartzeko aukerak hazkunde iraunkorra izan zuen, eta 2022an lortu zuen maximo historikoa (% 49,7), Ukrainako gerraren ondoriozko krisi humanitarioak markatutako testuinguruan. Hurrengo urteetan beherakada izan da 2024an (% 30,3) eta 2025ean (% 31,3), eta hori berregokitze gisa interpreta liteke, nazioarteko babesaren aldeko jarreretan eragin handia izan ondoren. Hau da, euskal gizartearen gehiengoak garrantzitsutzat jotzen jarraitzen du egiaztapen-baldintzaren bat edo kudeaketa-mugaren bat sartzea, baldintzarik gabeko irekieraren aldean. Aldi berean, jarrera argi eta garbi murriztaileak —harrera erabat baztertzea— oso gutxi dira oraindik ere, eta Euskadin hondar-mailetan mantentzen dira.

Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen buruzko pertzepzioen azterketan sakonduta, galdetu zen ea erakundeek eta gizarteak erantzun bera eman beharko luketen, pertsonen hainbat jatorriren aurrean. Hamar pertsonatik zortzik (% 77) uste dute erakundeek eta gizartearen erantzunak berbera izan beharko lukeela beti, eskatzailen jatorrizko herrialdea edozein dela ere. Aitzitik, % 12,5ek uste du normala dela hurbilen dauden herrialdeetatik datozen pertsonen elkartasun handiagoa adieraztea, eta % 10,5ek, berriz, ez du jarrerarik adierazi (15. grafikoa).

15. grafikoa. Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen buruzko pertzepzioen bilakaera, jatorriaren arabera. 2023-2025 (%)



14.g. Asilo- eta babes-eskatzaileri dagokienez, zure ustez...

Datu horiek aurreko urteetakoekin alderatuz gero, nazioarteko babes eskatzen duten pertsonen tratu-berdintasuneko jarrerak ehuneko sei puntu jaitsi dira aurten 2024ko datuekin alderatuta (% 83,3), urte horretan izan baitzen serieko baliorik handiena. Gorabehera hori izanda ere, 2023an lortutako babesaren gainetik mantentzen da (% 69,6), eta horrek baieztatzen du euskal gizartearen zati handi batek tratu-berdintasuna babesten duela, jatorria edozein dela ere.

Aitzitik, hurbilen dauden herrialdeetatik datozenekiko elkartasun handiagoa babesten duen jarrerak gutxiengoa izaten jarraitzen du. 2025ean, alternatiba horren babesak ozta-ozta gainditzen du hamar pertsonatik bat; izan ere, aurreko urtearekin alderatuta igoera txiki bat izan du (% 7,9), eta 2023tik ehuneko zortzi puntu baino gehiago jaitsi da (% 16). Zalantzatan dauden pertsonen taldea % 8,7 eta % 14,4 artekoa da (2023) aztertutako aldian. Datuek iradokitzen dutenez, euskal gizarteak babesten du elkartasun- eta babes-premiaren aurrean ez direla hierarkiak lehenetsi behar jatorriaren arabera, baizik eta nazioarteko babes behar dutenei berdintasunezko onarpena eman behar zaiela.

Familia-erreferenterik ez duten atzeritar jatorriko adingabe eta gazteei zuzendutako politikak

Adingabekoak eta familia-erreferenterik gabeko gazteak dira azkenaldian immigrazioari buruzko eztabaida sozial eta politiko gehienak jasan dituzten kolektibo bereziki ahulak (ikus 1. kapitulua). Euskal herritarren iritzien analisiak aukera ematen du identifikatzeko, batetik, zer-nolako enpatia eta babes instituzionala jasotzen duten babesgabetasun-egoeran dauden adingabe atzeritarrek, eta, bestetik, zer-nolako mesfidantza eta kritikak dauden gizartean familiaren babesik ez duten atzeritar jatorriko haur eta gazte horiekiko. Atal honetan funtsezko gaiak jorratzen dira, hala nola haien eskubideen bermea, laneratzeko zailtasunak, segurtasunerako arriskuaren pertzepzioa eta erakundeek haien babesean duten eginkizunaren balorazioa.


Hala, Euskadiko biztanleriaren gehienek zaintza- eta laguntza-jarrera dute familia-erreferente etorkinik ez duten adingabe eta gazteekiko, baina ñabardurak ere badaude. Gaur egun, biztanleriaren % 46,3k uste du pertsona horiei arreta eman behar zaiela, baina autonomia-erkidegoen artean banatzeko aukera emango dien kupo-sistema baten barruan. Bestalde, herritarren % 28,8 etxebizitzak edo tutoretzapeko egoitzak ematearen alde agertu da, lurraldean egoitza bat izatearen alde eginez. Oro har, gizartearen % 75,1 bizitzeko eta garatzeko baldintza egokiak ematearen alde dago (16. grafikoa).

Kontrako alternatiba —jatorrizko herrialdera itzuli beharko lirateke—, berriz, EAEko hamar pertsonatik bik babesten dute (% 20,3). Bestalde, kopuru aldetik oso txikia da babesgabetasun-egoeran dauden edo familia-erreferenterik

ez duten atzerritar jatorriko adingabeak eta gazteak inola ere ez artatzea defendatzen dutenen ehunekoa (% 0,3), eta % 4,2k ez du iritzirik ematen.

Emaitza horiek berresten dutenez, nahiz eta pertsona horien harrerarekin bat ez datorren sektore bat egon, euskal gizartearen gehiengoak jarrera bermatzaileen alde egiten du, arreta eta bizi-baldintza egokiak ematean oinarrituta, bai erabateko harrerako neurrien bidez, bai autonomia-erkidegoen artean partekatuko kudeaketa-formulen bidez.

16. grafikoa. Familia-erreferenterik ez duten atzerritar jatorriko adingabe eta gazteei buruzko pertzepzioen bilakaera. 2019-2025 (%)



15.g. Ziur asko, badakizu batzuetan adingabeak iristen direla atzerritik Euskadira, senide edo pertsona heldu batek lagundu gabe; hau da, tutore edo arduradunik gabe. Zure ustez, zer jarrera izan beharko lukete euskal administrazioek kasu horietan?


2019 eta 2025 bitartean serieak izan duen bilakaera aztertzen badugu, ikusten da gizartearen aldatu egin dela familian erreferenterik ez duten adingabeei eta gazteei buruzko pertzepzioa. Seriearen lehen urteetan (2019 – 2021), argi eta garbi nagusitzen zen kupo-sistema baten bidez artatzeko aukera % 46,9, 2019an), eta tutoretzapeko etxebizitzak edo egoitzak emateko aukerak ere babes handia zuen (% 34,7); beraz, % 81,6k uste zuten euskal gizarteak artatu beharko zituela. Aldi horretan bertan, jatorrizko herrialdera itzularaztea aukera minoritarioa zen argi eta garbi (% 12,5, 2019an).

Hala, euskal gizarteak babesgabetasun-egoeran dauden atzerritar jatorriko haurrei eta familia-erreferenterik gabeko gazte adingabeei arreta eta babesa emateko joera izaten jarraitzen du. Hala ere, azken urteetan, gero eta gehiago

hobesten dira kudeaketa partekatuko formulak eta ardurapeko adingabeen kopurua kupoen bidez mugatzeko ereduak. Aldi berean, egoera murriztaileenak gutxiengoa izaten jarraitzen du azken urteotan.

Euskadin familia-erreferenterik ez duten haur eta gazte atzeritarrekiko jarrerekin jarraituz, pertsona horiek adin-nagusitasuna betetzen dutenean administrazioek zer egin beharko luketen euskal biztanleei galdetzean, berriz ere babes-jarrerak nagusitzen dira. 2025ean, herritarren % 45,3k uste du egokiena dela aholkuak ematea ikasketekin jarraitzeko edo enplegua lortzeko, eta % 37,3k babesten du etxebizitzari, laneratzeari edo erregularizazio administratiboari lotutako laguntza-programa espezifikoak sortzea. Aitzitik, % 14,2ren iritziz, pertsona horiek jatorrizko herrialdera itzultzera behartu beharko lirateke, baldin eta adin-nagusitasuna betetzean ikasten ez badute eta lan egiten ez badute, eta % 1,5ek bakarrik aukeratzen du 18 urte betetzean ez artatzea, eta % 1,7k ez du iritzirik eman (17. grafikoa).

17. grafikoa. Familia-erreferenterik ez duten atzeritar jatorriko adingabe eta gazteekin, adin-nagusitasuna betetzen dutenean, jarraitu beharreko politikei buruzko iritzia bilakaera. 2020-2025 (%)



16.g. Adingabe horiek adin-nagusitasunera iristen direnean, hau da, 18 urte betetzen dituztenean, zer uste duzu egin behar luketela euskal administrazioek?

17. grafikoa 2020-2025 denbora-seriea erakusten du. Bertan, euskal gizarteak azken sei urteetan izandako iritzia erakusten da, Euskadin familia-erreferenterik ez duten atzeritar jatorriko gazteekin erakundeek eta euskal gizarteak egindako ekintzei buruz. Aldi osoan gehien babestu den aukera ikasketekin jarraitzeko edo enplegua aurkitzeko aholkularitza ematea da; izan ere, 2020an % 45,3 izatetik 2022an % 59,2 izatera igaro da, eta maximo historikoa bat dator krisi humanitarioari lotutako ezohiko egoerarekin, eta 2025ean 2023ko antzeko mailetara itzuli da. Bigarren aukera garrantzitsua laguntza-programa


espezifikoa ezartzea da (etxebizitza, enplegua, erregularizazioa), ibilbide aldakorragoarekin: 2020an % 37,0, 2022an % 26,0ko gutxieneko erlatiboa, eta gorakada bat azken urteetan, 2025ean % 37,3ra iritsi arte.

Jarrera murriztaileenak, hala nola ikasten eta lan egiten ez badute jatorrizko herrialdera bidaltzea, maila txikietan mantendu dira, % 11 eta % 14 artean seriearen lehen urteetan, nahiz eta 2024an gorakada esanguratsua izan zuen (% 18,7), eta 2025ean % 14,2 inguruko balioetara itzuli da. 2024ko gorakada puntual hori une horretako testuinguru mediatikoarekin lotuta egon daiteke, eta, lehen atalean ikusi ahal izan denez, kolektibo horretan zentratu da hein handi batean. Bestalde, arretarik jaso beharko ez luketela uste dutenek talde marginala osatzen dute beti (% 0,3 eta % 5 artean).

Jarraian, euskal herritarrek kolektibo horren egoerari buruz duten pertzepzioa aztertu da (18. grafikoa). Hala, gehienek —hamar pertsonatik zortzik— uste dute familia-erreferenterik gabeko adingabe eta gazte atzeritarrek askoz ere arazo gehiago dituztela lan-merkatuan sartzeko (% 81,1), haien eskubideak bermatzeko ahaleginak egin behar direla (% 80) eta euskal gizartean integratzen laguntzeko ahaleginak egin behar direla. Horrek agerian uzten du, beste behin ere, herritarrek aintzat hartzen dituztela pertsona horiek dituzten egiturazko oztopoak.

Erakundeek familia-erreferenterik gabeko adingabeak eta gazteak gehiegi babesten dituztela uste izateari dagokionez, hamar pertsonatik bost baino gehiago (% 51,6) erabat aurka daude, eta % 24,3 bat datoz uste horrekin, eta % 17,7k ez du iritzirik eman. Gazteen eta inoren kargura ez dauden adingabeen etorrera segurtasunik ezarekin eta delinkuentziarekin lotzen duen usteari dagokionez, euskal herritarren iritzia zatikatuta dago: % 37,5ek ez du bat egiten baieztapen horrekin, eta, aldi berean, hiru pertsonatik bat ados dago (% 33,1), eta ia hiru pertsonatik bati berdina zaio (% 29).


18. grafikoa. Familia-erreferenterik ez duten atzerritar jatorriko adingabe eta gazteei buruzko pertzepzioak. 2025 (%)



37.g. Esan, mesedez, zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauen edukiarekin

Uste horien bilakaera aztertuz gero (19. grafikoa), emaitzek erakusten dute euskal gizarteak ikuspegi anibalentea duela familia-erreferenterik ez duten atzerritar jatorriko adingabeekiko eta gazteekiko; izan ere, babes-jarrerak nagusitzen dira, baina pertzepzio minoritario kritikoagoak ere badira.

19. grafikoa. Familia-erreferenterik ez duten atzerritar jatorriko adingabe eta gazteei buruzko pertzepzioen bilakaera. 2022-2025 (adostasunaren %)



37.g

Lehenik eta behin, pertzepzio hau oso zabaldua dago: atzeritar jatorriko adingabeek eta gazteek, lana bilatzeko, gainerako gazteek baino zailtasun gehiagori aurre egiten diete. Eta serie osoan oso ehuneko handiak ditu: 2022an % 72,2 eta 2023an % 82,8 arteko balioak, laneratzean egiturazko zaurgarritasunaren pertzepzio sendoa islatuz.

Gainera, erakundeek haien eskubideak bermatzeko beharrari buruzko adostasun orokorra ikusten da, denbora-lerro osoan maila oso altuak dituenak. Puntuazio txikiak 2023an eta 2024an izan ziren (% 75,9), eta puntuazio altua 2025ean (% 80,0). Horrek berretsi egiten du eskubideen berme instituzionala funtsezko printzipioa dela herritarrentzat.

Gizarteratzeari dagokionez, herritar gehienek iritziz baliabide espezifikoak jarri behar dira gizarteratze hori errazteko. Babesa egonkorra eta handia da: 2022an % 86,6, zertxobait txikiagoa 2023–2024an (% 78,0 eta % 78,3) eta gorakada 2025ean (% 79,4).

Aldiz, atzeritar adingabe eta gazte horien etorrerak herritarren segurtasunean eragin negatiboa izan dezakeelako pertzepzioak beherakada nabarmena izan du: 2022an % 27,8 zegoen ados, 2023an % 59,5era igo zen, eta 2024an (% 49,5) eta 2025ean (% 33,1) berriz ere behera egin du, aurreko egoerara itzuliz. Gorabehera horiek erakusten dute pertzepzio hori oso lotuta dagoela egoera politikoarekin eta eztabaida mediatikoarekin.

Antzeko zerbait gertatzen da pertsona horiek gehiegi babesten direlako pertzepzioarekin. Iritzi horrek bilakaera aldakorra erakutsi du: 2022an, % 21,7 ados zegoen uste horrekin; 2023an, ehunekoa bikoiztu egin zen, % 41,5era iritsiz; 2024an, % 36,5era jaitsi zen; eta, azkenik, 2025ean maila baxuagoan kokatu zen (% 24,3). Beherakada horrek pertzepzio hau indartzen du: euskal herritarrek ez dute uste, epe ertainera, familia-erreferentziarik gabeko atzeritar jatorriko adingabeei erakundeek babes gehiegi ematen dietela.

Eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera


Etorkinen eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeari buruzko usteak eta iritzia funtsezko dimentsioetako bat dira gizartean zer mailatako inklusioa eta tratu-berdintasuna dagoen ebaluatzeko. Immigrazioari buruzko pertzepzio orokorretatik haratago, funtsezkoa da jakitea euskal herritarrek nola baloratzen duten atzeritar jatorriko pertsonen ongizate-sisteman duten parte-hartzea, hala nola osasunean, hezkuntzan, etxebizitzan eta gizarte-laguntzetan.

Euskadin atzeritar jatorriko biztanleekiko pertzepzioei eta jarrerai buruz egindako lehen galdeketatik, eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeari lotutako adierazleak sartu dira, integrazioarako esparru estrategikotzat jotzen baitira.

Aurreko edizioekiko alderaketak erakusten du dimentsio horri bereziki eragiten diotela gertakari historikoek, hala nola krisi ekonomiko eta humanitarioek, diskurtso publiko eta politikoaren aldaketek edo gizarte-politiken aldaketek. Horrek termometro pribilegiatu bihurtzen du, unibertsaltasun-printzipioaren —zerbitzuak berdintasunez eskuratzeko printzipio gisa ulertuta— eta bertako biztanleei lehentasuna ematen dieten arau-ikuspegien arteko tentsioak detektatzeko. Aldi berean, Euskadin egindako inkesta espezifikoek (Ikuspegi, 2025³²) baieztatzen dutenez, euskal gizarteak uste du atzeritar jatorrikoa izatea zerbitzu publikoak lortzea gehien zaildu dezaketen faktoreetako bat dela, beste ezaugarri batzuen oso gainetik, hala nola hezkuntza-mailaren edo egoera ekonomikoaren gainetik. Horrek agerian uzten du jatorriari lotutako desabantaila-pertzepzio sozialek jarraitzen dutela, nahiz eta lege-esparruak sarbide-berdintasuna bermatu.

Bloke honetan, Euskadin migratzaileentzako eskubide-berdintasunarekiko dagoen onarpen-maila aztertzen da, bai eskubide horiek administrazio-egoeraren arabera eskuratzeko lehenesten duten printzipioen babesa ere. Gizarte-eskubideak eta integrazio-prozesuak eskuratzeko eredu unibertsalisten edo baztertzailen aurrean dauden jarrerak ere aztertzen ditu.

20. grafikoa. Eskubide sozialak administrazio-egoeraren arabera eskuratzeari buruzko jarrerak.
2025 (%)



18.g. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere izan beharko lituzkete eskubide horiek, bertakoen baldintza berberetan?

³² Ikuspegi (2025). Euskadiko biztanleek diskriminazioaren inguruan dituzten pertzepzioei eta jarrerei buruzko inkesta. https://ikuspegi.eus/files/publicaciones/208_3.pdf

Datuek (20. grafikoa) erakusten dutenez, euskal herritarrek bereizi egiten dituzte etorkinek eskubide desberdinak izatea, pertsonak administrazio-egoera erregularrean dauden ala ez kontuan hartuta. Oro har, oinarritzko eskubideak eskuratzeari buruzko adostasun orokor bat ikusten da, hala nola osasun-laguntza (% 84,7) eta hezkuntza (% 80,2) pertsona guztientzat, administrazio-egoera edozein dela ere, eskubide unibertsalak baitira. Beste datu garrantzitsu bat da gaur egun atzeritar jatorriko pertsonen zerbitzu horiek eskuratzearen aurka dauden pertsonen kopurua oso txikia dela, eta ia ez dagoela halakorik hezkuntzaren eta osasunaren kasuan (% 1etik beherakoa).


Gizarteratzearekin eta politikarekin lotutako eskubideak direnean, adostasun handia dago, baina eskubide horiek eskuratzeko aukera gehiago lotzen da administrazio-egoerarekin. Adibidez, laguntza juridikoa bertakoen baldintza berberetan eskuratzeari dagokionez, % 69,8k uste du pertsona guztiei bermatu behar zaiela, baina % 22,7k uste du administrazio-egoera erregularizatua duten pertsonen soilik bermatu beharko litzaiekeela. Gizarte-laguntzen kasuan, eskuratzeko berdintasunaren aldeko babesak % 40,2ra jaisten da, eta biztanleriaren ia erdiak (% 49,3) dio administrazio-egoera erregularizatua duten pertsonentzat soilik izan beharko lirakekeela. Egoera administratibo erregularizatua duten pertsonen aldeko joera murriztaile horrek gora egiten jarraitzen du familia berriz elkartzearekin eta babes ofizialeko etxebizitza (BOE) eskuratzeari lotutako eskubideak eskuratzeari dagokionez; izan ere, heren bat inguruk (% 36,8 eta % 35,5, hurrenez hurren) baino ez du egiten etxebizitza eskuratzeko berdintasunaren alde, eta pertsonen erdiek baino gehiagok (% 53,2 eta % 52,5) adierazi dute administrazio-egoera erregularrean daudenetara mugatu behar dela.

Botoa emateko eskubidea –politikan parte hartzeko funtsezko ekintza eta herritarren funtsezko eskubidea– modu unibertsalean edo murrizketarik gabe eskuratzeko babes gutxien jaso duen arloa da: % 24,5ek soilik babesten du Euskadin bizi diren etorkin guztiei zabaltzea, eta % 60,5ek, berriz, administrazio-erregularizazioa dutenei soilik. Eraitza horrek berresten du gizartearen gehiengoarentzat eskubide politikoak eskuratzeko estatus administratiboari lotuta egon beharko litzatekeela.

Lortutako emaitzek agerian uzten dute hierarkizatu egiten direla herritarrek Euskadin funtsezko eskubideak eskuratzeari buruz dituzten jarrerak: eskubide oinarritzkoenak modu unibertsalean eskuratzeari buruzko gizarte-adostasun zabala dago, baina beste eskubide batzuk legezko bizileku-baldintzak betetzearekin lotzen dira.

Bilakaerari dagokionez (21. grafikoa), ikusten da migranteek oinarritzko eskubideak eta eskubide sozialak eskuratzeari buruzko irekiera-joera dagoela, baina maila desberdinetan eskubide motaren arabera.

21. grafikoa. Etorkinek eskubideak berdintasunez eskuratzeko duten jarreraren bilakaera.
2004-2025 (adostasunaren %)



18.g

Lehenik eta behin, zerbitzu unibertsalei lotutako eskubideek adostasun-maila oso handiak eta egonkorak erakusten dituzte euskal herritarren artean. Osasuna gainerako biztanleen baldintza berberetan eskuratzeko % 65,0ren onarpena jaso zuen 2004an, eta maximo historikoa lortu zuen 2022an (% 88,8) —urte atipikoa—, 2025ean % 84,7koa izanik. Hezkuntza eskuratzeko antzeko ereduari jarraitzen dio, eta azken urteetan gizartearen babes nagusia izan du, goranzko joera positiboa izan baitu: 2004an % 55,4, eta 2021ean % 82,8ra iritsi zen, eta 2025ean balio altuetan mantendu zen (% 80,2). Arlo horietan, herritarren pertzepzioak adierazten du denboran zehar gizarte-adostasun iraunkorra dagoela eskuratzeko berdintasunaren inguruan.

Bigarren maila batean, laguntza juridikoa eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eskuratzeko adostasunak babes nabarmena izan du gizartearen.


Laguntza juridikoa eskuratzeari dagokionez, hazkunde jarraitua ikusten da, gertakari historiko garrantzitsuei lotutako gorabehera txikiekin, biztanleriaren erdiaren babesa gainditzen zuten hasierako balio baxuenetatik (% 52,3, 2004an) 2025ean % 69,8ra iritsi arte, eta adierazten da gaur egun Euskadin hamar pertsonatik zazpi bat datozela atzeritar jatorriko pertsonen laguntza juridikoa bertako pertsonen baldintza berberetan eskuratzearekin, haien administrazio-egoera edozein dela ere. Gizarte-laguntzak (DSBE eta GLL, esaterako) eskuratzeko adostasunari dagokionez, bilakaera gorabeheratsuagoa izan da, eta gizartearen babesak gora egiteko joera moderatuagoa izan du, bertako biztanleriaren baldintza berberetan eskuratzeari dagokionez; 2004an % 34,7 izatetik 2025ean % 40,2 izatera igaro da, eta gorakada nabarmenak izan dira 2021-2023an (% 32-37).

Aldi berean, bizilekuarekin eta familia berriz elkartzearekin lotutako eskubideek ibilbide irregularragoa eta gizartearen babes txikiagoa erakusten dute. Babes ofizialeko etxebizitza (BOE) EAEko herritarren baldintza berberetan eskuratzeak % 27,2ko babesa zuen 2004an, baina gorakada nabarmena izan du 2021etik (% 25,5), 2025ean maximo historikoa lortu arte (% 35,5). Antzeko zerbait gertatzen da familia berriz elkartzeko eskubideekin: % 20 inguruan ibili da 2010eko hamarkadaren erdialdera arte, baina nabarmen igo da azken urteetan, eta 2025ean % 36,8koa izan da. Eskubide horiek eskuratzeari dagokionez, gizartearen adostasunaren mailarik altuenak herritarren herena ozta-ozta gainditzen du.

Kasurik bereziena boto-eskubideari buruzkoa da, gorabehera historiko handiena izan baitu, eta aztertutako eskubideen arteko babesik txikiena. 2004an % 23,2tik 2021ean % 11,0ra jaitsi ondoren, azken urteetan eskubide horren aldeko iritziak oso nabarmen egin du gora: 2022an % 28,7 eta 2025ean % 24,5. Duela gutxiko gorakada horrek etorkinen eskubide politikoaren garrantziaren balioa handitzeko aukera erakusten du euskal gizartearen aldetik, nahiz eta oraindik gutxiengoaren babesa izaten jarraitzen duen.

Ondoren, euskal gizartearen iritzia aztertzen da, migratutako pertsonen lan- eta hizkuntza-prestakuntzako prozesu jakin batzuk eskuratzeari buruz, hala nola lanbide-heziketa, gaztelania-eskolak eta euskara-eskolak. Arlo horiek estrategikoak dira gizarteratzeko eta laneratzeko, eta, beraz, horiek aztertzeak aukera ematen du enplegarritasunari eta hizkuntza-gaitasunak eskuratzeari lotutako trebakuntza- eta ikaskuntza-mekanismoen zilegitasun sozialera hurbiltzeko (22. grafikoa).

22. grafikoa. Etorkinentzako prestakuntza eta hizkuntzak doakoak izatearekiko adostasun-maila.
2025 (%)




19.g. Zure iritziz, Euskadin bizi diren etorkinek doan eskuratu beharko lituzkete zerbitzu hauek?

Emaitzek adostasun sozial zabala erakusten dute lan- eta hizkuntza-arloko prestakuntza-prozesuak modu unibertsalean eta doakoan eskuratzearen alde. Gehienek, biztanleen hiru laurdene baino gehiagok, uste dute atzeritar jatorriko pertsonen lanbide-heziketa (% 79,5), gaztelania ikasteko eskolak (% 79,0) eta euskara ikasteko eskolak (% 75,8) eskuratzeko aukera izan behar dutela. Ondoren, hamar pertsonatik bi baino gutxiago badira ere, baliabide horiek administrazio-egoera erregularizatua dutenei soilik mugatzeko aukera dago: % 18,5 lanbide-heziketaren kasuan, % 15,7 gaztelaniaren kasuan eta % 17,5 euskararen kasuan. Posizio murriztaileenak argi eta garbi marjinalak dira; izan ere, biztanleriaren % 0,8 eta % 2,8 inguruk baino ez du uste baliabide horiek ez liratekeela etorkinen eskura egon behar.

Ikusten da gizarte-babesak gora egin duela serie osoan, ebaluatutako baliabidea edozein dela ere (23. grafikoa). 2007an adostasun-mailak % 37 ingurukoak ziren lanbide-heziketan, % 38,3 gaztelaniaren kasuan eta % 48,3 euskararen kasuan, baina 2025ean 30-40 puntu igo dira, eta % 80 inguruko ehunekoak erregistratu dira hiru arloetan (% 79,5 lanbide-heziketan, % 79,0 gaztelania-arloan eta % 75,8 euskara-arloan). Serie historikoan gorabehera batzuk ikusten dira, eta 2012an erregistratutako minimoa nabarmentzen da, non babesa % 24,4ra jaitsi zen lanbide-heziketa doan eskuratzeari dagokionez, % 30,6ra gaztelania ikasteko eskolen kasuan eta % 35,4ra euskara ikasteko eskolen kasuan. Puntu horretatik aurrera, joera goranzkoa izan zen argi eta garbi, eta aurrerapen etengabeak izan dira gaur egunera arte.

23. grafikoa. Etorkinentzako prestakuntza eta hizkuntzak doakoak izatearekiko adostasun-mailaren bilakaera. 2007-2025 (%)




19.g

Eskubideak eskuratzeko lehentasuna

Euskal herritarrentzat gizarte-eskubideak eskuratzearen lehentasuna funtsezkoa da, migrazio-fenomenoaren inguruko diskurtso-guneetako bat delako eta bizikidetzaren bideratzen duten arau-esparruak eta esparru moralak islatzen dituelako: pertsona batzuek uste dute sarbidea berdintasun-printzipio unibertsal baten arabera arautu behar dela; beste batzuek, berriz, sarbide hierarkizatua babesten dute, non bertakoek lehentasuna izan beharko luketen atzeritar jatorriko etorkinen aldean. Gainera, aldagai horren jarraipenak neurri eraginkorra eskaintzen du, migratu gabeko biztanleriak berdintasunaren edo sarbide-lehentasunaren edo -hierarkiaren inguruan duen gizarte-ikuspegiaren sendotasuna ebaluatzeko.

2025ean, hamar pertsonatik ia zazpi (% 69,2) diote pertsona guztiek, bertakoek eta etorkinek, eskubide eta betebeharrak berberak izan behar dituztela, eta horrek adierazten du gehiengoaren babesa dagoela baldintza-berdintasunaren alde. Aitzitik, hamar pertsonatik ia hiruk (% 29,2k) uste du bertakoek lehentasuna edo hierarkia handiagoa izan beharko luketela gizarte-eskubideak eskuratzeko (24. grafikoa).

24. grafikoa. Eskubide sozialak eskuratzeko lehentasunari buruzko jarrearen bilakaera.
2019-2025 (%)




20.g. Pertsona batzuen ustez, "osasun-laguntza, gizarte-laguntzak, babes ofizialeko etxebizitzak eta abar eskuratzeko, lehentasuna izan behar dute bertakoek etorkinen aurrean"; beste batzuen iritziz, berriz, "pertsona guztiak, autoktonoek eta etorkinek, eskubide eta betebeharrak berberak izan behar ditugu". Zer deritzozu?

2019an lehen aldiz egin zenean galdera hori, biztanleriaren herenak baino gehiagok (% 35,8) babesten zuen bertakoek eskubideak eskuratzeko lehentasuna izatea etorkinen aldean, eta hamarretik seik (% 62,2) eskubideak eskuratzeko berdintasuna izatea babesten zuen. Hurrengo urteetan ikusten da baldintza-berdintasuna indartzeko joera argia dagoela (bai eskubideetan, bai betebeharretan), eta 2022an iritsi zen puntu gorenera, hamar pertsonatik zortzik (% 80,7) adierazi baitzuten aukera hori. 2024an bertako biztanleriak lehentasuna izatearen aldeko gorakada txiki bat izan zen arren (% 34,4), 2025ean berdintasuna eta unibertsaltasuna berriro ere sendotu egin dira gehiengoaren aukera gisa, hamar pertsonatik ia zazpiren babesa jaso baitu, eta maila horiek 2023an izandakoetatik oso hurbil daude.

Gizarte hartzailean hautemandako ondorioak

Atal honetan, immigrazioaren alderdiek euskal gizartean izan dezaketen eragina, positiboa nahiz negatiboa, aztertuko dugu. Horretarako, immigrazioak hainbat dimentsiotan izan ditzakeen ondorioez galdetu zaie inkestatutako pertsonei: ongizatean, alderdi ekonomikoetan eta hizkuntza-alderdietan. Ondorioen pertzepzioa funtsezko adierazlea da herritarrek atzeritar jatorriko pertsonen presentzia nola interpretatzen duten ulertzeko: onurak ekartzen dituen, arriskuak sortzen dituen edo bi ikuspegiak uztartzen dituen fenomenotzat hartzen den.

4. irudia. Euskal gizartean dituen eraginak, aztertutako dimentsioak




Iturria: Geuk egina

Ongizatean dituen ondorioak

Immigrazioak euskal gizartean dituen ondorioen pertzepzio orokorra 0tik (oso negatiboak) 10era (oso positiboak) bitarteko eskalan aztertzean, 2025ean lortutako batez bestekoa 6,08 puntukoa da. Zifra horrek balorazio positiboa finkatzen du, eskalaren batez besteko puntuaren gainetik, eta azken urteetan ikusitako joera berresten du (25. grafikoa).

Bilakaerari dagokionez, 2007tik 2014ra bitarteko geldialdiaren ondoren —4,7 inguruko balioak—, 2016tik aurrera gaintitu ziren balio horiek. Izan ere, 2023an serieko puntuaziorik altuena lortu zen (6,30 puntu), eta argi eta garbi eremu positiboan kokatu zen. 2024an 5,68 punturainoko atzerakada erregistratu bazen ere, 2025eko emaitzek beste hobekuntza bat aurreikusten dute, posizioak berreskuratuz eta berriro ere azken urteetako balioetatik hurbil eta 6 puntutik gorako balioetan kokatuz (2021-2023).


25. grafikoa. Immigrazioak euskal gizartean duen eraginaren pertzepzioaren bilakaera. 2007-2025 (batez besteko balioa, 0 oso negatibotik 10 oso positibora)



26.g. Oro har, zure ustez, etorkinak etortzeak ondorio positiboak ala negatiboak ditu euskal gizartearentzat? Eman, mesedez, puntuazio bat 0tik (oso ondorio negatiboak) 10era (oso ondorio positiboak)

Bestalde, Europako biztanleriaren zahartzeari buruzko eztabaida, zehazki Euskadin, atzeritar jatorriko pertsonen eginkizunari buruzko pertzepzioekin lotzen da. Izan ere, uste baten arabera, immigrazioa erantzun bat izan daiteke erronka demografikoei aurre egiteko, eta uste horrek gehiengoaren babesa lortu du. Hala, 2025ean, hamar pertsonatik zazpi baino gehiagoren iritziz (% 73,7), migratutako pertsonen etorrerak erronka demografikoa konpontzen lagundu dezake, eta % 11,5 soilik ez dago ados, % 13 zalantzatan dago eta % 1,8k ez du iritzirik ematen. Eraitza horien arabera, gehienek uste dute atzeritar jatorriko pertsonak etortzea erronka demografikoaren edo biztanleriaren zahartzearen irtenbidea izan daitekeela (26. grafikoa).

26. grafikoa. Immigrazioari buruz Europako biztanleriaren zahartzearen irtenbide gisa duen pertzepzioaren bilakaera. 2010-2025 (%)




22j.g. Esan, mesedez, zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauen edukiarekin. Etorkinak Europara iristeak Europako biztanleriaren zahartzeak eragindako arazoak konpon ditzake

Bilakaeraren ikuspegitik, datuek eraldaketa argia erakusten dute. 2010ean, biztanleriaren % 44,4 ados zegoen baieztapen horrekin, eta desadostasuna % 20,8ra iritsi zen. Progresio irregularreko hamarkada baten ondoren, beherakada nabarmenekin, hala nola 2014an (% 37,2ko adostasuna eta

% 31,1eko desadostasuna), 2016tik aurrera goranzko joera nabari da, eta sendo finkatu da. Adostasuna % 50etik gorakoa izan zen 2013an (% 50,2), eta maila errekorra iritsi zen 2023an. Orduan, lau pertsonatik hiruk (% 76) uste zuten immigrazioak zahartzearen ondorioak arindu ditzakeela, eta % 8,2 baino ez zegoen ados. 2024an atzerakada txiki bat izan zen arren (% 71eko adostasuna eta % 9,8ko desadostasuna), 2025eko emaitzek (% 73,7 eta % 11,5, hurrenez hurren) pertzepzio horren finkapena indartu dute berriro. Hau da, immigrazioa, azken urteotan, euskal gizartearen erronka demografikoaren konponbide posible gisa ikusten du gizartearen gehiengoak.

Aldi berean, lana eta familia bateragarri egitea da Euskadiko gizarte-erronka garrantzitsuenetako bat. Etorkinek kontziliazio hori errazten lagundu dezaketen galderari esker, ikus daiteke herritarrek zenbateraino onartzen duten etorkinen ekarpena zaintza-lanetan, etxeko lanetan edo enplegua eta familia bateragarri egiten dituzten zerbitzuetan (27. grafikoa).

27. grafikoa. Etorkinek lana eta familia bateragarri egiteko egiten duten ekarpenaren pertzepzioa. 2025 (%)




8n.g. Etorkinek euskal gizartean lana eta familia uztartzen laguntzen dute

2025ean, EAEko biztanleen % 70,2k uste du atzeritik etorritako pertsonen lana eta familia bateragarri egiten laguntzen dutela, eta gutxiengo bat (% 7,5), berriz, ez dago ados. Bestalde, % 20,0k zalantzazko jarrera du eta % 2,3k ez du iritzirik ematen. Euskal gizartearen ia erdiak gero eta gehiago uste du etorkinen zeregina eta zaintza-sektorean duten eginkizuna —bereziki, atzeritar jatorriko emakumeak— funtsezko faktorea dela kontziliazioaren erronka konpontzen laguntzeko.

Ekonomian dituen ondorioak

Gizarteak immigrazioaren ondorio ekonomikoei buruz duen pertzepzioaren azterketak pertzepzio positibo eta funtzionaletara jotzen du argi eta garbi, eta migratutako pertsonen etorrera enpleguan edo soldatetan ondorio negatiboekin lotzen duten diskurtsoek, berriz, babes sozial txikia dute.

28. grafikoa. Migratzaileen etorrerarekin lotutako ondorio ekonomikoen pertzepzioa. 2025 (%)

8a.g, 8c.g, 8e.g, 22i.g. Esan, mesedez, zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauen edukiarekin

2025ean, EAEko biztanleriaren gehiengo zabal batek onartzen du etorkinen beharra ekonomiaren sektore jakin batzuetan; izan ere, hamarretik ia zortziren iritzi (% 77,9), atzeritik datozen pertsonen etorrerak zenbait lan-sektore sendotzen ditu, eta % 13,3 ez dago ados, eta % 7,7k zalantzazko jarrera du. Ildo beretik, hamar pertsonatik zazpi (% 73,6) uste dute ekonomia hobeto dabilela bertako biztanleek nahi ez dituzten postuak betetzen direlako. Hamarretik bat (% 10,7) ez dago ados baieztapen horrekin, eta % 15,7k zalantzazko jarrera du. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriak ez dio migratutako biztanleriari langabeziaren gorakada edo soldaten jaitsiera egozten, prozesu horiek sistemikoak eta egiturazkoak direla uste baitu (28. grafikoa).


Zurrunmurrak negatiboak direla dagokionez, berriz, biztanle gehienek ez dute lotzen atzeritar jatorriko pertsonen etorrera eta presentzia langabeziaren gorakadarekin, biztanleriaren % 69,6k ez baitu lotura hori onartzen. Bestalde, gutxiengo bat (% 13) ados dago, eta % 17,3k zalantzazko jarrera du edo ez daki edo ez du erantzuten. Era berean, euskal herritar gehienek ez dute uste etorkinen etorrerak soldatetan eraginik duenik. Hala uste dute inkestan parte hartu duten hamar pertsonatik zazpi. Bestalde, % 14,3k migrazioa eta soldaten jaitsiera lotzen ditu, eta biztanleriaren % 4,8k zalantzak ditu.

Emaitzek nabarmentzen dute beste herrialde batzuetatik migratu duten biztanleek euskal ekonomiari eta lan-merkatuari eusteko elementu beharrezko eta funtzional gisa duten pertzepzioa; immigrazioa langabeziarekin edo soldata-debaluazioarekin lotzen duten ideiak, berriz, gutxiengo txikiak mugatzen dira.

Hala ere, immigrazioaren ikuspegi funtzionalista hori ez da beti konstantea izan. Izan ere, luzetarako analisiak erakusten duen bezala, pertzepzio positiboak

sendotu badira ere, pertzepzio hori ekonomiaren egoeraren eta haren beharren arabera da (29. grafikoa).

29. grafikoa. Immigrazioaren ondorio ekonomikoen pertzepzioaren bilakaera. 2004-2025
(adostasunaren %)



8a.g, 8c.g, 8e.g, 22i.g

Hala, ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko beste herrialde batzuetatik migratu duten pertsonak behar izatearen pertzepzioa izugarri jaitsi zen krisi ekonomikoan eta langabezia-tasak igo zirenean, 2014an % 30,4ra iritsi arte. Ordutik, ikuspegi hori pixkanaka berreskuratzen ari dela ikusten da, hazkunde ekonomiko progresiboarekin batera, eta 2025ean nabarmendu da (% 77,9), ia hasierako maila berberetan baitago.

Era berean, beste herrialde batzuetatik migratu duten pertsonen bertako biztanleriak nahi ez dituen lanpostuak betetzen dituztela dioen ustea 2004an % 63 izatetik 2025ean % 73,6 izatera igo da, eta maximoa 2022an lortu zen (% 77,6). Proporzio horrek ere nabarmen egin zuen behera ekonomia- eta lan-krisian, 2011-2017 aldian. 2014an minimo historikoa izan zen, eta biztanleriaren herenak (% 32,8) baino ez zuen adierazi baieztapen horrekin ados zegoela.

Aitzitik, immigrazioa eta langabezia-tasaren hazkundera zuzenean lotzen dituen usteak indarra galdu du, 2010ean % 60,8ko babes izatetik 2025ean % 13koa izatera igaro baita. Bide beretik, atzeritar jatorriko pertsonen etorrerak eta presentziak langabeziaren gorakadarekin lotura izaten jarraitzen du; izan ere,


adostasuna 2004an % 40koa izatetik 2025ean % 14,3koa izatera igaro da, eta 2022an gutxieneko historikoak % 11 ingurukoak izan ziren.

Beraz, 2004-2025 aldiko bilakaerak agerian uzten du langabeziari eta soldatei buruzko mehatxu-narratibek zentraltasuna galdu dutela, baina ikuspegi utilitaristak eta funtzionalak —immigrazioak ekonomia- eta lan-sistemari eusteko egiten duen ekarpena aitortzen dutenak— sendotu egin direla gehiengoaren babesarekin. Hala ere, nabarmentzekoa da pertzepzio hori oso aldakorra dela eta unean uneko produkzio-ereduaren premiei lotuta dagoela; beraz, espero izatekoa da ziklo ekonomikoa berriro aldatuz gero, biztanleriak bere diskurtsoa gogortzea zentzu horretan, eta baliabide urriengatiko lehiaren pertzepzioan oinarritutako ikuspegi batera igarotzea.

Hizkuntzan eta identitatean dituen ondorioak

Azkenik, atal honetan euskal gizarteari galdetzen zaio beste herrialde batzuetatik migratu duten pertsonen zer-nolako eragina izan dezaketen euskal gizartearentzat garrantzitsuak diren alderdietan, hala nola euskal nazionalismoaren asmoetan, euskal identitatean eta euskararen erabileran eta garapenean. Hala, emaitzek erakusten dutenez, herritar gehienek ez dute ikusten immigrazioa elementu identitario eta kultural horientzat mehatxua denik (30. grafikoa).

30. grafikoa. Immigrazioak euskal kulturaren eta euskararen dituen ondorioei buruzko usteak. 2025 (%)



24.g. Esan, mesedez, zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauen edukiarekin


Oro har, ikusten da euskararen erabilerari eta identitateari buruzko eztabaida erabat bereizita dagoela migrazioari buruzko eztabaidatik. Hau da, biztanle autoktonoek ez dute uste etorkinen etorrerak inolako eraginik izango duenik gai horietan.

Euskararen erabileran duen eraginari dagokionez, biztanleen bi herenek eragin negatiboa baztertzen dute. Zehazki, % 64,8k ez du uste immigrazioak hizkuntzaren erabilera murriztuko duenik gaur egun euskararen erabilera nagusi den EAeko eremuetan; aldiz, % 23k uste du murriztuko duela, eta % 8,3k zalantzazko jarrera du.

Era berean, % 64,3k ez du uste immigrazioak euskararen garapena geldiaraz dezakeenik; % 22,5 ados dago baieztapen horrekin, eta % 8,7k zalantzak ditu. Identitatean dituen ondorioei dagokienez, hamar pertsonatik zazpik (% 72,6) ez dute uste immigrazioak euskal identitatea galtzen laguntzen duenik; % 15,8k uste du posible dela, eta % 8,3k zalantzak ditu. Abertzaletasunaren garapenean izan ditzakeen eraginaren kasuan, % 68,3k ez du uste immigrazioak bere nahiak geldiaraziko dituenik; % 15ek, berriz, uste du bere nahiak geldiaraz ditzakeela, eta % 10 tarteko posizioetan dago. Sektore minoritario baten kezka da migrazio-prozesuan dauden pertsonen etorrerak ondorio negatiboak izan ditzakeela eta horrek euskal identitatearen funtsezko alderdietan ondorioak izan ditzakeela, baina ikuspegi nagusiaren arabera, ez dago ondorio negatibo esanguratsurik. Izan ere, hiru pertsonatik bik ez dute immigrazioa arrisku faktoretzat hartzen euskararentzat, euskal identitatearentzat edo Euskadiko nazionalismoaren asmoentzat.

Jarraipen historikoaren bidez, egungo egoera ez ezik, immigrazioak funtsezko dimentsioetan (euskararen erabilera, euskal identitatea edo euskal nazionalismoaren nahiak) duen eraginari buruz euskal gizarteak duen pertzepzioen bilakaera ere ikus daiteke (31. grafikoa).

31. grafikoa. Immigrazioak euskal identitatean eta euskararen dituen ondorioei buruzko usteen bilakaera. 2004, 2007-2025 (%)



24.g

Euskarari dagokionez, kulturaren eta identitearen arloko zenbait alderdiri buruzko mehatxu-pertzepzioak aldatu egin dira denboran zehar, gehiengoa izatera iritsi gabe. Gaur egun euskararen erabilera nagusi den eremuetan immigrazioak euskararen erabilera murriztuko duen ustea % 16,9koa zen 2004an, maila altuagoak izan zituen 2007an (% 24) eta 2010ean (% 24,8), eta 2014an behera egin ondoren (% 12,2), gora egin zuen berriro azken urteetan, 2025ean % 23ra iritsi arte. Era berean, immigrazioak euskararen garapena geldiaraziko duen usteak babes handiena (% 27,6) izan zuen 2010ean, eta jaitsiera handiena (% 11,6) 2022an. Uste horren alde % 22,5 daude gaur egun; hau da, herritarren laurden batek baino gutxiagok babesten du uste hori.

Euskal identitateari dagokionez, immigrazioak euskal identitatea galtzen lagunduko duela uste dutenen proportzioak ere aldaketak izan ditu urteetan zehar. 2004ko % 18,3tik 2010eko % 21,9ra igo zen, eta, ondoren, pixkanakako jaitsiera izan zuen, 2022an gutxieneko % 7ra iritsiz. Azken urteetan, ordea, gorakada txiki bat ikusten da, 2025ean % 15,8koa izan baita, eta azken

hamarkadan babesa ez da iritsi hamar pertsonatik bira izatera. Euskal nazionalismoaren asmoei eta proiektuari dagokionez, immigrazioak euskal nazionalismoaren helburuak geldiaraz ditzakeen usteak, aldaketaren bat edo beste gorabehera, ez du inoiz babes garrantzitsurik izan. Lehen hamarkadan % 20 inguruan kokatu ondoren (2007an % 22, 2010ean % 21,7), zifra minimora jaitsi zen 2022an, % 5,7ra. Gaur egun, adostasuna % 15ean mantentzen da, galdutakoa zerbait berreskuratuz.

Azken hogeitaz urteetako bilakaerak baieztatzen du immigrazioari lotutako kultura- eta hizkuntza-mehatxuaren pertzepzioak gutxiengoa direla euskal gizartean, eta biztanleriaren bi herenek baino gehiagok baztertzen jarraitzen dute immigrazioa arrisku nabarmena dela euskararen erabilerarentzat, euskal identitatearentzat edo nazionalismoarentzat. Hala ere, 2014. urtearen aurreko balorazioetara jotzeko joera txiki bat ikusten da, orduan mehatxuaren pertzepzioa nabarmen jaitsi baitzen, batez ere euskararen erabilerari dagokionez.

Bizikidetza-ereduak eta kultura-ereduak mantentzea

Gizarte hartzailearen testuinguruan, bizikidetza-ereduak eta kultura-ohiturak onartzea dira immigrazioarekiko jarrerak aztertzeke ardatz nagusietako bat. Bi dimentsio horiek elkartu egiten dira, eta kulturarteko inguruneetan gizarte-harremanak eraikitzeke moduari buruzko begirada osagarria eskaintzen dute.

Alde batetik, bizikidetza-ereduek islatzen dute herritarrek nola ulertzen eta kudeatzen duten aniztasuna, bai eta migratu ondoren Euskadin bizi diren pertsonen integrazio kulturalen proiektatzen dituzten espektatibak ere. Eredu horiek elkarrekin bizitzea bideratzen duten gizarte-esparruak eratzen dituzte; hau da, harremanak izateko eta espazio publikoa partekatzeko moduak. Bestalde, kultura-ereduek jatorri-aniztasunarekin lotutako praktika zehatz batzuei buruzko pertzepzioak jasotzen dituzte, hala nola jatorrizko hizkuntzen erabilera, erlijio-adierazpen edo -praktikak eta eguneroko ohiturak. Eredu kultural horiei buruzko balorazioek eragin zuzena dute eguneroko bizitzan zenbait adierazpen kultural onartzean edo gaitzestean, eta horrek adierazten du gizarteek nola kudeatzen duten aniztasuna asimilazionismoan, kultura-aniztasunean edo kulturartekotasunean arreta handiagoa jar dezaketen bizikidetza-ereduetatik abiatuta (adib., Hellgren eta Zapata-Barrero, 2022)³³.

Erreferentzia-esparru horretan oinarrituta, kapitulua bi ataletan dago banatuta. Lehenik eta behin, euskal gizarteak beste herrialde batzuetatik migratutako pertsonekin dituen harremanei buruz dituen pertzepzioak aztertzen dira, bai eta Euskadin aniztasuna kudeatzeko egokienak iruditzen zaizkien bizikidetza-ereduak ere. Bigarrenik, atzeritar jatorriko biztanleen presentziarekin lotutako eredu kulturalak lantzen dira, arreta berezia jarrita hizkuntzari, identitateari eta lurraldearen eta euskal gizartearen kultura-aniztasunaren balorazioari.


Bizikidetza-ereduak

Herritarrek integrazioaren erantzukizunak nola banatzen dituzten EAera migratu duten biztanleen eta gizarteko gainerako kideen artean adierazle ona da bizikidetza-eredu nagusien berri jakiteko. Talde bakoitzari zer espektatiba esleitzen zaizkion agerian utzi nahi da. Integrazioa ahalegin partekatu gisa ulertzen denean, harreman-eredu simetrikoago baterantz jotzen da, erantzukidetasunerantz. Aitzitik, erantzukizuna batez ere etorkinena denean —dela tokiko ohiturak hartzeko exigentziaren bidez, dela kultura-elementu jakin batzuei uko egitearen bidez—, bizikidetza-eredu asimetrikoa eratzen da, egokitzapena atzeritar jatorriko pertsonen egin behar dutela oinarri hartuta.

³³ Hellgren, Z. eta Zapata-Barrero, R. (2022). Discrimination meets interculturalism in theory, policy and practice. *International Migration*, 60(5), 3–20. <https://doi.org/10.1111/imig.13048>

Jarrera horiek aztertzea funtsezkoa da Euskadiko bizikidetzaren dinamika eta integrazioari buruzko gizarte-eztabaidak bizi dituen tentsioak ulertzeko.

32. grafikoa. Bizikidetzaren ereduaren pertzepzioak. 2025 (%)



22a.g, 22f.g, 22h.g, 22k.g. Esan, mesedez, zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauen edukiarekin

2025ean, ahalegin partekatua ereduak babes handia jaso du Euskadin, % 71,7k uste du atzeritar jatorriko pertsonen zein bertakoek integrazio-prozesuan inplikatu behar dutela, % 18 ez dago ados, eta % 10 tarteko posizioetan dago (32. grafikoa).


Hala ere, beste herrialde batzuetatik migratu duten pertsonen kultura-egokitzapenerako ikuspegi asimetrikoa nabarmentzen da. Hala, inkestatutako hiru pertsonatik ia bik (% 65,3) uste dute beste herrialde batzuetatik migratu duten pertsonen tokiko ohiturak eta tradizioak hartzeko ahalegina egin beharko luketela, eta % 17,3 soilik ez dago ados alternatiba horrekin. Horrekin bat etorriz, % 17,4k uste du bertako biztanleak ere egokitu beharko liratekeela migratutako pertsonen ohituretara; hala ere, alternatiba horretan dagoen desadostasuna oso zabala da (% 64,7).

Banaketa ia ekitatiboa da biztanleen artean, galdetzen zaienean ea beste herrialde batzuetatik migratu duten pertsonen alde batera utzi behar dituzten balioekin gatazkan dauden erlijioaren edo kulturaren alderdiak: % 40,1 ados dago, % 39,1 ez dago ados eta % 18,8k zalantzak ditu.

Euskal gizartearen gehiengo zabal batek uste du bizikidetzarako ahalegina inplikaturako alderdi guztien artean partekatu behar dela, baina datuek erakusten dute proportzio esanguratsu batek nolabaiteko asimilazio kulturalen oinarritutako bizikidetzaren eredu baten alde egiten duela. Ikuspegi horretan, espero da egokitzeko ahalegin nagusia Euskadira migratu duten pertsonen

egitea, ohiturak eta tradizioak bereganatuz edo beren erlijioaren edo kulturaren alderdi batzuk alde batera utziz, baina gainerako euskal gizarteak ez du ahalegin hori egin behar. Joera hori, hurrengo ataletan aztertuko den bezala, nahiko egonkor mantentzen da denboran zehar, eta unean uneko aldaketekiko sentsibilitate txikiagoa erakusten du, testuinguru soziopolitikoak eragin handiagoa duen beste dimentsio batzuekin alderatuta.

33. grafikoa. Bizikidetza-eredu desberdinen onarpenaren bilakaera. 2007-2025 (%)



*2024ra arte, "Erabat onartuak izateko, etorkinek gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren edo erlijioaren alderdiei uko egin behar diete" zen

22a.g, 22f.g, 22h.g, 22k.g

Item horietakogehienak2012anneurtzenhasi zirenetik, ikusten dugu pertzepzioa aldatzen joan dela, joera nabarmenik gabe (33. grafikoa). Egokitzeko ahaleginari dagokionez, ahalegin partekatua aukera oso maila altuetan mantendu da, % 65 eta % 88 artean, integrazio-prozesuko erantzunkidetasunaren ideiarekin bat etorritik. Hala ere, joera hori ez da nagusi izan 2018a baino lehen, garai horretan gizarteak uste baitzuen beste herrialde batzuetatik migratu duten pertsonak direla tokiko ohiturak eta tradizioak hartzen ahaleginu beharko luketenak. Ahalegin partekatua ideiak garrantzi handiagoa hartu du gertakari ezohikoak izandako urteetan, hala nola pandemia eta Ukrainako inbasioa lehertu ondorengo krisi humanitarioa.

Beste alde batetik, kontrako jarrerak ez du inoiz adostasun sozial handirik izan; hau da, bertako biztanleek egokitzeko ahaleginak egitea, EAEra migratu duten beste herrialde batzuetako pertsonen ohitura eta tradizio batzuk ezagutzeko eta

horietara egokitzeko. 2007an erregistratzen hasi zenetik, baieztapen horrekiko adostasun-maila baxuetan eta nahiko egonkor mantendu da. Seriearen zatirik handiengan, ados dauden pertsonen ehunekoa % 30etik beherakoa izan da, 2007an eta 2023an gertatu zen bezala. Hala ere, 2010etik aurrera beherakada nabarmena izan zen, eta 2011n gutxieneko kopurura iritsi zen (% 19,4), eta 2014an errepikatu zen zifra hori. Ordutik, bilakaera irregularra izan da, gorakada txikiekin 2017an (% 28,3) eta, bereziki, 2023an, adostasun-mailaren maximo historikoa neurtu baitzen (% 38,5). Hala ere, igoera hori ez da finkatu: azken bi urteetan, adostasunak behera egin du berriro, eta oso maila apaletan kokatu da, 2025ean % 17,4ra iritsiz.


EAera migratu duten beste herrialde batzuetako pertsonen kultura- edo erlijio-praktikak alde batera utzi behar dituztela dioten ideiarekiko adostasun-mailak –2025ean harrera-gizartearen balioekin gatazkan sartzen direnak, eta lehen gure legediarekin gatazkan zeudenak– gizarte hartzailearen balioetara egokitzean oinarritutako bizikidetza-eredua islatzen du. 2004an, gehiengo erlatibo batek (% 53,3) jarrera horren alde egin zuen, eta % 30,2 ez zegoen ados. Seriearen lehen hamarkadan, beheranzko joera ikusi zen adostasunean, eta 2010ean izan zuen minimoa (% 48,6ko adostasuna eta % 25,5eko desadostasuna). 2011tik aurrera, adostasunak nabarmen egin zuen gora, eta maila altuetan mantendu zen; gailur nabarmenak 2018an (% 79,1) eta 2019an (% 74,3) izan ziren. Hala ere, galderaren formulazioa aldatzean, pertzepzioa nabarmen aldatzen da, ia % 16 jaitsi baita. Hala ere, hamarretik lauk uste dute euskal gizartearen balioekin bateraezinak diren kultura-praktika batzuei uko egin behar zaiela onarpen osoa izateko.

Kultura-ereduak

Kultura-dimentsioan eta integrazioan atzeritar jatorriko pertsonenganako irekieraaren berri ematen duen beste alderdi garrantzitsu bat kultura-aniztasuna aitortzea da, baita hainbat kultura-praktika eta -adierazpen onartzea ere.

Hala, 2025eko datuek erakusten dutenez, gehiengo zabal batek (% 78) uste du onena dela etorkinek zein bertakoek harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea. Hizkuntza-egokitzapenerako espektatiba horrek hizkuntzaren zentraltasuna adierazten du, integrazioarako funtsezko elementu gisa (34. grafikoa).

34. grafikoa. Alderdi kultural eta identitario zehatzen pertzepzioa. 2025 (%)




22c.g, 22g.g, 22b.g, 22e.g. Esan, mesedez, zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauen edukiarekin

Aldi berean, euskal gizartearen gehiengoak aitortzen du aniztasuna ekarpen positiboa dela: % 75,5ek dio immigrazioak aberastu egiten duela Euskadiko bizitza kulturala. Era berean, % 68,6k ez du uste EAera migratu duten beste herrialde batzuetako pertsonen erlijio-praktikek beren bizimodua arriskuan jartzen dutenik, eta gutxiengo bat (% 17,4) da ikuspegi horrekin bat egiten duena.

Kultura-ohiturei buruzko jarrerari dagokionez, euskal gizartearen jarrerak aldakorrak dira. % 42,5ek defendatzen du pertsona guztiek ohitura eta tradizio berberak izan behar dituztela; % 37 ez dago ados, eta % 20k tarteko jarrerak ditu.

Euskal gizartearen zati handi batek, hamar pertsonatik zazpik gutxi gorabehera, jarrera positiboa du kultura- eta hizkuntza-aniztasunarekiko, nahiz eta ohiturak eta tradizioak partekatzeari dagokionez jarrera desberdinak ikusten diren, eta nolabaiteko tentsioa adierazten du kultura-adierazpenaren uniformetasun-eskaeren eta desberdintasuna aitortzearen artean.

35. grafikoa. Alderdi kulturalen eta identitarioen pertzepzioaren bilakaera. 2004, 2007-2025 (adostasunaren %)



22c.g, 22g.g, 22b.g, 22e.g

Datu-seriearen bilakaerak aldaketa esanguratsuak erakusten ditu (35. grafikoa). Horrela, hizkuntzari dagokionez, 2004an adostasuna oso handia zen (% 80) pertsona guztiek harrerako herrialdeko hizkuntza hitz egitearekin, baina krisi ekonomikoaren urteetan nabarmen jaitsi zen, eta % 48 ingurukoa izan zen 2008-2011 aldian. 2012tik aurrera susperraldi progresiboa hasi zen: babesa % 72ra igo zen 2012an eta % 81,9ra 2014an, eta maximora 2023an iritsi zen, hamar pertsonatik bederatzik baino gehiagok (% 90,3) baieztapen hori babesten baitzuten. Azken bi urteetan adostasun-maila jaitsi egin dela ikusten da: 2024ko % 89,2tik 2025eko % 78ra, hau da, ehuneko 12 puntu baino gehiagoko jaitsiera.

Immigrazioak bizitza kulturala aberasten duela adierazten duen esaldiarekiko adostasun-mailak goranzko joera erakusten du azken 15 urteetan, noizbehinkako aldaketak izanik. 2004an, lehen informazio-bilketan, adostasun-maila % 71koa izan zen, baina lehen hamarkadan nabarmen jaitsi zen, eta 2010ean gutxieneko balioetara iritsi zen; orduan, biztanleriaren erdiak (% 45,1) bat egiten zuen ideia horrekin, eta % 45,9 ez zegoen ados. 2011tik aurrera etengabeko susperraldi bat ikusten da, eta 2018tik aurrera jauzi nabarmena izan da: adostasuna 2019an % 65,8 izatetik 2022an % 80,2 izatera igaro zen, eta maximo historikora iritsi zen. Azken hiru urteetan, adostasunaren proportzioa nahiko egonkor mantendu da biztanleriaren hiru laurden inguruko onarpen-mailetan, 2022ko inpaktua

zertxobait doitu ondoren. 2008-2010eko krisi ekonomikoan adierazitako zalantzak alde batera utzita, euskal gizarteak immigrazioari buruzko pertzepzio positiboa finkatu du kultura aberasteko elementu gisa.

Euskadiko kultura-homogeneotasunaren ideari dagokionez, hau da, euskal gizartearentzat hobe dela hura osatzen dugun pertsona guztiok ohitura eta tradizio berberak izatea, 2004. urtean ideia horrekin bat zetozen ehunekoak ia orekatuta zeuden adostasunaren eta desadostasunaren artean (% 43,8ko adostasuna eta % 42,5eko desadostasuna). 2007an gora egin ondoren (% 47 ados), babesa % 40tik behera jaitsi zen hainbat urtetan (2008-2010), eta desadostasuna % 39tik gora zegoen (2011). 2011tik aurrera, goranzko joera ikusten da adostasunean, eta maximora iritsi da 2020an (% 66,3); desadostasuna, berriz, jaitsi egin da (% 25,5). Aldi horretan, bi jarreraren arteko aldea serieko handiena izan zen, eta ohiturak eta tradizioak bateratzearen aldeko jarrera finkatu zen, ikuspegi nagusi gisa. Hala ere, azken urteetan joera hori aldatzen ari da. Adostasuna etengabe jaitsi da 2021etik (% 56,9), 14 puntu baino gehiago jaitsiz, eta 2025ean % 42,5ean kokatu da; desadostasuna, berriz, 10 puntu baino gehiago igo da, 2021ean % 26,8 izatetik gaur egun % 37 izatera. Horrela, bi taldeak antzeko mailetan daude berriz ere, seriearen hasieran bezala. Dena dela, kultura-homogeneotasunarekiko adostasuna da euskal herritarrek gehien babesten duten alternatiba.


Beste jatorri batzuetako pertsonen erlijio-adierazpen eta -praktikei lotutako ustezko mehatxuaren pertzepzioari buruzko denbora-lerroa aztertuz gero, berresten da euskal gizartearen gehiengo argi batek etengabe adierazi duela ez dagoela ados mehatxu-ikuspegi horrekin. Lehen datu-bilketan, 2004an, % 15 ados zeuden arriskuaren edo mehatxuaren pertzepzio horrekin, eta % 72 ez zeuden ados. Hurrengo urteetan, adostasun-mailak gorabeherak izan zituen, eta gorakada puntualak izan zituen, hala nola 2012an (% 28,8) eta 2015ean, non serie historikoaren gizarte-babes handiena lortu zuen (% 30,7). Hala ere, 2017az geroztik beheranzko joera finkatu da, minimo historikoak % 10etik beherakoak izanik (2020: % 9,2 eta 2022: % 4,8). Azken hiru urteetan 11 puntu baino gehiagoko gorakada ikusten da (2022ko % 4,8tik 2025eko % 17,4ra) erlijio-aniztasuna mehatxutzat hartzen duen ikuspegiarekiko adostasunean. Hiru urte horietan, desadostasun-mailak nahiko altuak izan dira (% 67,5 baino gehiago), eta, beraz, uste hori da nagusi.

Etorkinen kultura- eta erlijio-ohiturekiko jarrerak

Multzo honetarako, euskal herritarrei galdetu zaie zenbateraino onartzen dituzten beste jatorri batzuetako pertsonak gure gizartean sartzearekin eta haien kultura- eta erlijio-ohiturei eustearekin lotutako egoerak. Helburua da jakitea desberdintasunaren eguneroko praktika edo adierazpen jakin batzuk zein neurritan onartzen diren modu erosoan, eta horietatik zein izan daitezkeen tentsioak euskal gizartean aniztasuna onartzearen eta espazio komunetan nolabaiteko homogeneotasuna defendatzearen artean.

36. grafikoa aztertuta, argi eta garbi ikusten da euskal gizarteak irekiago ikusten dituela eremu azalekoagoak barne hartzen dituzten praktikak eta egoerak, eta, batez ere, gizarte osoari ekarpena egiten diotenak, eta ez soilik jatorrizko komunitateei. Horrela, datuek jarduera ekonomikoari eta kontsumoari lotutako jardunbideen onarpen orokorra erakusten dute: hamar pertsonatik zortzi inguruk positibotzat jotzen dute atzeritar jatorriko biztanleek janari exotikoko jatetxeak (% 86,3) edo saltoki propioak (% 86,3) irekitzea, eta % 78,3k elikadura-establezimenduak haiek kudeatzearen alde egiten du. Kasu horietan, ia ez dago desadostasunik (% 1 eta % 2,7 artean).

36. grafikoa. Etorkinen kultura- eta erlijio-ohiturekiko jarrerak. 2025 (%)



21.g. Ongi deritzozu, berdin zaizu edo gaizki iruditzen zaizu atzeritar jatorriko pertsonak...?


Espazio publikoaren eta jatorrizko hizkuntzaren erabilerak ere balorazio positiboa jaso du, baina arestian aipatutako alderdiak baino ikuspegi murriztaileagoarekin: % 69,2k ondo ikusten du nazioarteko migrazio-ibilbideak dituzten pertsonek plaza eta espazio publikoak erabiltzea, eta % 64,5i ondo iruditzen zaio atzerritar jatorriko pertsonek beren hizkuntzan hitz egitea.

Kulturaren eta erlijioaren arloan, onarpenak ñabardura gehiago ditu. Erdiak baino gehiago (% 53,8) erlijio-gurtzarako tenplu propioak eraikitzearekin ados badaude ere, % 16,7 aurka dago eta % 26,5i ez zaio axola. Era berean, % 49,3k positibotzat jotzen du beste herrialde batzuetatik migratu duten pertsonek beren jatorrizko herrialdean bezala janztea; % 24,8k iritzi negatiboa du, eta % 21,8i ez zaio axola.

Ikastetxe propioak sortzean ikusten da zatiketa handiena. Biztanleriaren % 40,3k positiboki baloratzen dituen arren, % 35,3 aurka dago —hiru pertsonatik bat baino gehixeago—, eta % 20,3 axolagabe ageri da. Oreka horren ondorioz, hezkuntza da onarpenak gehiengoa lortzen ez duen eta jarrerak argi eta garbi zatituta agertzen diren eremu bakarra, eta agerian uzten du euskal gizartean ez dagoela gai horri buruzko ikuspegi bateraturik.

2008tik 2025era bitartean, herritarren jarreraren luzetarako azterketak erakusten du gizarteak bilakaera positiboa izan duela espazio publikoko aniztasunari buruz duen pertzepzioan. Joera horrek intentsitate-maila desberdinak baditu ere aipatzen den kultura- edo erlijio-eremuaren arabera, datu-multzoak gero eta babes handiagoa ematen dio atzerritar jatorriko pertsonen presentzia aktiboari ageriko eta eguneroko jardueretan (37. grafikoa).

37. grafikoa. Etorkinen kultura- eta erlijio-ohiturei eusteko jarreraren bilakaera. 2008-2025 (% ongi)



21.g

Bilakaera horren adierazpenik esanguratsuenetako bat janari exotikoko jatetxeak irekitzea onartu izana da. Jarduera hori, tradizionalki ondo baloratua, 2008an % 52,5eko babesa izatetik 2025ean % 86,3koa izatera igaro da, eta puntu gorena 2022an izan zen, % 89,3ko adostasunarekin. Hazkunde iraunkor horrek erakusten du gastronomia-aniztasuna gehiago ezagutzen eta estimatzen dela espazio publikoaren elementu integratzaile gisa, eta, aldi berean, herritar guztiei zuzendutako jarduera dela. Aldi berean, migratzaileek saltoki propioak ireki izanak antzeko ibilbidea izan du. 2008an, biztanleriaren % 52,2k adierazi zuen ados zegoela jarduera horrekin, eta zifra hori % 86,3ra igo da 2025ean, 2022an onarpen-maila gorenera iritsi arte (% 87). Datu horiek erakusten dute sendotu egin dela migratutako pertsonen ekintzailetzarekiko aitopren soziala, tokiko ekonomia- eta gizarte-ehuna osatzen duten aldetik. Nabarmendu behar

da aztertutako aldian jarduera horiei emandako babesak ez dela inoiz % 50etik behera jaitsi, eta horrek adierazten du gizartearen onarpen-oinarri egonkorra dagoela, azken hamarkadan gehiengoaren babes bihurtu dena.

Migratzaileek elikadura-negozio propioak ezartzeari emandako gizarte-babesak bilakaera irregularragoa izan du, beste jarduera batzuekin alderatuta. 2014an % 42,7ko babesak izan ondoren, hazkunde iraunkorra ikusten da 2016tik aurrera, eta horrek gizartearen onarpena pixkanaka berreskuratu dela erakusten du, 2025ean % 78,3ra iritsi arte, establezimendu horiek eguneroko ingurunean ikusgarriago eta normalizatuago egotearekin lotuta. Era berean, pertsona migratuen arteko elkarrizketetan hizkuntza propioen erabilerak, 2008an % 42,4tik abiatuta, hazkunde neurritsua izan du, 2025ean % 64,5era iritsi arte. Datu horiek erakusten dute gizarteak pixkanaka onartzen duela, eta hizkuntza-aniztasunari balioa eta babesak ematen diola, kultura-aniztasunaren parte den aldetik (37. grafikoa).

Aurrerapen nabarmenetako bat EAEra migratu duten atzeritar jatorriko pertsonen plazak eta espazio publikoak erabiltzea onartu izana da. 2008an, % 18,8ko babes txikia zuen, eta aztertutako kultura- edo erlijio-kategoria guztien artean kopururik txikiena zen. Hala ere, gizarte-babesak gora egin du pixkanaka: 2020an gehiengo soziala lortu zuen (% 66,5), eta 2025ean % 69,2koa izan da. Aldaketa horrek esan nahi du espazio publikoa modu esanguratsuan aldatu dela, leku partekatu, askotariko eta inklusibo gisa.

Bestalde, migratzaileen kultura-ohiturekin lotutako jarduera batzuek erresistentzia handiagoa sortzen jarraitzen dute iritzi publikoan. Erlijio minoritarioentzako tenpluen eraikuntzari emandako babesak % 30 eta % 40 artekoa izan da urteetan, eta duela gutxi gora egin du, 2025ean % 53,8ko babesak izanik. Gorakada hori gorabehera, EAEko biztanleen ia erdiak zuhur ageri dira oraindik, eta horrek adierazten du oraindik ere arlo delikatuak dela.

Jatorrizko herrialdean bezala janzteko aukerari buruzko ikuspegi partekatua txikia eta aldakorra izan da historikoki. 2010etik 2015era bitartean, babes-mailak % 30 ingurukoak izan ziren, eta kultura-adierazpenaren ageriko modu horrekiko zuhertasunak markatu zuen gizartearen jarrera. 2025ean, adostasuna % 49,3ra iritsi da, eta horrek esan nahi du azken urteetan nabarmen egin duela gora. Hala ere, zifra hori ez da jarrera nagusi gisa finkatzen, eta agerian uzten du praktika horrek espazio publikoan duen zilegitasunaren eta normalizazioaren inguruan iritzi zatitua dagoela.

Are eztabaida handiagoa sortzen du atzeritar jatorriko komunitateek beren ikastetxeak ezartzeko aukerak. Ebaluatutako aldian, ehuneko txiki batek —herriarren laurdenak eta herenak (% 25-35)— ekimen horren aldeko jarrera erakutsi du. Babes-mailarik altuena 2022an izan zen (% 46,2), baina 2025ean jaitsi egin da (% 40,3).

Emaitzek baieztatzen dutenez, euskal gizarteak bereizi egiten ditu, batetik, praktika ekonomiko eta kultural irekiak (jaketxeak, merkataritza, elikadura), oso onartuak, eta, bestetik, kultura autonomoaren hedapenarekin lotutakoak (erlijioa, hezkuntza, ohiturak), eta azken horiek zuhurtziaz hartzen ditu oraindik.

Euskal gizarteak migratutako pertsonen kultura-adierazpenekiko eta eguneroko jardunekiko dituen jarreraren bilakaera batera aztertzean —hala nola jaketxeak irekitzea, beren hizkuntza eta jantziak erabiltzea eta erlijio- eta hezkuntza-zentroak sortzea—, kultura-aniztasuna gero eta gehiago onartzen dela ikusten da. Hala ere, kontuan hartutako jardunbidearen arabera alde nabarmenak ikusten dira eta hala jarraitzen dute. Oro har, 2025eko jarrerak 2008koak baino irekiagoak eta positiboagoak dira, eta azken hamarkadan hazkunde nabarmena izan dute.


Integrazioaren eta identitatearen pertzepzioa

Bizikidetzaren eta kultura-egokitzapenaren aldeko jarrerez gain, garrantzitsua da jakitea Euskadin bizi den atzeritar jatorriko pertsona batek zer baldintza bete behar dituen, euskal gizarteak euskal herritartzat hartzeko. Bertakotzat hartzeko irizpide horiek bide ematen dute jakiteko identitate kolektiboa gizartean nola egituratzen den, zer faktore hartzen diren integratzailetzat eta, aitzitik, zein faktore diren baztertzailagoak.

Euskadira migratu duen atzeritar jatorriko pertsona bat euskal herritartzat hartzeko baldintzei buruzko galderak informazio baliotsua ematen du herritarrek etorkinak bertakotzat hartzeko erabiltzen dituzten gizarte- eta kultura-arloko irizpideei buruz. Faktore baztertzailagoekin lotutako gaiak planteatzen dira, jaiotzarekin lotutakoak, eta beste faktore inklusiboagoak, sustraitzearekin, hizkuntzarekin edo kulturarekin lotutakoak.

38. grafikoan ikus daitekeenez, jaiolekua da pertsona bat euskal herritar gisa definitzen duten faktoreei buruzko adostasun handiena biltzen duen irizpidea. Hala, biztanleriaren % 87,5ek uste du Euskadin jaio izana nahikoa dela euskal herritar gisa onartua izateko; % 9,8 soilik ez dago ados, eta % 2,7k ez du iritzirik ematen. Horrek esan nahi du jaiolekua dela euskal identitatea onartzeko faktore nagusia eta ia eztabaidea.

38. grafikoa. Euskal identitatea eratzeari buruzko usteak. 2025 (%)



38.g. Etorkinei eta haien ondorengoei dagokienez, zure ustez zein dira pertsona bat "euskalduntzat" hartzeko irizpideak?

Bigarren mailan irizpide linguistikoak eta kulturalak agertzen dira. % 55ek uste du euskaraz hitz egiteak pertsona bat euskaldun bihurtzen duela, eta % 38,3 ez dago ados. Era berean, % 48k euskalduntzat hartzen ditu euskal kultura maite dutenak, baina % 44,7k ez du iritzi horrekin bat egiten. Euskaraz hitz egitea da, beraz, identifikaziorako kultura-elementu nagusia, eta, ondoren, kulturarekiko atxikimendu sinbolikoa.


Errotze luzeari lotutako alderdiek ere babes esanguratsua dute, baina txikiagoa proportzioan. Biztanleriaren ia erdiak (% 47,7) dio Euskadin bost urte baino gehiago bizitzea nahikoa dela euskalduntzat hartzeko, eta % 44,8 ez dago ados. Beste faktore batzuk, hala nola lurraldean seme-alabak izatea (% 39,3) eta bikote euskaldun bat izatea (% 37,2), herritarren herenak baino gehiagok identitate-integrazioa errazten duten elementutzat hartzen ditu, nahiz eta, aldi berean, biztanleriaren erdiak baino gehiagok baztertzen dituen (% 54,2 eta % 55,2, hurrenez hurren).

Aitzitik, ohiko errotze-faktoreei dagokienez, ez dira euskal identitatean sartzeko irizpidetzat hartzen. Hamar pertsonatik seik edo zazpik uste dute Euskadin denbora-erreferentziarik gabe bizitzea (% 63), hemen ikastea (% 62), tokiko lagun-kuadrilla bat izatea (% 63), lan egitea (% 66,2), gertatzen denaren berri izatea (% 68,5) edo lurraldean pisu bat izatea (% 71) ez direla baldintza nahikoak euskalduntzat hartzeko.

Azkenik, nabarmentzekoa da biztanleriaren % 6,5ek soilik duela ikuspegi baztertua; horren arabera, EAEra migratu duen pertsona bat “ez da inoiz euskalduna izango eta beti etorkina izango da”. Nahiz eta gutxiengoa izan, jarrera horrek garrantzi sozial handia du, batez ere herritarren ia laurdenak (% 21,5) ez duelako horri buruzko iritzirik ematen.

Oro har, item horiek aukera ematen dute bertako izatearen ereduen arteko tentsioak aztertzeko: alde batetik, alderdi kultural eta linguistikoetan oinarritzen direnak; bestetik, eguneroko bizikidetzan, egonaldi-denbora edo lotura sozialak baloratzen dituzten ikuspegiak. Esparru horretan, 2018., 2024. eta 2025. urteei dagokien luzetarako azterketak agerian uzten ditu bai euskal identitateari lotutako baldintzetan izandako aldaketak, bai denboran jarraitutasuna izan duten zenbait kontzeptioren iraunkortasuna (39. grafikoa).

39. grafikoa. Euskal identitatea eratzeari buruzko usteen bilakaera. 2018, 2024, 2025 (%)




Lehenik eta behin, aukerarik murriztaileena (“inoiz ez, beti izango da etorkina”) pixka bat jaitsi da seriean zehar, 2018ko % 8,8tik 2025eko % 6,5era, eta horrek baieztatzen du gutxiengo batek bakarrik eusten diola identitatearen ikuspegi baztertzaille horri. Aitzitik, irizpide zibiko eta erlazional batzuek aldaketa nabarmenak izan dituzte. Bizileku-baldintza, “hemen bizitzea”, hamar puntu igo da 2018tik: % 19,0tik % 29,2ra. Horrek adierazten du bizilekua gehiago aitortzen dela gizarteratzeko bide legítimo gisa. Aldiz, “hemen lan egitea” aukerak 10 puntu baino gehiagoko garrantzia galdu du 2024. urtearekin alderatuta, eta gertakari historikoek eragiten diote: 2018ko % 31,2tik 2025eko % 24,2ra jaitsi da, 2024an maximoa lortu ondoren (% 34,5). Antzeko zerbait gertatzen da “Euskadin ikasle izatea” aukerarekin: 2024an % 38,3ra igo zen, baina 2025ean % 28,3ra jaitsi zen, eta 2018ko hasierako mailaren (% 21,3) gainetik geratu da. Familia-loturek ere dinamika desberdinak dituzte, eta, oro har, haien eragina jaitsi egin da. Euskal herritartzat hartzeko “seme-alabak Euskadin izatea” egonkor mantentzen da % 39 inguruan (baina behera egin du 2018. urtearekin alderatuta, orduan % 45,7koa baitzen), eta “hemengo pertsona batekin ezkontzea” jaitsi egin da 2018ko % 42,0tik 2025eko % 37,2ra.

Kultura- eta hizkuntza-elementuei dagokienez, denboran zehar etengabe sendotu dela ikusten da. Euskaraz hitz egitea baldintza gisa 11 puntu baino gehiago hazi da 2018 eta 2025 artean (% 43,2tik % 55,0ra), eta gehien baloratutako aukeretako bat da. “Euskal kultura maitatzea” aukerak ere gora egin du, baina neurrian (% 41,2tik % 48,0ra). Azkenik, Euskadin jaiotzea da gizartearen adostasun handiena duen faktorea (% 79,0 2018an; % 87,5 2025ean), azken urtean ia aldaketarik izan gabe.

2018–2025 aldiko aldaketa nabarmenenak euskararen erabilerari, bizilekuari eta beste errotze-faktore batzuei emandako garrantziaren gorakadan daude, hala nola bertan lan egitea edo bertako batekin ezkontzea, inklusio-faktore gisa balio erlatiboa galdu baitute.

Esan bezala, Euskadin jaiotzea da pertsona bateuskal herritartzat hartzeko babes sozial handiena duen irizpidea. Testuinguru horretan, bereziki garrantzitsua da Euskadin jaiotako nazioz gaindiko migrazio-ibilbidea duten pertsonen seme-alabei buruz herritarrek duten pertzepzioa aztertzea, bai eta haur horiek euskal herritar gisa aitortzen diren aztertzea ere. Biztanleriaren gehiengo zabal batek hala uste du, % 88,8 ados dago baieztapen horrekin, % 8,8k ez dago ados eta % 2,3k ez du iritzirik ematen (40. grafikoa).

40. grafikoa. Euskadin jaiotako eta atzerritar jatorriko aita eta/edo ama duten pertsonen euskal identitatearen aitorten sozialaren bilakaera. 2018– 2025 (%)




36.g. Hemen, Euskadin, jaio diren etorkinen seme-alabak euskal herritartzat hartu daitezkeela uste al duzu?

Denboran zehar bildutako datuen behaketak berretsi egiten du Euskadin jaiotako pertsona migratuen seme-alabak euskal herritarrak izatearen aldeko babes egonkorra eta gehiengoarena. 2018tik, erregistroa hasi zenetik, hamar pertsonatik zortzik edo bederatzik, gutxienez, baietz erantzun dute, eta 2022an % 92,3ko gehienekora iritsi zen, eta, ondoren, % 88-89 inguruko mailetan egonkorta dira azken bi urteetan. Aldi berean, desadostasuna proportzio minoritarioetan eta nahiko egonkorretan mantendu da, 2022ko % 4,8 eta 2020ko % 11,8 bitarteko balioekin (40. grafikoa). Horrek berresten du euskal gizartearen zati handi batek adierazten duela Euskadin jaio izana funtsezko faktorea dela integrazioan eta pertenezian, familia-jatorria edozein dela ere.

Euskal herritar gehienek aitortzen dute beste herrialde batzuetatik migratu duten pertsonen seme-alabak, Euskadin jaioak, euskal herritarrak direla. Ondoren, egokia da pertzepzio hori etorkizunera nola proiektatzen den aztertzea. Ildo horretan, hurrengo galdera da ea euskal gizarteak berdin hartuko dituen atzerritar jatorriko aita eta/edo ama duten pertsonak eta EAEko gainerako biztanleak, analisi-faktore gisa gurasoen jatorria eta ibilbidea kontuan hartuta (41. grafikoa). Begirada prospektibo horri esker, euskal gizartearen gaitasun inklusiboarekiko konfiantza-maila ez ezik, familia-jatorriaren arabera aldeak aurretik dauden aldeak eta erreferentzia-taldearen arabera dauden espektatiba desberdinak ere ikus daitezke.

41. grafikoa. Euskadin jaioetako eta atzerritar jatorriko aita eta/edo ama duten pertsonen aitoren sozialari buruzko etorkizunerako proiektzioa. 2025 (%)



39.g. Etorkizunean, hamabost edo hogeitaz urte barru, uste duzu euskal gizarteak gainerako herriarrek bezala hartuko dituela atzerritar jatorriko aita eta/edo ama etorkina duten pertsonak?

2025ean, EAEko herritarren erdian eta bi herenen artekoek uste dute hamabost edo hogeitaz urte barru euskal gizarteak baldintza berberetan aitortuko dituela Euskadin jaio eta atzerritar jatorriko aita eta/edo ama migratzaileak dituzten pertsonak eta gainerako biztanleak. Hala ere, adostasun-maila aldatu egiten da gurasoen jatorriaren arabera. Babes handiena Mendebaldeko Europatik (% 65,7) eta Ekialdeko Europatik (% 63,0) datozen pertsonei ematen zaie; ondoren, jatorri latinoamerikarreko (% 62,2) eta Saharaz hegoaldeko (% 60,3) gurasoak dituztenei. Aldiz, adostasuna zertxobait txikiagoa da asiar jatorriko (% 56,8) eta magrebtar edo iparrafrikar jatorrien (% 55,5) kasuetan.

Nabarmenezkoa da, halaber, ez daki/ez du erantzun aukeren ehuneko esanguratsu bat, % 13 eta % 17 artekoa, eta horrek nolabaiteko ziurgabetasuna adierazten du Euskadin jaioetako eta atzerritar jatorriko gurasoak dituzten pertsonen onarpen sozialari buruzko etorkizuneko espektatibei dagokienez.

Distantzia eta kontaktu soziala

Euskal lurraldean baldintza sozial berezitueta bizi direnen arteko jarrerak eta harremanak aztertzeak —jatorria, estatus juridikoa, arrazializazioa edo eskubideekiko irispidea kontuan hartuta— norbanakoen jarreretatik haratago joatea eskatzen du, bai eta loturak eraikitzen edo mugatzen diren eguneroko elkarreragin-guneei buruzko pertzepzioak kontuan hartzea ere.

Ildo horretan, hainbat ikerketa-ildoren arabera (besteak beste Pettigrew eta Tropp, 2006³⁴), hainbat talderen arteko harremana, are gehiago harremana berdintasun-, lankidetzaren eta erakunde-baldintzetan gertatzen bada, aurreiritziak eta taldeen arteko oztopoak murrizten eta pertsona desberdinen edo talde desberdinen arteko harremanak hobetzen lagun dezakeen tresna bihur daiteke, bizikidetzaren hobetuz eta ondorio positibo ugariarekin gizartean, taldean eta bakarka.

Txostenaren atal honetan, euskaldunek atzeritar jatorriko pertsonetik adierazten duten hurbiltasun edo distantzia sozialaren maila aztertzen da, baita eguneroko harremana errazten edo zailtzen duten baldintzak ere. Elkarrekintzarako funtsezko espazioak aztertzen dira —hala nola auzoa, lan-ingurunea edo harreman pertsonalak—, eta horrek aukera ematen du euskal herritarren pertzepziotik aztertzeko nola eraikitzen edo murrizten diren gizarte-loturak hurbiltasun- eta intimitate-maila desberdinetan, pertsona migratuen presentzia edo absentsia zenbait espaziotan, zenbait inklinazio-bazterketarako dinamika eta ikusezintasun- edo instrumentalizazio-prozesuak.

Bizikidetzaren giroa


Bizikidetzaren giroa, hau da, ingurune askotariko gizarte-harremanei buruzko pertzepzio eta balorazio subjektiboen multzoa, funtsezko adierazlea da EAEko biztanleen eta Euskadira hurbilagoko edo eguneroko lurralde-eremu batean (udalerrria edo auzoa) migratzen duten atzeritar jatorriko pertsonen arteko bizikidetzaren kalitatea ebaluatzeko. Orik 10era bitarteko zenbakizko eskala baten bidez operazionalizatzen da; zehazki, 0 balioak oso klima negatiboa edo gatazkatsua adierazten du, eta 10ak, berriz, oso klima positiboa eta harmonikoa. Giro positibo baten pertzepzioak jarrera aldekoagoak bultzatzeaz gain, aurreiritziak murriztu eta jarrera kooperatiboak eta inklusiboak sustatzen

³⁴ Pettigrew, T. F. eta Tropp, L. R. (2006). A meta-analytic test of intergroup contact theory. *Journal of Personality and Social Psychology*, 90 (5), 751–783. <https://doi.org/10.1037/0022-3514.90.5.751>

ditu; aldiz, giro tentsiotsu edo gatazkatsu batek taldeen arteko distantzia soziala eta segregazio sinbolikoa indartu ditzake (Torres Pérez eta Gómez Crespo³⁵).

2025ean, Euskadiko bizikidetza giroaren batez besteko balorazioa 10etik 6,44 puntukoa da, eta horrek azken zortzi urteetan hautemandako goranzko joera sendotzen du, 6,0 eta 6,77 puntu arteko batez besteko balioekin. Gainera, ikus daiteke bizikidetza giroa positiboagoa dela aurreko urtean baino (6,05 2024an) (42. grafikoa).

42. grafikoa. Elkarbizitza-giroa eta kulturen arteko harremanak tokiko inguruneanren bilakaera, 2014-2025 (batezbestekoa 0tik, oso txarra, 10era, bikaina)




9.g. 7.- 0tik 10era bitarteko eskala batean (0 oso txarra, eta 10, bikaina), zenbat puntu emango zenizkioke zure udalerrian edo auzoan bertakoen eta atzeritarren artean dagoen bizikidetza- eta harreman-giroari?

- 2022: immigrazioarekiko irekiera handiago horrek puntu gorena izan zuen Errusiaren inbasioaren ondoren Euskadin babesa eta asiloa bilatzen zuten ukrainar biztanleekiko elkartasunean. Berriz ere, euskal gizartearen erantzuna Ukrainako biztanleekiko elkartasun handiagoa erakustea izan zen, atzeritar jatorriko pertsona ororengana hedatu baitzen;
- 2023-2025: jarrerak eta posizioak doitzeko aldia, immigrazioarekiko irekier-maila. Ezohiko ekitaldiak igaro ondoren, euskal gizartea osasun- eta asilo-krisiaren aurreko egoerara itzuli da.

Nolanahi ere, euskal gizarteak atzerriko immigrazioarekiko duen jarrerak moderatua izaten jarraitzen du, eskuinaren eta eskuin-muturraren narratiba eta diskurtsoetan gero eta gehiago agertzen diren estremismoetatik eta polarizaziotik urrun; izan ere, azken horiek etorkinak eta gure komunitateetan bizi direnak iristearen aurkako jarrera argia erakusten baitute. Egia da euskal gizarteak oraindik ere baduela hobetzeko tarte atzerriko immigrazioa onartzeari dagokionez, baina atzeritar jatorriko pertsonen etorreraren aurrean batez ere jarrera eta portaera inklusiboak eta irekiak mantentzen ditu.

56. grafikoa. Irekiera Indizearen bilakaera 2007-2025, batez besteko puntuazioa 0tik 100era



Iturria: Geuk egina

Hala ere, horrexegatik diogu atzerriko nazionalitatea edo jatorria duen kolektiboarekiko euskal gizarteak duen jarrera oso baldintzatuta dagoela, agenda politikoaren eta etorkizunak ekar ditzakeenaren aurreko “aldartearen” ondorioz (ikus 1. kapitulua): gizarte-, politika- eta ekonomia-alorreko zalantzak ugaltzen direnean, Irekiera Indizearen balioak behera egiten du, beldurra eta mesfidantza ugaltzen egin delako adierazgarri; etorkizuna argi eta baikor agertzen denean, aldiz, indizeak gora egiten du, eta gizarte-giro hobea, irekiagoa eta lasaiagoa dela adierazten du.

Gaur egun, euskal gizarteak adierazle kontraesankorrak jasotzen ditu gure inguruetik. Gertukoek eta bertakoek orainari eta etorkizunari begira nolabaiteko baikortasunera gonbidatzen gaituztela badirudi ere (BPGaren hazkunde-perspektiben datu positiboak, kontrolpean dagoen KPIaren zifrak, zenbaki absolutuetan hazteko joera duen lan-merkatua, enplegu tekniko betetik hurbil dauden langabezia-tasak, egonkortasun politiko autonomikoa, etab.), adierazle globalenak ez dute baikortasunera gonbidatzen, ezta gutxiago ere. Aitzitik, munduan gero eta handiagoa den polarizazio politiko eta ideologikora eramaten gaituzte: AEB eta Espainia; Palestinako herriaren genozidioa; Ukrainako gerra; Ekialdeko Europan gero eta tentsio geopolitiko handiagoa; merkataritza-protektzionismo giroa; Trumpen jardura-ildoaren ziurgabetasuna; Europako muga-zergen hazkundera; eskuin-muturreko hazkundera eta hauteskunde-ikuspegiaren igoera, etab.

Narratiba eta diskurtso xenofobo eta diskriminatzaileak oso hedatuta daude Europako (eta Estatu Batuetako) eskuin-muturreko eta eskuineko alderdien literatura eta propaganda politiko eta elektoralean. Orain dela gutxi arte alderdi horiek “ordenazkotzat eta seriotzat” har zitezkeen. Narratiba horien kutsadura agerikoa dirudi ideologia moderatuko erakundeetan.

Bitxienean da diskurtso horiek babesten dituzten argudioek eta arrazoiek ez dutela datu edo adierazle objektiboetan oinarritzen den ebidentziarik: alderdi horien narratibak hitzez hitz jarraituz gero, hondamendi kolektiboraino garamatzatela ikusiko genuke, eta immigrazioaren aurkako jarrera erradikalenak zenbait kasta sozialen (gizonak, “zuriak”, kaukasoarrak) epe laburreko onura baino ez dutela bilatzen, gizartearen zati handienaren kaltetan. Ez dute gizarte osoaren ongia bilatzen, diskurtso arrazista eta xenofoboak baliatzen dituenarena baizik.

Badirudi euskal gizarteak, oraingoz, ez diela jaramonik egiten sirena kantua interesatu horiei, baina erne egon behar dugu gure ingurune hurbilean zein ingurune globalenean gertatzen ari diren joeren aurrean, kezkarriak baitira.

Aurreko urteetako txostenean ere aipatu genuen atzeritar jatorriko etorkinekiko jarrera oso fenomeno konplexua dela, eta bertan elkarri eragiten diotela, aipatu ditugun testuinguru-aldagaiez gain, honako hauek: norberaren nortasun-ezaugarriak eta bizitza-esperientziak, aldagai soziodemografiko

eta psikosozialak, pertsonaren ingurune pertsonal eta sozial hurbila, aldagai ekonomiko eta ideologikoak eta abar.

Gure azterketek eta datuek ildo horri lotutako ebidentziak eskaintzen dizkigute, eta kontuan izan behar dugu gure analisietan erabiltzen ditugun aldagai soziodemografikoak, identitarioak, sozioekonomikoak, psikosozialak eta harremanetakoak (guztira, hogeitaz aldagai inguru, urtearen arabera) gure Irekiera Indizearen aldakortasunaren (bariantza) zati txiki bat bakarrik azaltzeko gai direla. Zehazki, 2025. urte honetan, AID analisian⁴⁴ eta haren segmentazio-zuhaitzean aurrerago ikusiko dugun bezala, aldakortasun osoaren % 37,56 baino ezin dute azaldu, hau da, euskal gizarte osoan Irekiera Indizearen balioaren aldean multzoa. 2025. urte honetan, salbuespen gisa, azaldutako bariantza osoaren % 30eko atalasea gainditu dugu. Aurreko urteetan zenbateko horren inguruan ibili gara, baina ez dugu inoiz gainditu.

Irekiera Indizearen datuek azken urteotan izan duten joera, gure ustez, euskal gizarteak immigrazioaren aurrean duen jarrera sendotzearen isla da: oraingoz eutsi egiten du, baina jarrerak (okerrera) aldatzea ez da erraza, behin joera hasten denean geldiaraztea ez da erraza.

Gizarte gisa gure ingurune hurbilean bizitzen ari garen prozesuei ematen diegun erantzunak berebiziko garrantzia izango du euskal gizartearen eguneroko eraikuntzan: ezin dugu ezikusiarena egin; XXI. mendeak ekarri digun kultura-aniztasun gero eta handiagoaren kudeaketaren erronkari heldu behar diogu, euskal gizarte osoaren onurarako ikuspegiarekin. Lasaitasunez, baina ausardiaz; patxadaz, baina zalantzarik gabe; zuzenbide-estatuan, tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezan oinarritutako bizikidetzaren mezu garbia helaraziz. Horrela bakarrik egin ahal izango dugu aurrera gizarte kohesionatuago, berdinezaleago eta bidezkoago baterantz.

2025eko Barometroan bildu ditugun datuetara bueltatuz, Irekiera Indizearen balioa galdeketa erantzuten dioten pertsonen hamar arlotan eskuratzen dituzten puntuazioak gehituta lortzen dugu gure Irekiera Indizea, aurreko urteetan bezala. Hauexek dira hamar arlo horiek: biztanleria immigratzailearen BOLUMENAREN pertzepzioa; atzerriko immigrazioa ARAZOTZAT hartzea; EAEko EKONOMIAN duen eraginari buruzko iritzia; EAEko GIZARTEAN duen eraginari buruzko iritzia; BIZIKIDETZA-EREDUEI buruzko pertzepzioa; ESTEREOTIPOEK irautea; ESKUBIDEAK eta zerbitzuak baliatzeko aukerari buruzko jarrera; HARREMANETARAKO EREMUEI buruzko iritzia; IMMIGRAZIO-POLITIKARI buruzko ikuspegia; eta atzerriko immigrazioak gure gizartean dituen ERAGIN GLOBALEI buruzko pertzepzioa.

⁴⁴ Automatic Interaction Detector.

EAEko gizarteak arlo horietan izan duen eta duen jokabidearen bilakaera ez da uniformea izan urte hauetan (57. grafikoa). Horrenbestez, puntu hauek azpimarra ditzakegu.

Immigrazioa arazotzat hartzeari buruz, gizarteak, oro har, ez du “arazotzat” hartzen; alegia, arazo izatearen kutsua kendu dio. Beste iturri batzuek beste testuinguru batzuetan (Espainiako Estatua) immigrazioa herritarrentzako arazotzat hartzen dela nabarmendu badute ere, euskal gizarteak ez du iritzi hori. Ez du inoiz arazotzat hartu, ezta orain ere (oro har, 9 puntutik gorako puntuazioa dauka indize partzialean): soilik % 9,7k aipatzen du immigrazioa Euskadiko hiru arazo garrantzitsuenetakoa bat dela, eta soilik % 2,7ri iruditzen zaio arazo pertsonala dela.


Arazo larriagoak ditugu oraindik ere (ekonomia, osasun-sistema, herritarren segurtasuna...), eta immigrazioa ez dago horien artean, nahiz eta diskurtso batzuek atzerriko immigrazioa arazo bihurtzeko ahalegina egin

Bestalde, oro har, zenbait dimentsio edo arlotan euskal gizartea hobetzen joan da atzeritar jatorriko pertsonetako posizio edo jarrerari dagokionez, eta 2025ean jarrera ireki eta inklusiboei erantzuten dieten puntuazio handiak lortu dira honako gai hauei dagokienez:

- harreman-espazioak (7,98 puntu 2025ean): irekiagoak dira euskal gizartearen jarrerak honako gai hauei dagokienez: etorkinekin lan egiteko, ikasteko edo bizitzeko espazioak partekatzea; adiskidetasun- zein bikote-harremanak edo lan-mendekotasuna izatea; etorkinen produktuak, elikadura-produktuak eta jatetxe-arloko produktuak saltzen dituzten establezimenduak irekitzea onartzea; espazio komun horren hizkuntza-, janzkera- eta erabilera-aniztasuna espazio publikoan partekatzea onartzea; etorkinen erlijioarentzako tenpluak eta ikastetxe pribatuak eraikitzea onartzea;
- eskubideak eta zerbitzuak eskuratzea (7,74 puntu 2025ean): euskal gizarteak ere hobetu egin ditu azken urteotan hainbat gairen inguruko jarrerak, hala nola hezkuntza, osasuna, gizarte-laguntzak, babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzea, familia berriz elkartzea, botoa eta laguntza juridikoa, baina baita Lanbide Heziketako ikastaroak eta gaztelaniazko eta euskarazko eskolak ere;
- ekonomian izan ditzakeen ondorioak (7,04 puntu 2025ean): euskal gizarteak, immigranteen etorreraren aurrean, ekonomian izan zezakeen balizko ondorio kaltegarriari buruzko hasierako errezeloak desagertuz joan dira, eta horrek agerian uzten du hainbat gaitan posizioek hobera egin dutela, hala nola langabezia, soldatetan, gure ekonomiaren sektore jakin batzuen premietan, okupazio zaileko lan-nitxoei erantzutean edo bertako biztanleen lan-merkatuak sarbideari eragitean izan ditzakeen eraginaren pertzepzioan;

- immigrazio-politika (6,66 puntu 2025ean): dimentsio horrek ere hobera egin duela ikus dezakegu, batez ere 2008-2015 aldiko krisi ekonomikoaren amaieratik aurrera, euskal gizartearengandik jarrera irekiagoa, enpatikoagoa eta inklusiboagoa lortzeko. Honako alderdi hauei buruz ari gara: delituen (kanporatzea) aurreko jarrera, sarrera-politika, egoitza-baimenik ez duten pertsonen auzia, asiloa eta babesa eskatzen duten pertsonen auzia, familia-laguntzarik gabeko adingabe atzerritarren babesa eta adin-nagusitasuna betetzen dutenean egiten diren jarduketak;
- immigrazioak euskal gizartean dituen ondorio globalak (6,31 puntu 2025ean): dimentsio honetan lortutako puntuazioak euskal gizartearen artean erreparatu handiagoa erakusten badu ere, aztertutako aldian hobekuntza txiki bat ikus daiteke, bereziki honako gai hauei dagokionez: immigrazioak euskal demografian duen eragin positiboa edo negatiboa; bizikidetza eta elkarrekiko harremana; immigrazioak euskal demografian duen eragin positiboa; ordezkapen-mehatxuaren pertzepzioa; osasun-sisteman izan ditzakeen ondorioak; eta euskal gizartean familia eta lana uztartzea.

57. grafikoa. Puntuazioen bilakaera 10 arloetan, batez besteko puntuazioa, 2008-2025



Iturria: Geuk egina

Beste dimentsio edo arlo batzuetan, ordea, ez da euskal gizartearen jarrera hobetu gorago aipatutako dimentsioetan. Aitzitik, gorabehera batzuekin bada ere, nahiko jarrera egonkorra dute, baten bat jarrera nahiko irekietan, baina beste batzuk jarrera itxi samarretan edo immigrazioa ukatuz:

- euskal gizartean kultura-, hizkuntza-, erlijio- edo identitate-gaietan dituen ondorioak (6,63 puntu 2025ean). Dimentsio horretan, euskal gizarteak urte batzuk lehenagoko zalantza berberekin jarraitzen du, nahiz eta puntuazioa jarrera nahiko ireki eta inklusiboetan mantendu; hala ere, ez dago aurrerapen handirik gai horri dagokionez;
- bolumenaren pertzepzioa (4,78 puntu 2025ean): gai horri dagokionez, euskal gizarteak gure auzo eta udalerrietan bizi diren atzeritar jatorriko pertsonen kopuruaren hautematea desitxuratua eta neurriz gaidikoa izaten jarraitzen du, eta ez du onartzen haien kopurua gure testuingururako egokia denik;
- bizikidetzaz-ereduak (4,26 puntu 2025ean): aurreko dimentsioan bezala, euskal gizarteak ez du erakusten kulturen arteko jarreretikiko bizikidetzaz-ereduaren posizioa hobetzeko sintomarik. Euskal gizarteak oraindik ere uste du etorkinen eta bertakoen arteko ahalegin partekatua beharrezkoa dela bizikidetzaz ezin hobe lortzeko; izan ere, euskal gizarteak uste du ahalegin horrek handiagoa izan beharko lukeela etorkinen artean, euskal gizartearen balioekin talka egiten duten erlijio edo kulturako alderdiei uko eginez, bertako ohitura eta tradizioetara egokituz eta bertako hizkuntzak (euskara eta gaztelania) bereganatuz, komunitate batek ohitura, tradizio eta hizkuntza horiek partekatu behar dituelako.

Azkenik, euskal gizarteak bere posizioetan eta pertzepzioetan gorabeherak dituen dimentsio bat nabarmendu nahi dugu, gaur egun anibalentzian kokatzen dena; 2025ean 5,10 puntu jaso zituen, hortaz, puntuazio partziala. Atzeritar jatorriko pertsonetikiko estereotipoei buruzko dimentsioa da. Dimentsio horren esparruan, eta etorkinekiko estereotipo negatibo faltsuei aurre egiten ahalegintzen diren arren, ez da funtsezko aurrerapenik hautematen euskal gizartearen jarreran.

Aurreko txostenetan egin izan dugun bezala, pertsona-talde batzuek eta besteek atzerriko immigrazioarekiko dituzten iritzi, pertzepzio, jokabide eta jarreretan egon daitezkeen aldeak aztertu ditugu. Aldagai biko analisietan hogeit aldagaiekin egin dugu lan, soziodemografiari lotutakoak (sexua, adina, bizitokia eta ikasketak), ideologiari eta identitateari lotutako aldagaiak (erlijioa, euskara, identitateari lotutako sentimendua, ideologia eta abertzaletasun-maila), aldagai sozioekonomikoak (diru-sarrerak, norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasuna, jarduera ekonomikoa eta estatua), eta, azkenik, harremanekin eta ezaugarri psikosozialekin lotutako aldagaiak (baikortasun-maila, etorkizunari begirako aurreikuspenak, auzo edo udalerriko aniztasuna, atzeritarrekiko

harremana eremu pribatuan, eta haiekiko hartu-emanaren eremu publikoan eta aisialdian).

Aldagai horien artean adierazgarriak eta bereizleak direnak hautemateko, aldagai biko⁴⁵ analisia egin dugu, aurreko urteetako ildoari jarraituz. Alde biko analisia, mugatua izanagatik ere, ezinbestekoa da, eta aldagai anitzeko beste edozein analisisaren aurretik egin beharrekoa. Mugatua da aldagai soziodemografiko independente batek ezkutatu dezakeelako elkarren artean elkarrengatik duten beste aldagai batzuen efektua edo eragina. Esate baterako, elkarri oso lotutako aldagaiak izaten dira batzuetan, eta aldagai biko analisi batean zaila da horietako bakoitzak duen eragina bereiztea; aldiz, aldagai anitzeko analisiak bakoitza bere lekuan jartzen du. Immigrazioari buruzko jarrerekin zerikusia duten gaiak aztertzen ditugunean, maiz nahasi egiten dira aldagai hauek: “adina” (hezkuntza-mailari, euskaraz hitz egiteari edo ez egiteari, lanbideari eta abarri lotua), “hezkuntza-maila” (adinari, estatusari, diru-sarrerari eta abarri lotua), “lanbidea” (estatusari, hezkuntza-mailari, diru-sarrerari eta abarri lotua) eta “estatusa” (hezkuntza-mailari, diru-sarrerari eta abarri lotua). Horregatik, bi aldagai horiek bereiz aztertzen baditugu, baliagarri izango dira taldeak bereizteko (esaterako, gazteak jarrera irekiekin lotzen dira, eta adinekoak jarrera itxiagoekin; edo esaten da heziketa gutxien duten pertsonak ez direla heziketa gehien dutenak bezain toleranteak), baina, elkarrekin aztertzen baditugu, gerta daiteke baten baino gehiagoren eragina ez nabaritzea. Eta horrelaxe gertatzen da beste aldagai hauekin ere: ideologia politikoarekin, euskal identitatearen edota espainiar identitatearen sentimendu subjektiboarekin, euskal abertzaletasun-mailarekin edo nazionalista espainiarraren sentimendu-mailarekin eta abarrekin.

2025eko Barometroan aintzat hartu ditugun gurutzatze-aldagaien azterketak ezustekoren bat ekarri digu, hainbat aldagaik ez dutelako diskriminatzen, hau da, ez dute estatistikoki desberdintasun esanguratsurik kategoriatan edo erantzun-modalitateen artean. Sexu-aldagaiaren ohiko kasuan, adierazgarria izaten ez bada ere (esangura: 0.726), honako hauek gehitu behar zaizkio: adina (esan. 0.159), habitata (esan. 0.723), bizitoki-eremua (esan. 0.402), euskararen ezagutza (esan. 0.122) eta atzeritar jatorriko pertsonetako harremana eremu pribatuan (esan. 0.308).

Gurutzaketaren gainerako aldagaiak estatistikoki diskriminatzaileak dira eta portaera-desberdintasun esanguratsuak dituzte; hots, EAEko biztanleen artean talde irekiagoak eta atzeritar jatorriko pertsonen etorrerari uko egiten dioten taldeak daude: Irekiera Indizean puntuazio nabarmen altuagoak lortzen dituzten pertsona-taldeak daude (euskal herritar irekien eta inklusiboagoen taldeak) eta puntuazio nabarmen baxuagoak dituzten beste talde batzuk (euskal herritarren

⁴⁵ Mendeko aldagai bat eta aldagai independente bat hartu behar dira, faktore baten ANOVA analisia aplikatuz.

talde uzkurragoak eta atzeritar jatorriko immigrazioarekiko inklusibotasun txikiagoa erakusten dutenak):

- immigrazioarekin nabarmen irekiagoak dira goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (68,21 puntu) eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (65,58 puntu), lehen mailako ikasketak izatera iristen ez diren pertsonak baino (61,91 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen irekiagoak dira beste erlijio batzuetako pertsonak, pertsona agnostikoak, ateoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (69,42 puntu), katolikoak baino, izan horiek praktikanteak (63,96 puntu) edo ez (62,12 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen irekiagoak dira euskaldun soilik edo espainiar baino gehiago euskaldun sentitzen direnak (68,29 puntu) eta espainiar bezain euskaldun sentitzen direnak (63,16 puntu), espainiar soilik edo euskaldun baino gehiago espainiar sentitzen direla esan dutenak baino (56,63 puntu);
- Immigrazioarekin nabarmen irekiagoak dira beren burua euskal nazionalistatzat dutenak (69,91 puntu), beren burua euskal nazionalista moderatutzat dutenak (68,29 puntu, beren burua espainiar nazionalistatzat jotzen dutenak baino (59,66 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen irekiagoak dira ezkerreko ideologia duten pertsonak (70,38 puntu) edo zentro ezkerrekoak (69,48 puntu), eskuinekoak (59,23 puntu) edo zentrokoak baino (60,05 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen irekiagoak dira etxean hilean 3.500 euro baino gehiagoko diru-sarrera garbiak dituzten pertsonak (70,14 puntu) eta 2.501 eta 3.500 euro bitarteko diru-sarrerak dituztenak (71,00 puntu), 1.300 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenak baino (59,76 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen irekiagoak dira beren egungo egoera ekonomikoarekin gustura dauden pertsonak (68,72 puntu), gustura ez daudenak baino (61,79 puntu) edo horri buruz iritzi garbirik ez dutenak baino (63,32 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen irekiagoak dira ikasten dauden pertsonak (68,17 puntu) eta lanean ari direnak (67,36 puntu), etxeko lanetan aritzen direnak baino (60,75 puntu).

3. taula. Immigrazioarekiko Irekiera Indizearekin (2025) lotutako aldagaiak⁴⁶

IREKIERA INDIZE TXIKIENA			IREKIERA INDIZE HANDIENA		
DUTEN PERTSONEN PROFILA			DUTEN PERTSONEN PROFILA		
	Aldagaia	Sig.			
Lehen mailakoak	Ikasketak	.000	Bigarren mailakoak eta unibertsitatekoak		
Katoliko praktikanteak eta ez-praktikanteak	Erlijioa	.000	Agnostikak, ateoak eta beste erlijio batzuk		
Espainiar nazionalistak	Nazionalismoa	.000	Euskal abertzaleak eta ez-abertzaleak		
Sentimendu nagusia: espainiarra	Identitate-sentimendua	.000	Sentimendu nagusia: euskal-espainiarra eta euskalduna		
Eskuina edo zentroa	Ideologia	.000	Ezkerra eta zentro-ekzkerra		
Hilean 1.300 €-ra arte	Diru-sarrerak	.000	Hilean 2.500 € baino gehiago		
Beren egoera ekonomikoarekin gustura ez daudenak, edo egoera horrekiko axolagabe	Egoera ekonomikoa	.000	Beren egoera ekonomikoarekin gustura daudenak		
Etxeko lanetan aritzen diren pertsonak	Okupazioa	.024	Langileak eta ikasleak		
Estatus ertaina eta baxua	Estatua	.001	Estatus altua		
Ezkorrak	Baikortasuna	.000	Baikorrak		
Aurreikuspen txarrak	Etorkizuna	.000	Aurreikuspen onak		
Aniztasun handia	Auzoa	.000	Aniztasun handiko edo gutxiko auzoa		
Ez du harremanik	Elkarreragin publikoa	.000	Elkarreraginen bat edo asko		
Ez du harremanik	Aisialdiko elkarreragina	.000	Harremanen bat edo asko		

Iturria: Geuk egina

- immigrazioarekiko nabarmen irekiagoak dira estatus sozioekonomiko altua duten pertsonak (69,64 puntu), estatus ertaina dutenak (65,42 puntu) edo baxua dutenak baino (64,41 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen irekiagoak dira baikorrak direla dioten pertsonak (70,70 puntu), ezkorrak direla dioten pertsonak baino (60,10 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen irekiagoak dira etorkizunari begira aurreikuspen onak dituzten pertsonak (69,84 puntu), aurreikuspen txarrak dituztela diotenak baino (56,82 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen irekiagoak dira aniztasun etnikoko auzoetan bizi diren pertsonak (63,75 puntu) eta hainbat jatorritako pertsonak nahasten diren auzoetan bizi direnak (67,55 puntu), atzerriko etorkin asko dauden auzoetan bizi diren pertsonak baino (53,88 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen irekiagoak dira eremu publikoan etorkinekin hartu-eman handia edo noiz edo noiz hartu-emanen bat duten pertsonak (67,02 puntu eta 66,29 puntu, hurrenez hurren), haiekin inolako hartu-emanik ez dutenak baino (58,82 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen irekiagoak dira aisialdian etorkinekin hartu-eman handia edo noiz edo noiz hartu-emanak dituzten pertsonak (70,42 puntu eta 70,11 puntu, hurrenez hurren), haiekin inolako hartu-emanik ez dutela esaten dutenak baino (58,83 puntu).

⁴⁶ Faktore baten ANOVA.

Gero, aldagai anitzeko metodologiak baliatu ditugu, metodologia horiek lagundu egiten baitigute aldagaien arteko harremanak hobeto ulertzen, zer elkarreragin duten argitzen, bereizketa-ahalmenik handiena dutenak nabarmentzen, aldagai batzuen eta besteen eragin gurutzatuak eragozten eta indargabetzen, eta, beraz, zer errealitatetan bizi garen hobeto jakiten. Zehazki, aldagai anitzeko metodologia aplikatu dugu, AID deritzona. Segmentazio-zuhaitz bat ematen digu metodologia horrek, euskal herritarren tipologia zenbaitek osatua, eta tipologia horiek gutxi gorabehera bat datoz atzerriko immigrazioarekiko talde irekiagoak edo itxiagoak eta uzkurragoak osatzen dituzten pertsonekin.

Horretarako, aldagai aske guztiak kontuan hartuta (hogei guztira), beste segmentazio bat landu dugu. Aurreko urteetan bezala, aldagai anitzeko metodologia hori aplikatzeak ez du xede zehatza, zorrotza eta eztabaidea izatea; hau da, asmoa ez da irekiera handia edo txikia erakusten duten jarrerekin lotutako aldagaiei buruzko debatea ixtea. Aitzitik, errealitatea ikusteko eta ulertzeko modu xume bat baino ez dugu eskaini nahi. Badakigu horren bidez proposatzen dugun tipologia horixe baino ez dela: tipologia bat, sartu ditugun aldagaiek, bildu ditugun bezala bilduta, sortutako tipologia.

2025eko segmentazio-zuhaitzean, lehen segmentazio-aldagaia atzeritar jatorriko pertsonekin aisialdian izandako harremana da (esangura: 0.000). Pertsona batek atzeritar jatorriko pertsonetikiko duen jarrera iragartzeko gaitasun handiena duen aldagaia da; beraz, pertsona batek aisialdian atzeritar jatorriko pertsonekin zenbat eta harreman handiagoa izan, orduan eta puntuazio handiagoa lortuko du gure indizean, eta horrek atzeritar jatorriko pertsonetikiko irekiera handiagoa dakar.

Gainera, segmentazio-zuhaitzean portaera iragartzen duten beste aldagai batzuk nabarmentzen dira: etorkizunerako itxaropen pertsonalak; erlijioa; ideologia; atzeritar jatorriko pertsonetikiko harremanak eremu publikoan; eta bizi den auzo edo udalerriaren osaera, aniztasun etnokulturalari dagokionez.

Zehazki, hauek dira gure segmentazio-zuhaitzaren aldagai bereizleak edo iragarleak, eta zuhaitz hori bere maila guztietan osatzeko aukera eman dutenak, garrantziaren arabera sailkatuta:

- 1. maila: aisialdian atzeritar jatorriko pertsonetikiko harremana (esan. 0.000);
- 2. maila: etorkizuneko itxaropenak, partida bikoitzeko (esan. 0.000 eta 0.000);
- 3. maila: erlijioa (esan. 0.004), ideologia (esan. 0.023), atzeritar jatorriko pertsonetikiko harremana eremu publikoan (esan. 0.026) eta bizi den auzo edo udalerriaren osaera, aniztasun etnokulturalari dagokionez (esan. 0.000);

- 4. maila: erlijioa, berriro ere (esan. 0.031) eta ideologia, berriro ere (esan. 0.000).

Aldagai horiekin 11 segmentu atera ditugu guztira. Segmentazio-zuhaitzaren 58. grafikoan, euskal gizarte osoaren batez bestekotik gorako puntuazioa lortu dutenak eta hortik beherako puntuazioa dutenak azpimarratu ditugu, berdez aurrenekoak eta morez bigarrenak. Hauek dira segmentuak, irekiera handiena erakusten dutenetatik immigrazioarekiko tolerantziarik txikiena erakusten dutenetara ordenatuta:

1. Atzerritar jatorriko pertsonekin aisialdiko harremanen bat edo harreman nabarmena duten pertsonak, etorkizunerako itxaropen onak dituztenak, aniztasun etnokultura gutxiko auzo edo udalerrietan bizi direnak eta ezkerreko edo zentro-ezkerreko ideologia dutenak: 76,36 puntu, eta EAEko biztanleen % 18,2 dira.
2. Atzerritar jatorriko pertsonekin aisialdiko harremanen bat edo harreman nabarmena duten pertsonak, etorkizunerako itxaropen onak dituztenak, aniztasun etnokultura gutxiko auzo edo udalerrietan bizi direnak eta eskuineko edo zentroko ideologia dutenak: 70,90 puntu, eta EAEko biztanleen % 13,7 dira.
3. Atzerritar jatorriko pertsonekin aisialdiko harremanen bat edo harreman nabarmena duten pertsonak, etorkizunerako itxaropen txarrak edo normalak dituztenak eta eremu publikoan atzerritar jatorriko pertsonekin harremanen bat dutenak: 70,17 puntu, eta EAEko biztanleen % 9,2 dira.
4. Atzerritar jatorriko pertsonekin aisialdiko harremana edo harreman nabarmena duten pertsonak, etorkizuneko itxaropen txarrak edo normalak dituztenak, eremu publikoan atzerritar jatorriko pertsonekin harreman handia dutenak eta beren burua katoliko praktikantetzat, agnostikotzat, ateotzat edo beste erlijio batzuetan kokatzen dutenak: 67,17 puntu, eta EAEko biztanleen % 8,0 dira.
5. Atzerritar jatorriko pertsonekin aisialdiko harremanen bat edo harreman nabarmena duten pertsonak, etorkizunerako itxaropen onak dituztenak eta aniztasun etnokultural handia edo ertaina duten auzo edo udalerrietan bizi direnak: 66,50 puntu eta EAEko biztanleen % 7,3 dira.
6. Atzerritar jatorriko pertsonekin inolako aisialdi-harremanik ez duten pertsonak, etorkizunerako itxaropen onak dituztenak eta ezkerreko edo zentro-ezkerreko ideologia dutenak: 60,10 puntu, eta EAEko biztanleen % 15,2 dira.
7. Atzerritar jatorriko pertsonekin inolako aisialdi-harremanik ez duten pertsonak, etorkizuneko itxaropen onik edo txarrik ez dutenak, eta beren burua agnostikotzat, ateotzat edo beste erlijio batzuetan kokatzen dutenak: 62,77 puntu, eta EAEko biztanleen % 4,8 dira.


8. Atzeritar jatorriko pertsonen aisialdiko harremanik ez duten pertsonak, etorkizunerako itxaropen onak dituztenak eta zetroko edo eskuineko ideologia dutenak: 58,33 puntu, eta EAEko biztanleen % 4,5 dira.
9. Atzeritar jatorriko pertsonen aisialdiko harremanen bat edo harreman handia duten pertsonak, etorkizuneko itxaropen txarrak edo normalak dituztenak, eremu publikoan atzeritar jatorriko pertsonen harremanik ez dutenak edo harreman handia dutenak eta beren burua katoliko ez-praktikantetzat jotzen dutenak: 57,34 puntu eta EAEko biztanleen % 5,7 dira.
10. Atzeritar jatorriko pertsonen inolako aisialdi-harremanik ez duten pertsonak, etorkizuneko itxaropen onik edo txarrak ez dutenak, eta beren burua praktikantetzat edo ez-praktikantetzat hartzen dutenak: 53,32 puntu, eta EAEko biztanleen % 4,8 dira.
11. Atzeritar jatorriko pertsonen aisialdiko harremanik ez duten pertsonak, etorkizunerako itxaropen txarrak dituztenak: 42,08 puntu, eta EAEko biztanleen % 4,7 dira.

Urtero esaten dugunez, EAEko biztanleriaren segmentazio horrek ez du erabat zehatza izan nahi; joerak adieraztea da, batik bat, xedea. Kontua ez da zehatz-mehatz adieraztea zenbat taldek osatzen duten EAEn immigrazioarekiko jarreraren panorama; aitzitik, helburua da aldagai garrantzitsuak identifikatzea atzerriko immigrazioarekiko portaera, jarrera, iritzi eta balio irekiak eta ez hain irekiak aurreikusteko, eta zenbait zertzelada adierazkor ematea gizarte-talde irekienak eta inklusiboenak direnen profilak zehazteko, bai eta jarrera itxi eta baztertzailleenak adierazten dituztenen profilak zehazteko ere.

Lehen ere aipatu dugu ereduaren iragarpen-ahalmena mugatua dela, nahiz eta 2025. urtean azalpen-ahalmena bariantza edo aldakortasun osoaren % 37,56ra igoatea lortu dugun. Aurreko urteekin alderatuta hobera egin dugun arren, oraindik ere ez ditugu azaldu EAEko biztanleek immigrazioarekiko dituzten jarrera gehienak, zalantzarik gabe beste aldagai batzuek duten zereginagatik, hala nola aldagai psikologikoagoak (nortasunekoak eta pertsona bakoitzaren egitura mentalekoak), testuinguru-izaerako beste aldagaiak eta eredu prediktiboan sartuta ez dauden beste aldagai psikosozial batzuk.

Barne-lanak nahiz beste talde batzuen lanak aztertzen jarraitzen dugu, xede izanik, EAEko herritarrei jatorri atzeritarra duten biztanleen etorrerarekin zerikusia duten galderak egiten zaizkienean, erantzunetan aldakortasunaren zatirik handiena azalduko duten eredu iragarleak prestatzen lagunduko diguten beste aldagai aske batzuk antzematea. Jakin badakigu, ordea, literatura zientifikoak ere diotenaren ildotik, pertsona bakoitzaren banakako desberdintasunak egon daitezkeela guztizko aldakortasunaren bariantzaren zati handi baten atzean.

58. grafikoa. Euskal biztanleriaren tipologiak, Immigrazioarekiko Irekiera Indizean duten posizioaren arabera, 2025



Iturria: Geuk egina

Talde handiak euskal biztanlerian

Analisi tipologikoa oso grafikoa da, eta lagungarria euskal herritarren artean askotariko motak daudela bereizteko eta bakoitzaren ezaugarri sozio-demografikoak zein diren jakiteko, atzerriko immigrazioarekiko duten irekier-maila handiago edo txikiagoaren berri emango baitugu. Horrezaz gain, oso erabilgarri gertatuko zaigu, talde horiek 0 puntutik 100 erabitarteko kontinuumean kokatzeko eta beren artean dauden desberdintasunak begiesteko, bai batzuen eta besteen irekiera-mailako desberdintasunak, bai talde horiek deskribatzen dituzten aldagaien arteko desberdintasunak; zehazki, aldagai hauen artekoak: aldagai soziodemografikoak, sozioekonomikoak, ideologiko-identitarioak, psikosozialak eta harremanei lotutakoak.

Dena den, nahiko informazio lausoa ematen digute, gure indizea osatzen duten hamar arlo edo dimentsioetan dituzten desberdintasunei buruz. Hau da, badakigu, oro har, indizean talde batzuek besteek baino puntuazio handiagoa lortzen dutela, baina ez dakigu gure indizea osatzen duten hamar arloetan desberdintzen diren, edota hamar horietako batean edo bestean soilik.

Hori dela eta, 2025. urtean ere aldagai anitzeko sailkapen-analisia erabili dugu⁴⁷, bai informazio gehiago lortzeko, bai immigrazioarekiko jarrera, balio eta sinesmenekin loturiko aldagaien artean euskal biztanleak gehien bereizten dituzten aldagai horietan sakontzeko. Horrezaz gain, analisi horren bidez biztanleen sailkapenak ere egin nahi izan ditugu, euskal biztanleek immigrazioari buruz dituzten jarrera diferenteak agerian uzteko eta aurreko eta hurrengo urteei begira erraz alderatzeko eta kontrastatzeko moduko informazioa eskuratu ahal izateko.

⁴⁷ Kasu honetan, eta gure aldagaien zenbaki-izaerari erreparatuta, aztertu ditugun hamar arloetan inkestatutako pertsona bakoitzak lortutako balioa, k-means izeneko aldagai anitzeko sailkapen-analisia aplikatzea erabaki dugu. Sailkapen-teknika ez-hierarkikoa da. Hau da, aldez aurretik talde kopuru jakin bat ezartzen da euskal biztanleria osoa sailkatzeko. Teknika horren bidez, irizpide erlatiboen bidez sailkatuko da euskal gizartea hiru talde horietan. Hau da, datu-basea osatzen duten pertsona guztien artean irekienek osatuko dute irekien multzoa, hamar arloetan puntuaziorik handienak eskuratzen dituztenek; datu-baseko pertsona guztien artean irekiera gutxien ageri dutenek osatuko dute uzkurren taldea, puntuazio txikiak dituztenek, alegia; eta bi talde horietatik gehien urruntzen direnak osatuko dute anibalenteena, erdibideko puntuazioak eskuratzen dituztenek, alegia 2007an hiru pertsona-talde ezarri genituen, irekiak (lehen toleranteak), anibalenteak (lehen anibalenteak) eta uzkurak (lehen uzkurak), eta ordutik sailkapen hori egin dugu talde horien bilakaera aztertu ahal izateko, eta, hori dela eta, 2025ean berriro eskatu genion ordenagailuari datu-basea hiru multzotan sailkatzeko. Eta jakin badakigu agian beste sailkapen batek hobeto bete ditzakeela aldagai anitzeko teknika hau aplikatzeak eskatzen dituen taldeen arteko homogeneousotasun- eta heterogeneotasun-baldintzak. Hala ere, hiru multzotako gure proposamenak eskaintzen dituen datuak (talde barruko distantziak, hamar arloak edo aldagaiak kontuan hartuta kasu bakoitzetik esleitu zaion taldearen zentrorako dauden distantziak, talde arteko distantziak baino nabarmen txikiagoak dira, hamar arloak edo aldagaiak kontuan hartuta hiru multzoetako azken zentroetatik lortutako datuak) behar bezain sendoak dira ondoriozko taldeen interpretazio onargarria ahalbidetzeko. Gainera, hiru multzotan sailkatuta, duela bi hamarkada ingurutik luzetarako trazabilitatea ezartzeko aukera ematen digu.

Aurreko urteetan erabili dugun metodologia berari jarraituz, eta aztertutako epean nagusitzen ari diren joeren analisisa egin ahal izateko, hiru talde handitan sailkatu ditugu euskal biztanleak: atzerriko immigrazioarekiko talde irekia, talde anbibalentea eta talde uzkurra edo itxia

Euskal biztanleria hiru talde horietan sailkatzeko irizpidetzat erabili diren aldagaiak eta aurreko urteetako barometroetan erabilitakoak berdinak dira; hau da, immigrazioarekiko Irekiera Indizea kalkulatzeko oinarri diren eta adierazi ditugun hamar arlo horietan, herritar bakoitzak lortutako puntuazioak. Azken buruan EAEko biztanleak arlo hauetako bakoitzean lortutako puntuazioaren arabera (0tik 10era) sailkatu ditugu: etorkinen BOLUMENaren pertzepzioa; atzerriko etorkinak ARAZOTZAT hartzea; immigrazioak EKONOMIAN dituen ondorioei buruzko iritzia; EAEko GIZARTEAN dituen ondorioei buruzko iritzia; BIZIKIDETZA EREDUEI buruzko pertzepzioa; ESTEREOTIPOEK irautea; ESKUBIDEAK eta zerbitzuak eskuratzeko aukeraren inguruko jarrera; HARREMAN ESPAZIOEI buruzko iritzia; IMMIGRAZIO POLITIKARI buruzko ikuspegia; eta atzerriko immigrazioak gure gizartean dituen ONDORIO GLOBALEN inguruko pertzepzioa.

Lortutako hiru taldeek jarrera desberdinak dituzte atzerriar jatorriko immigrazioari dagokionez, eta, normala den bezala, batez ere pertsona irekien eta uzkurren taldearen arteko aldeak nabarmentzen dira.

Galdeketako itemei emandako erantzunen arabera eta hamar arloetan eskuratutako puntuen arabera, talde bateko edo besteko kideztat jotzen da pertsona bakoitza, eta behin hori eginda, hiru taldeek zer jarrera eta jokabide duten azter dezakegu. Nolanahi dela ere, hiru multzoen arteko desberdintasunak nabarmenak dira, eta horixe adierazten dute aztertutako eremu bakoitzean talde bakoitzak lortutako batez besteko puntuazioek (2. taula). Hor ikus dezakegu aztertutako arlo bakoitzean irekien taldeak lortutako puntuazioa altuagoa dela anbibalenteen taldeak lortutakoa baino eta, era berean, anbibalenteen taldeak puntuazio handiagoa lortu duela uzkurren taldeak baino⁴⁸. Aldagai guztiek F balio esanguratsuak dituztela erakusten du bariantza-analisiak, eta horrek adierazten du finkatutako taldeen artean alde nabarmenak daudela, aztertutako aldagai guztietan.

⁴⁸ Bariantza-analisiaren arabera, aldagai guztiek F balio esanguratsuak dituzte, eta horrek adierazten du desberdintasun esanguratsuak daudela ezarritako taldeen artean aztertutako aldagai guztietan.

4. taula. Taldeen puntuazioa arlo desberdinetan, 2025

	Talde irekia	Talde anbigalentea	Talde itxia
Bolumenaren pertzepzioa	5,79	4,14	2,10
Arazotzat hartzea	9,66	9,35	7,61
Eraginak ekonomian	7,93	6,66	4,22
Eragina euskal gizartean	7,50	6,32	3,67
Immigrazio-politika	8,02	5,68	3,33
Eraginak guztira	7,26	5,73	3,76
Bizikidetzaren-ereduak	5,32	3,62	1,37
Estereotipoak	6,31	4,25	2,11
Eskubideak eskuratzea	8,97	6,91	4,62
Harreman-espazioak	8,88	7,64	4,95


Iturria: Geuk egina

Pertsona irekien taldeak, aurreko urteetako joerari jarraituz, balio handiagoak erakusten ditu arlo guztietan: ez dute ikuspegi hain distortsionatua immigrazioaren egungo bolumenarekiko, ez dute uste immigrazioa arazoa denik, immigrazioak ekonomian, gizarte osoarengan (guztizko ondorioak) eta euskal gizartean eta kulturaren alderdi eta ondorio onuragarriak dituela onartzen dute, irekiagoak dira administrazioak egin beharko lukeen immigrazio-politikari buruzko iritzietan, ez dute bizikidetzaren-ereduak erabat asimilaziozkoak izan behar dutenik pentsatzen, estereotipo gutxiago dituzte, jarrera ireki eta unibertsalagoa ageri dute etorkinek eskubideak eta zerbitzuak baliatzeko izan beharko luketen aukerari dagokionez, eta haien harreman-eremuak irekiago daude pertsonen arteko truke eta elkarreraginera.

Kontrako muturrean, uzkur jotzen duten pertsonen taldeak oso puntuazio baxuak ditu eremu guztietan, immigrazioa arazotzat hartzeko eremuan izan ezik. Argi geratu da, beraz, euskal gizartean inork, ezta uzkurren taldeak ere, ez duela immigrazioa arazotzat hartzen. Gainerako balioetan ikusten da immigrazioarekiko ageriko jarrera uzkurak dituztela, eta argi dago, beraz, gure gizartearen zati bat uzkur ageri dela atzerriko etorkinen aurrean, arazo ote diren edo haien kopurua kontuan hartu gabe ere. Izan ere, askotan jarrera horiek etorkinen presentzia baino lehenagotik datoz.

Bereziki garrantzitsuak dira talde uzkur horrek bereganatzen dituen jarrerak etorkinen bolumenaren pertzepzio desitxuratuari eta negatiboari, atzeritar jatorriko pertsonen lotutako estereotipo faltsuak eta negatiboak onartzeari eta bizikidetzarako eredu asimilazionista argiak proposatzeari dagokienez.

59. grafikoa. Taldeen puntuazioa hamar arloetan (azken zentroak), 2025




Iturria: Geuk egina

Azkenik, anbibalentek tarteko puntuazioak dituzte eremu guztietan, batzuetan uzkurten taldeak ateratakoetatik hurbilagokoak eta beste batzuetan immigranteen etorrerarekiko pertsona irekien puntuazioetatik hurbilagokoak.

Oro har, hiru taldeen arteko jokabide berezitua aurreko urteetan aipatutakoaren oso antzekoa da. Immigrazioari irekitako pertsonen taldeak jarrera argi eta garbi positiboa eta inklusiboa du immigranteen etorreraren aurrean, eta batez besteko puntuazioa 75,63 puntukoa da gure indizean. Pertsona anbibalenteen taldeak, berriz, nolabaiteko jarrera positiboa eta inklusiboa erakusten du, 60,29 puntuko puntuazioarekin. Azkenik, immigrazioari uko egiten dioten pertsonen taldeak puntuazio txikia lortu du, 37,72 puntu, eta horrek nabarmen negatiboa eta baztertzaila den jarrera erakusten du.

Hiru taldeen puntuazioek (60. grafikoa) beren arteko estatistika-alde nabarmenak adierazten dituzte, eta, beraz, baieztatu dezakegu hiru taldeek oso bestelako pertzepzio, iritzi, jarrera, sinesmen eta jokabideak dituztela atzerriko immigrazioarekiko.


60. grafikoa. Taldeen puntuazioak Irekiera Indizean (0tik 100era bitarteko batez besteko puntuazioa)



Azken urteotan hautemandako joerei dagokienez, honako hauek dira nabarmentzeko modukoak (61. grafikoa):

- Talde irekia, 75,63 puntu egin ditu, oso egonkor dago aztertutako epean, 75 puntu inguruan;
- Talde anbibalenteak, 60,29 punturekin, joera positiboa du aztertutako aldi osoan, nahiz eta posizio batzuk galdu dituen 2020-2023 aldi berrienarekiko. Nolanahi ere, 60 puntutik gora mantentzen da;
- Uzkurren taldeak 37,23 puntu ditu, eta zer pentsatu ematen du etorkizunean izango duen bilakaerari buruz, nahiz eta une honetan 40 puntutik behera egon.


61. grafikoa. Talde nagusiek Irekiera Indizean lortutako puntuazioaren bilakaera (0tik 100era bitarteko edia), 2007-2025



Ikus dezakegu, beraz, gorabeherarik nabarmenenak pertsona uzkurren taldean gertatzen direla, haien jarrera ez baita hain egonkorra denboran zehar. Aldi berean, nahiz eta immigrazioari irekitako pertsonen eta anibalenteen batez besteko puntuazioak pixkanaka handitzen joan diren, ikus daiteke pandemiaren aldian ezohiko igoera bat izan ondoren, berriro doitu dela, eta azken bi urteetako joera ikusita egonkortu egin dela. Gainera, ikus dezakegu 2024an indize orokorraren balioak behera egin duela, hein handi batean immigrazioaren kontrako muturreko joera duten pertsonen diskurtsoa gogortu delako eta, neurri txikiagoan, pertsona anibalentek direlako, eta ez hainbeste pertsona irekien jarrera aldatu delako; izan ere, hori da, jarraian ikusiko dugun bezala, talde nagusia

Baina hiru taldeetako bakoitzak lortutako batez besteko puntuazioaren azterketaren irudia ez da osoa talde bakoitzaren tamaina aztertzen ez badugu. Analisi honek datuen koadroa osatzen lagunduko digu: talde irekiak EAEko biztanleriaren erdia baino gehiago barne hartzen du, % 54,17; talde anibalentek EAEko biztanleriaren % 33,66 biltzen du; eta uzkurren taldeak zati txiki bat biltzen du, EAEko herritarren % 12,17.

62. grafikoa. Taldeen tamaina, %, 2025




Iturria: Geuk egina

Aurreko urteekin alderatuta talde horiek zer tamaina duten, zer puntuazio lortu duten eta irekiera-eskalan non dauden, hauek dira ondorioak:

- Talde irekiak puntuazio altuak izan ditu denboran zehar, azken aldian 75 puntutik gora; horrek adierazten du jarrera irekia eta inklusiboa dutela atzeritar jatorriko pertsonetikiko, eta pertsona asko hartzen dituela, 2025ean EAEko biztanleriaren erdia baino gehiago baitzegoen: % 54,17. Eta are garrantzitsuago: bolumena handitzen doa. Badirudi euskal gizartearen atzeritarrekiko jarrera positibo irmoak dituzten pertsonen oinarri garrantzitsua sendotzen ari dela;

- Talde anbibalenteak ere pertsona ugari ditu (inkestaturako hiru pertsonatik bat inguru, % 33,66), eta immigrazioarekiko posizio zertxobait positiboak dituzte. Izan ere, talde horrek partaideak galdu ditu azken urteetan, posizio irekiagoak eta positiboagoak izatera igaro direlako, haien jarrerak hobetu eta pertsona irekien taldean sartzen direlako;
- Uzkuruntaldean, berriz, azken bi urteetako puntuazioa 40 puntutik beherakoa izan da, eta argi eta garbi jarrera aldrebesagoak eta baztertzaileagoak dituzte atzeritar jatorriko pertsonetik; hala ere, ez dira iristen 2008-2015 krisi ekonomikoaren aldian izandako jarrera negatiboen mailara. Talde horrek pisu handia galdu du, eta euskal biztanleriaren % 12,17 baino ez du biltzen, kide ohietako batzuek jarrerak eta posizioak hobetu dituztelako eta pertsona anbibalenteen taldean sartu direlako.


63. grafikoa. Talde nagusien neurriaren bilakaera, %, 2007- 2025



Iturria: Geuk egina

Indizeko 65 itemak multzokatu ditugun 10 eremuetan lortutako puntuazio partzialen arabera zehaztu dugu pertsona bakoitza zein taldetakoa den, eta pertsonak talde batean eta bestean zuzen banatu ditugula egiaztatzeko, analisi bereizle bat egin dugu, aurreko urteetan bezala.

64. grafikoa. Euskal populazioaren mapa tipologiaren arabera, 2025



Iturria: Geuk egina


Eta azkenik, eta aurreko urteetan ere egin dugun bezala, erabaki genuen aztertzea zer aldagai (soziodemografikoak, sozioekonomikoak, ideologiko-identitarioak, psikosozialak eta harremanei lotutakoak) eta aldagai horien arteko zer multzo dauden lotuago talde batekoa edo bestekoa izatearekin. Hau da, zer ezaugarri lotzen diren pertsona irekien, anibalenteen eta uzkurren talde desberdinekin. Horretarako, kontingentzia-etaulak eta AFC korrespondentzia sinpleen faktore-analisia erabili ditugu (65. grafikoa), oso irtenbide grafiko argigarria eta intuitiboa eskaintzen dutelako, eta koherentea ere bai, aurreko atalean deskribatutako tipologiaren profilekin.

Horrela, Korrespondentzien Faktore-analisan egiaztatu ondoren ChiSquareak estatistikoki esanguratsua den balio bat duela ($\text{ChiSquare} = 520,582$, esang. 0,000), eta ezaugarri eta pertsona-talde ireki, anibalente eta uzkurren arteko lotura adierazten duela, honako elkarre lotura hauek hauteman ditugu⁴⁹:

⁴⁹ AFC honetan, hiru kategoriako aldagai batekin bakarrik lan egin dugunez (pertsonen taldeak), bi dimentsio baino ez ditugu atera analisi horretatik, eta bariantzaren %100 azaltzen dute bi dimentsio horiek. Lehenengo dimentsioak azaltzen du bariantza osoa (% 83,8) eta bigarrenaren azalpen-balioa txikia da (gainerako % 16,2).

- **Talde irekia:** batez ere goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak dira, euskaraz hitz egiten dute, agnostikoak dira, edo ateoak edo erlijioarekiko axolarik ez dutenak, ezkerreko edo zentro-ezkerreko ideologiakoak dira, euskaldunak sentitzen dira, euskal abertzaleak direla diote, beren ekonomia-egoerarekin gustura daude, hilero 2.500 euro baino gehiagoko diru-sarrera garbiak dituzte etxean, estatus sozioekonomiko ertain edo altukoak dira, baikorrak direla diote, etorkizunari begirako aurreikuspen onak dituzte, aniztasun txikiko auzo edo udalerrietan bizi dira, etorkinekin noizbehinka edo askotan dituzte elkarreraginak eremu publikoan, noizbehinka edo askotan aisialdian.

65. grafikoa. Taldeen posizionamenduaren mapa, 2025




- Talde Anbibalentea (ezaugarri batzuk Talde Irekiarekin partekatzen ditu, eta beste batzuk Uzkurren Taldearekin, azken horrekin nagusiki): batez ere lehen mailako ikasketak (edo gutxiago) dituzten pertsonak dira, ez dute euskaraz hitz egiten, katoliko praktikatzaileak dira, zentroko edo eskuineko ideologia dute, euskaldunak zein espainiarrak sentitzen dira, espainiar nazionalismoekiko edo nazionalistekiko ez dute interesik, beren egoera ekonomikoarekin ez daude pozik, edo ez dute asebetetzerik, hilero 1.301 eta 2.500 € bitarteko diru-sarrera garbiak dituzte etxean, estatus ertaina dute, euren burua ez dute ez ezkor ez baikortzat jotzen, etorkizunari begirako aurreikuspen normalak edo txarrak dituzte, auzo edo udalerri anitzetan bizi dira eta etorkinekin ez dute hartu-emanik, ez esfera publikoan, ez aisialdian.
- Uzkurren Taldea: ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak dira, katoliko ez-praktikatzaileak dira, zentroko ideologia dute, euskaldunak zein espainiarrak sentitzen dira, maila berean, espainiar nazionalista edo ez-nazionalistatzat duten euren burua, beren egoera ekonomikoarekin ez daude ez pozik ez atsekabetuta, hilero 1.300 € baino gutxiagoko diru-sarrera garbiak dituzte etxean, estatus sozioekonomiko txikia dute, euren burua ezkortzat jotzen dute, etorkizunari begirako aurreikuspen txarrak dituzte, aniztasun handiko auzo edo udalerrietan bizi dira eta etorkinekin ez dute elkarreraginik, ez esfera publikoan, ez aisialdian.

Irekitasun indibidualaren eta kolektiboaren pertzepzioa

Irekiera Indizea eta horren arabera populazio-banaketa aztertuta, ondoren immigrazioarekiko irekitasun indibidualaren eta kolektiboaren pertzepzioa –hau da, proiektatutakoa– aztertuko dugu, kontraste gisa. Emaizten bidez, batez besteko onarpen-mailak identifika daitezke, herritarrek migrazio-fenomenoarekiko dituzten pertzepzioei, iritziei eta jarrerrei buruzko joera orokorrak agerian utziz. Galdera horien bidez, norberaren eta gizarte osoaren irekitasun-maila neurtu nahi da, 0tik (oso itxia) 10era (oso irekia) bitarteko eskala baten bidez. Horrelako gaiak gizartearen nahiekin oso lotuta egoten direnez, garrantzitsua da bi modutara planteatzea; izan ere, hurbileko zirkulurako proiektzioak errealitatetik hurbilen dauden jarrerak islatu ohi ditu.

Horrela, euskal gizarteak uste du immigrazioarekiko irekitasun-maila pertsonal nahiko handia duela, 10etik 7,17 puntu, batez beste. Proiektatutako irekitasunak, bestalde, pertzepzio askoz ere neurritsuagoa erakusten du: 10etik 5,82 puntu, batez beste. Oro har, herritarrek banan-banan uste dute gizarte osoak baino jarrera irekiagoa dutela immigrazioarekiko, -1,35 puntuko aldearekin (66. grafikoa).

66. grafikoa. Immigrazioarekiko irekitasunari buruz norberak duen pertzepzioaren eta gizarteari proiektatutakoaren bilakaera. 2016-2025 (batez besteko puntuazioa 0tik, oso itxia, 10era, oso irekia)



28.g. Eta immigrazioarekiko irekitasun-eskala batean, non kokatuko zenuke zeure burua 0tik "oso itxia" 10era "oso irekia"?

29.g. Eta non kokatuko zenuke euskal gizartea, 0tik "oso itxia" 10era "oso irekia"?

Bilakaerari dagokionez, batez besteko bi puntuazioak egonkor mantendu dira 2016an item hori kontsultatzen hasi zenetik. Norberaren pertzepzioak 2017an izan zuen balorazio minimoa (6,40 puntu), eta maximoa 2023an (7,38 puntu). Hala, txostenean aurkeztutako datuetan eta, zehazki, Irekiera Indizean ikusitako joerak jarraitzen du. Indize horren arabera, 2020ko osasun-krisiak eta 2022ko asilo-krisiak eragindako koiunturek immigrazioarekiko jarrera irekiagoa eragin zuten biztanleengan, eta, ondoren, zertxobait behera egin zuen 2024an. Hala ere, item zehatz horren kasuan, irekitasun indibidualaren maila altua izan da 2025ean, aipatutako ezohiko testuinguruetan izandakoen antzekoa edo handiagoa.

Gizarteari proiektatutako irekitasunak puntu erdiko aldea baino ez du bere minimoaren (5,80 puntu 2018an eta 2019an) eta maximoaren (6,30 puntu 2021ean eta 2023an) artean. 2025. urtea nabarmentzen da gizarteak immigrazioarekiko duen jarreraren pertzepzioan, puntuaziorik txikienetako bat izateagatik, 2018ko eta 2019ko mailetara itzuliz.

Laburbilduz, gizarteak immigrazioarekiko duen jarrera norberak duena baino itxiagoa dela uste izateari eutsi egin zaio azken hamarkadan, eta azken urte horretan sumatzen da jarrera indibidualaren eta kolektiboaren arteko alderik handiena. Hala, biztanleriak irekitzat jotzen du bere burua —batez besteko puntuazio nahiko altua—, eta euskal gizarte osoaren irekitasuna, berriz, moderatuagoa dela uste du —batez besteko tarteko puntuazioa—.

6

Ondorioak

Barometroa 2025. *Atzeritar jatorriko biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak EAEn* txostenean jasotako emaitzen artean, ondorio orokor batzuk atera daitezke, euskal gizartearen gaur egungo egoera migrazio-fenomenoari dagokionez zehazteko.

Oro har, datuek immigrazioari buruzko pertzepzio normalizatua eta nahiko egonkorra berresten dute, ikuspegi alarmistetatik edo gatazkatsuetatik urrun. Immigrazioa egitura-prozesu iraunkor gisa agertzen da, eta Euskadiko sare sozial, demografiko eta ekonomikoaren parte da. Egonkortasun horrek berekin dakar onarpen-jarrerak sendotzea eta Europako beste testuinguru batzuetan eta Euskadin krisi ekonomikoaren urteetan ikusitako kezka- edo gaitzespen-mailak murriztea.

Aurreko urtearekin alderatuta, hobekuntza orokorra ikusten da irekitasun-adierazle nagusietan, 2024an tentsio mediatikoek eta hauteskundeetakoek markatutako aldiaren ondoren. Faktore koiunturalen konbinazioak, hala nola hauteskunde-prozesuak, krisi humanitarioen oihartzun mediatikoak eta haien ondorio ikusgarrienak —Kanaria uharteetara txalupetan iritsitako migratzaileak— ziurgabetasun eta jendaurreko agerpen-giroa sortu zuten 2024ko lehen zatian, eta horrek zuzeneko eragina izan zuen jasotako jarreretan eta iritzietan. Aldiz, 2025ean, datuek erakusten dutenez, aurreko puntuazioak itzuli dira, eta COVID-19aren pandemiak eta Ukrainako gerrak 2022an eragindako ezohiko aldiaren aurretik ikusitako joerak.

Hori bat dator bilakaera historikoaren azterketan ikusitako emaitzekin; izan ere, adierazle guztiek ez dute egonkortasun-maila bera erakusten datu-seriean zehar. Bereziki, egoera ekonomikoari, eskubideak eskuratzeari, estereotipoei, euskal gizartean hautemandako ondorioei eta harreman-guneen balorazioari lotutako adierazleek sentsibilitate handiagoa erakusten dute gertakari historiko-

ekiko. Joera egonkorrenetako aldaketa edo gailur horiek testuinguru-faktoreen ondorio izan daitezke, neurri batean behintzat.

Horrela, Euskadiko Irekiera Indizearen bilakaeran, 2007tik 2025era bitartean, hainbat fase eta aldi hauteman ditzakegu. Alde batetik, krisi ekonomikoaren aurreko eta ondorengo urteetan, 2013 eta 2019 arteko oparotasun-aldietan, immigrazioarekiko jarrerak positiboagoak izan ohi ziren.

Hala ere, 2008tik 2012ra gertatu zen krisi ekonomikoaren fasean, immigrazioarekiko irekitasunak behera egin zuen, eta areagotu egin ziren immigrazioa konfiantza galtzearekin lotzen zuten diskurtsoek (García Muñoz eta Milgram-Baleix, 2021), bai eta lanaren eta ekonomiaren segurtasunerako balizko mehatxu batekin lotzen zutenak ere (Kovacic eta Orso, 2023); hori guztia, baliabideak eskuratzeari eta banatzeari buruz zegoen lehia edo mehatxu errealista edo sinbolikoaren pertzepzioaren ondorioz.

Bestalde, Euskadiko krisi sanitario eta/edo humanitarioen garaietan, hala nola COVID-19aren pandemian eta erantzun sozial solidarioan, nabarmen handitu zen immigraziorako irekiera 2020 eta 2021 urteen artean, eta, ondoren, Ukrainako gatazka belikoaren ondoriozko krisi humanitarioak aktibatutako enpatiarekin eta elkartasunarekin lotutako salbuespenezko aldi bat izan zen.

Ezohiko irekitasun-gailur berezi horrek behera egin zuen 2023an eta 2024an, immigrazioarekiko irekitasun-maila aldi horren aurreko balioetara itzuli zenean, indizeak behera egin baitzuen, eta hori, gainera, hauteskunde-aurreko testuinguruan immigrazioari buruz izandako eztabaida politikoeekin lotzen da. Azkenik, ikusten dugu joera hori aldatu egin dela 2025ean, dimentsio guztietan irekitasuna nabarmen handitu baita.

Oro har, datuek erakusten dute migrazio-fenomenoaren onarpen eta balorazio positiboa hobetzeko joera orokor positiboa dagoela Euskadin.

Etorkinen bolumenari buruzko pertzepzioa eta etorkinak iristeari buruzko espektatibak

Edizio honetan, aurreko urteetan bezala, datuek agerian uzten dute euskal gizarteak ez duela uste immigrazioa arazo bat denik, ez maila sozialean, ez maila pertsonalean. Euskal herritarrek modu sendo eta egonkorrean adierazten dute beren kezka nagusiak egiturazko gai garrantzitsuetan oinarritzen direla, hala nola etxebizitzan, ekonomian edo osasunean. Immigrazioa, pertsona gehienentzat, inpaktu txikiko gaia da oraindik ere arazo nagusiei buruz hitz egitean, eta horrek migrazio-fenomenoaren arazo-maila baxua adierazten du. Are gehiago Estatuko

beste testuinguru batzuekin alderatzen badugu; izan ere, horietan immigrazioa arazotzat hartzen dutenen ehunekoak handiagoak dira.

Bestalde, biztanle gehienek migrazio-fenomenoaren ikuspegi ez-polarizatua eta gero eta egiturazkoagoa adierazten dute. Hala, euskal gizartearen zati handi batek uste du etorkinen egungo bolumena egokia dela Euskadin, eta gutxiengo batek soilik uste du atzeritar jatorriko biztanle gehiegi daudela. Gainera, iritzi horrek indarra galtzen du datu erreala ematen denean, Euskadin bizi diren atzeritar jatorriko pertsonen ehunekoaren gehiegizko pertzepzioa islatuz. Herritarren zenbatespenaren eta benetako zifraren arteko distantzia hori pixkanaka murriztu da azken urteetan, migrazioaren errealitatea hobeto ezagutzen dela adieraziz.

Hautemandako beste joera bat etorkinen jatorri geografikoari buruzko balorazioarekin lotuta dago. Adibidez, Afrika edo Asiako eremuetatik etorritako kolektiboen presentzia gainbaloratzeko joera dago, eta Latinoamerikatik edo Europako beste herrialde batzuetatik etorritakoen garrantzia gutxiesten da. Pertzepzio hori errealitateetik oso urrun dago; izan ere, Euskadira iritsitako pertsonen % 70 baino gehiago latinoamerikarrak dira, eta Afrikatik eta Asiatik iristen dira migratzaile gutxien. Pertzepzioaren eta errealitatearen arteko alde horrek erakusten du immigrazioari lotutako zenbait estereotipok eta irudikapen-esparruk bere horretan dirautela. Estereotipo eta esparru horiek lotura handiagoa dute gizarte-imaginarioekin –kasu askotan komunikabideek elikatuta– datu objektiboekin baino.

Bestalde, immigrazioak datozen urteetan handitzen jarraituko duen pertzepzioak agerian uzten du migrazio-fenomenoarekiko egiturazko begirada finkatzen ari dela.

Migrazio-politikak eta eskubideak eskuratzea

Euskal herritarrek oso jarrera inklusiboa dute migrazio-politikei eta migratutako pertsonen funtsezko eskubideak eskuratzeko aukerari dagokienez. Integrazioan, legea betetzean eta tratu-berdintasunean oinarritutako sarrera- eta egonaldi-politikak babestea da nagusi, bai eta neurri murriztaileak edo mugak ixtekoak baztertzear ere. Herritar gehienek administrazio-erregularizazioa eta gizarte-eskubide unibertsalak eskuratzea babesten dute, batez ere osasungintzan eta hezkuntzan; izan ere, finkatu egin da zerbitzu horiek administrazio-egoera edozein izanda ere bermatu behar direlako ideia.

Aurreko urteetako emaitzen ildotik, gehiengoak etorkinen sarrera baimentzearen alde egiten du, betiere ezarritako lege- edo lan-baldintzak betetzen badira, eta

horrek agerian uzten du ordenari lotutako migrazio-kudeaketaren ikuspegi pragmatikoa.

Era berean, iritzi publikoa egoera irregularrean dauden pertsonak automatikoki kanporatzearen aurka agertzen da, batez ere pertsona horiek gizartean edo lanean integratuta daudenean, eta errotuta egotearekin eta ekarpen soziala egitearekin loturiko irizpideen arabera pertsona horiek erregularizatzea babesten du. Hala, hamar pertsonatik zortzik babesten dute administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonak erregularizatu behar direlako ideia.

Eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeari dagokionez, herritarrek argi eta garbi babesten dute eskolatzeko, osasun-laguntzarako eta laguntza juridikorako berdintasuna. Adostasun-mailek zertxobait behera egiten dute parte-hartze politikoari edo prestazio ekonomikoei lotutako eskubideetan —esaterako, botoa emateko eskubidea edo gizarte-laguntzak—. Izan ere, horietan ñabardura gehiago daude, baina gehienak bertakoak eta atzerrikoak parekatzearen aldekoak dira.

Oro har, 2025eko emaitzek eskubideen unibertsaltasunean oinarritutako integrazio-eredu batekin konprometitutako euskal gizartearen irudia sendotzen dute, non iritzi-desberdintasunek gehiago lotzen zaizkien intentsitate-ñabardurei, jarrera polarizatuari baino.

Herritarrek jarrera irekia erakusten duten beste eremu bat nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harrera egitearena da: hamarretik zortzi alde daude. Gainera, sendotu egin da erakundeen erantzunak berdina izan behar duelako ustea, pertsonen jatorria edozein dela ere. Beraz, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak hartzearen aldeko jarrera ikusten da, bai eta baldintzak egiaztatzearen aldekoa ere.

Euskadin familia-erreferenterik ez duten adingabeei eta gazteei dagokienez, euskal biztanleriak babes handia ematen dio jarrera bermatzaileari, eta behar duten arreta eta babesa ematearen aldekoa da; gainera, jakin badaki kolektibo horiek egiturazko oztopoak eta zailtasunak dituztela hezkuntzan, gizartean eta lan-munduan sartzeko. Hala ere, autonomia-erkidegoen arteko kudeaketa partekatua defendatzen duen segmentu garrantzitsu bat mantentzen da; izan ere, 2025ean areagotu egin ziren pertsona horien banaketaren inguruko eztabaida politikoak, eta kudeaketa partekatua irtenbide bat izan daiteke.

Immigrazioaren ondorioei buruzko pertzepzioa

Gehienek uste dute immigrazioak eragin positiboa duela euskal gizartean. Hala, aitortu egiten dute atzeritar jatorriko pertsonen garapen ekonomikoari,

lan-merkatuari eusteari eta demografiaren gaztetzeari egindako ekarpena. Aldi berean, immigrazioa enpleguan, zerbitzu publikoetan edo gizarte-babeseko sisteman ondorio negatiboak izatearekin lotzen duten diskurtsoek garrantzia galdu dute, batez ere krisi ekonomikoaren ondoren, eta ikuspegi pragmatikoago eta utilitaristago bati bide eman diote. Izan ere, azken hamarkadan immigrazioarekiko gero eta irekiago egotearen oinarria da, neurri handi batean, immigrazioa egungo behar ekonomiko eta demografikoekin lotzen duen diskurtsoa.

Identitateari eta hizkuntzari dagokienez, gutxiengo bat kezkatuta dagoen arren, gehienek adierazi dute immigrazioa ez dela mehatxua euskararen erabilerarako edo euskal identitatearen garapenerako.

Bizikidetza-ereduak eta kultura-ereduak

Asimilazionismo bigunean edo moderatuan oinarritutako bizikidetza-ereduak bere horretan dirau urteetan zehar. Eredu horretan, alde batetik, kultura-aniztasuna balio positibotzat hartzen da, eta aintzat hartzen da bai pertsona migratuek bai gainerako gizarteak bizikidetza on baterako inplikatu behar dutela. Hala ere, integrazio-ahaleginaren zama, neurri handiagoan, atzeritar jatorriko pertsonen egozten zaie. Aldi berean, kultura-praktika azalekoen onarpen handiagoa izaten jarraitzen dute, eta kultura-aniztasunaren kanpoko elementu estetiko edo folklorikotzat hartu daitezke, hala nola jatetxeak, saltokiak edo elikadura-establezimenduak irekitzea. Hala ere, irekitasun hori murriztu egiten da garrantzi handiagoa izan dezaketen elementuei erreparatzen diegunean, hala nola ikastetxe propioak irekitzea, jantzi tradizionalak eta jatorrizko hizkuntza erabiltzea edo tenplu erlijiosoak eraikitzea.

Distantzia soziala eta eguneroko harremanak

Euskal gizarteak bizikidetza positiboko giroa sumatzen du, eta giro hori pixkanaka hobetzen ari da azken hamarkadan. Koherentziaz, atzeritar jatorriko pertsonen eta gainerako gizartearen artean sumatzen den distantzia sozialaren pertzepzioak moderatua izaten jarraitzen du. Zuzeneko harremana, hau da, bertako biztanleen eta atzeritar jatorrikoen arteko gizarte-elkarreraginak erabat normalizatuta eta onartuta daude espazio publikoetan eta lan-eremuetan, baina nahiko urria da eremu intimoenetan. Eredu horrek adierazten du hurbiltasun funtzionalean oinarritutako bizikidetza-eredu bat dagoela (lana, merkataritza, bizilagunak), eta afektibitate-distantzia moderatu bat, intentsitate txikiko kontaktuarekin. Hala ere, erresistentzia handiagoa ikusten da bizitegi-eremuko interakzioari dagokionez,

Estereotipoak eta aurreiritziak

Sinpatia-maila onarpenaren zeharkako adierazlea da, eta atzerritar jatorriko biztanleak balio altuetan kokatzen ditu, nahiz eta jatorriaren arabera ñabarduraren bat egon. Horrela, Mendebaldeko EBtik eta Latinoamerikatik datozen pertsonen balorazio altuagoak jasotzen dituzte, eta kulturalki urrunagotzat jotzen diren gizarteetatik datozenek, magrebtarrek edo Hego Asiatik etorritakoek, berriz, balio neurritsuagoak dituzte, baina alde nabarmenik gabe.

Bestalde, immigrazioari buruzko estereotipo negatibo, zurrumurru eta aurreiritzi hedatuenak baztertzen dituzte gehienek, estereotipo horiekin ados ez dauden pertsona gehiago baitaude estereotipo horien alde daudenak baino. Azken urteotan pisu gehien galdu duten aurreiritziak lan-eremuari lotutakoak dira; aldiz, immigrazioa gizarte-babeseko sistemarentzat zama gisa edo delinkuentzia eta matxismoa areagotzeko iturri gisa irudikatzen duten estereotipoek bere horretan diraute, baina gero eta indar gutxiagorekin.



Eranskinak

I. eranskina: Informazio metodologikoa

Jarraian, informazio metodologiko garrantzitsua zehazten da, honako atal hauek osatzen dutena: lagina, alderdi etikoak, landa-lana, erabilitako materialak, bildutako informazioaren arazketa eta landa-lanaren kontrola, datuen prozesamendua eta datuen analisi estatistikoa.

Lagina

Inkesta hau elkarrizketa pertsonalen bidez egin da (aurrez aurre), inkestari erantzun dioten pertsonen etxeetan. EAEn bizi diren 18 urtetik gorako biztanleei zuzenduta dago.

Lagina 600 pertsonak osatzen dute (87 Araban, 196 Gipuzkoan eta 317 Bizkaian). Datu-bilketari dagokionez, familien hautaketa 27 udalerritan banatutako laginketa-puntuen ausazko ibilbideen sistemaren bidez egin da (4 Araban, 10 Gipuzkoan eta 13 Bizkaian). Laginketa geruzatua erabili da, esleipen proportzional bidezkoa, habitataren tamainaren, adinaren eta sexuaren arabera. Habitataren tamainari dagokionez, 4 geruza hartu dira kontuan: hiriburuak, 20.000 biztanle edo gehiagokoak, 5.000tik 19.999ra biztanlera bitartekoak eta 5.000 biztanle baino gutxiagokoak. Adinaren aldagaiari dagokionez, 5 geruza hartu dira aintzat: 18-24 urte, 25-44 urte, 45-64 urte, 65-74 urte, eta 75 urte edo gehiago.

600 pertsonako lagin-tamaina horrekin eta %95eko konfiantza estatistikoarekin ($P = Q = 0,5$ kasuan), lagin osorako aurreikusitako gehieneko lagin-errorea $\pm$ % 4,00 da.

Alderdi etikoak

Ikerketak, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordearen (CEISH) onespena dauka. Kide anitzeko organo horrek izaera pertsonaleko datuak erabiltzea dakarten ikerketa-proiektuak ebaluatu eta horien jarraipena egingo du. Horrela, ikerketak, M10/2024/138 erreferentzia-zenbakiarekin, gogoeta etikoak betetzen ditu eta parte-hartzaileen eskubideak eta konfidentzialtasuna babesten ditu.

Landa-lana

Landa-lana 2025eko martxoaren 11tik 27ra egin da. Kontuan izan behar da landa-lana urtero data berean egiten dela, gutxi gorabehera. Era berean, galdetegiaren diseinua, lagina eta landa-lana ia ez dira aldatzen, eta, horri esker, euskal biztanleriak jatorri atzeritarreko biztanleekiko duen jarreraren bilakaeraren luzetarako analisia egin daiteke.

Landa-lanaz CPS Iritzi eta Merkatu Ikerketak enpresa arduratu da, eta CCI/ESOMAR kode deontologikoaren printzipioak errespetatuz lan egin du. Ikerketa soziologikoaren arloan ibilbide luze eta egiaztatua duen enpresa da.

Inkesta aurrez aurre eta etxez etxe egin da, batez beste 25 minutuko iraupenarekin. Elkarriketatutako pertsonak gaztelaniaz edo euskaraz erantzuteko aukera izan dute, unean bertan edo beste hitzordu bat jarrita, komeni zaien egunean eta orduan etxean erantzuteko. Halaber, inkestagileek proiektuaren xehetasunen (helburuak, etab.), eskubideen berri ematen dute hasieran, eta inkesta egin aurretik baimena lortzeaz arduratzen dira.

Galdetegiarekin batera, laguntza-txartelak ere badaude, aukeratu beharreko eskalak edo aukeren zerrendak dituztenak, galderak errazago ulertzeko. Txartelak erabiltzeko beharra zer galderetan dagoen galdetegian bertan adierazten da, eta inkestagileak, galdera irakurri ondoren, dagokion txartela erakusten du erantzuteko aukerekin.

Galdetegiaren aurre-test bat egin zaie 44 pertsonari, Euskadiko biztanleentzat aukeratutako 3 gunetan, 2025eko martxoaren 10ean eta 11n. Aurre-test hori inkestak egiten adituak diren inkestagileekin egin da, eta horiek prozesuaren fase horri buruzko txosten bat sortu dute. Gorabehera aipagarriarik antzeman ez dela ikusitakoan, landa-lanarekin jarraitu da, lagin osoko inkestak burutzeko. Pre-testaren txostenak zenbait galderatan prestakuntza neurri gehigarriak ezartzeko balio izan du.

Inkestagileek (7 dira guztira), kalitate-saileko pertsonak eta landa-koordinatzaileak prestakuntza jaso dute enpresaren aldetik, eta landa-lanaren

eskuliburua eta inkesta-teknikak ere azaldu zaizkie. Horrez gain, langile horiek behar bezala prestatuta daude etikarekin lotutako kontuetan, eta, gainera, konfidentziasun-dokumentu bat sinatu dute, inkestatutako pertsona guztien pribatutasun-eskubidea bermatzen dela ziurtatzeko.

Erabilitako materialak

Inkestagileek honako material hauek erabili dituzte:

- Inkestagileentzako jarraibideen eskuliburua;
- Udalerrriak, sexuaren eta adin-tarteen arabera kuotak eta aukeratutako errolda-sekzioetako atarien helbideak biltzen dituzten ibilbideen karatulak;
- Galdera-sortak (bi hizkuntza ofizialetan);
- Laguntza-txartelak (bi hizkuntza ofizialetan);
- Akreditazio-gutuna;
- Inkestagile-agiria.

Kalitate-kontroleko (ikuskapena) eta koordinazioko sailekoek:

- Inkestagileentzako materiala;
- Kuotak egiaztatzeko txantiloia;
- Telefono bidezko gainbegiratze-txantiloia (eta/edo gainbegiratze presentzialekoa);
- Lan-plangintzaren txantiloia (egindako lanak eta aurreikuspenak);
- Emandako eta jasotako dokumentazioaren txantiloia.

Datuen babesa eta anonimizazioa

2016/679 (EB) Erregelamenduaren 13. artikuluan eta 3/2018 Legean xedatutakoaren arabera, Ikuspegik ez du inoiz izaten inkestatutako pertsonen datu pertsonalik, salbu eta berariaz eskatzen ez bada gainbegiratze bikoitza egiteko. Kasu horretan, ikuskapen bikoitza landa-enpresaren bulegoetan egingo litzateke, datu horiek kokapen horretatik inoiz atera ez daitezen.

Sei hilabete igaro ondoren, Ikuspegik inkestak berrikusteko eskatu gabe, landa-lanaren ardura duen enpresak datu pertsonalen orriak eta gainbegiratze-orriak suntsitzen ditu. Galdera-sortak (datu pertsonalik gabe) urtebete igaro ondoren desagiten dira.

Era berean, eremu-sareko enpresak bermatzen du ez duela datu pertsonalen datu-baserik sortzen inkestak gainbegiratzea ez den beste helburu baterako erabiltzeko.

Bildutako informazioa garbitzea eta landa-lana kontrolatzea

Inkestagile bakoitzak egindako lana egunero jasotzen da. Inkesta guztiak gainbegiratzen dira (banan-banan), eta dokumentu bat osatzen da telefono bidezko gainbegiratze-faserakogaldera-sortekin. Gainbegiratze horretan hainbat alderdi ikuskatzen dira, hala nola ibilbide zuzena egin dela, inkestatuen kuota behar bezala hautatu dela, inkesta behar bezala eta osorik bete dela (galdera guztiei erantzun zaiela), iragazkiak behar bezala aplikatu dela, erantzunen koherentzia, zalantzazko itemak egotea, eta datu soziodemografikoak eta harremanetarako datuak azaltzea.

Bulegoko fintze-lan horiez gain, telefono bidezko ikuskapena egiten da ikuskapen-dokumentu bat duten inkesten kasuan; eta, ondoren, ausazko ikuskapena ere bai. Dokumentu horretan adierazitakoaz gain, hainbat datu egiaztatzen dira; besteak beste, inkestatuaren adin zehatza eta haren errolda udalerrian, inkestatzaileak inkesta egin duela eta inkestatuaren etxean egin dela, inkestak izan duen iraupen erreala eta inkestarako diseinatutako txartelak erabili direla. Horrez aparte, inkestagilearekin izandako esperientzia biltzen da.

Batez beste, ibilbide bakoitzeko 4 inkesta gainbegiratu dira telefonoz (ibilbide bakoitzeko % 26); hau da, guztira 156 inkesta (% 26). Ondorioz, 4 inkesta baliogabetu dira (% 0,7) kalitate-estandarra ez betetzeagatik, eta 3 inkesta (% 0,5) kuotetatik kanpo egoteagatik.

Datu-prozesaketa

Lan hori galdetegiak grabatzen espezializatuta dagoen enpresa batek egiten du. Enpresa horrek, gainera, datuak haztatzen ditu eta aldagai gurutzatuak edo aldagai soziodemografikoak sortzen ditu. Datuen fitxategia, identifikazio pertsonalik gabe, SPSS fitxategi batean entregatzen da, estatistikoki ustiatzeko prest.

Datuen analisi estatistikoa

Datuen tratamendua aldagai bakarreko, bi aldagaiko eta aldagai anitzeko analisiaren estatistika-tekniken bidez egin da.

Kategoriak aldagai kualitatibo ordinaletan multzokatu dira, maiztasun oso heterogeneoarekin, edo kategoriaren baten kasuan, maiztasun oso txikiarekin. Kategoriak mota horretako aldagaietan multzokatu dira, halaber, adostasuna edo desadostasuna modu sintetikoagoan erakusteko. Bestalde, aldagai kuantitatibo batzuk eraldatu egin dira, eta balioak tartetan multzokatu dira; adibidez,

ideologiaren eta espainiartasun-sentimenduaren/sentimendu abertzalearen eskalak.

Aldagai bakarreko analisisan, galdutako balioak adierazten dira ("Ez daki/Ez du erantzun"). Aldagai anitzeko analisisan, galdutako kasuak esleitzea izan da erabilitako estrategia. Hala, Irekiera Indizeak ⁵⁰ inkestatuek 65 aldagaitan emandako erantzunak kontuan hartzen ditu, eta, urtero bezala zailtasun batekin egin dugu topo: inkestatuek galdera gehienei erantzun dieten arren, galderaren baten kasuan ez dute nahi izan edo ez dira gai izan baliozko erantzuna emateko, eta horrek eragotzi egiten du pertsona horien azken puntuazioa kalkulatzeko irekitasun-indizean.

Baliozko erantzun gehienak ez galtzeko, galdutakoak (ez erantzunak) ordezkatzeko dituzten balioak (erantzunak) honela egozteak erabaki da: zuzeneko 65 aldagaietako bakoitzean, datu-base osoak aldagai horretan duen batez besteko puntuazioa egotzi diogu galdutako balioari. Galdutako balioak egotzita, eremu bakoitzeko puntuazioak kalkulatu ditugu, eta, gehituz, puntuazio osoa lortu dugu Irekiera Indizean.

Aldagai bakarreko analisisan, aldagaia nolakoa den kontuan hartuta (kualitatiboa edo kuantitatiboa), maiztasun erlatiboak kalkulatu dira ehunekotan, bai eta beste neurri estatistiko batzuk ere: zentrorako joera, hala nola batezbestekoa, eta sakabanatze-neurriak, hala nola desbideratze tipikoa.

Euskal biztanleriak jatorri atzeritarreko biztanleriarekiko duen jarrerarekin lotutako aldagaiek denboran zehar izan duten bilakaera aztertu da; pertsonen ezaugarri soziodemografikoak, aldiz, aldagai biko eta aldagai anitzeko analisisetan erabili dira, pertsonen portaerak bereizteko zer aukera ematen duten jakiteko eta jatorri atzeritarreko pertsonen jarreraren arabera profil berezituak zehazteko.

Aldagai biko analisisetan erabili den teknika nagusia kontingentzia-taula izan da, eta Pearsonen khi karratuaren proba aplikatu da aldagaien independentzia egiaztatzeke. %95eko konfiantza-maila estatistikoa (0.05eko esangura) edo hori baino handiagoa (0,00 eta 0.05 arteko esangura) duten lotura esanguratsuak baino ez dira kontuan hartu.

Norabide bakarreko faktore baten ANOVA analisiak ere egin dira, jakiteko zer aldagai soziodemografiko dauden modu esanguratsuan lotuta irekitasun-indizearekin, eta, horrela, irekitasun-atalase baxuena duten pertsonak eta irekitasun-atalase altuena dutenak karakterizatu ahal izateko. Analisi horietan,

⁵⁰ Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu kontzeptu-esparruaren II. eranskina.

mendeko aldagaia immigrazioarekiko irekitasun-indizea da, eta aldagai independentea azterketan jasotako aldagai soziodemografikoetako bakoitza da.

Azkenik, aipatzea komeni da ikerketa hau genero-ikuspegitik diseinatu eta aztertu dela. Hala, estatistikoki esanguratsuak eta sexuaren/generoaren arabera garrantzitsuak diren desberdintasunak dituzten aldagai guztiak aztertu eta aurkeztu dira.

II. eranskina: Kontzeptu-esparrua

Gutxiengo edozein kolektiborekiko jokabide arrazistak eta diskriminatzaileak hautematea beharrezkoa da hainbat mailatan (maila akademikoan, politikoan, sozialean, asoziatiboan, etab.). Izan ere, maila *sozialean*, diskurtso xenofoboak eta arrazistak detektatzen laguntzeaz gain, haiek *kuantifikatzen* eta *monitorizatzen* laguntzen du. Zeregin hori beharrezkoa da, batetik, *ikusarazteko* gizartean badagoela ideia baztertzailleen sistema latente bat, eta, bestetik, esparru egoki bat definitu ahal izateko, aukera emango duena ebidentzian oinarritutako politika publikoak eta estereotipo zein aurreiritzien aurkako ekimen sozialak hobeto *bideratzeko* (Cortés Gómez eta End, 2019; Makkonen 2016; Open Society European Policy Institute 2017; Europako Batzordea 2018).

Hala sortu zen Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia, 2004an, migrazioari buruzko informazio garrantzitsua emango duten kalitatezko ikerlanak ekoiztea funtsezko helburutzat hartuta. Eta, 2007az geroztik, inkesta bat egiten du urtero, jatorri autoktonoko euskal herritarrek atzeritar jatorriko pertsonekiko dituzten iritziak, pertzepzioak, posizioak, balioak eta jarrerak neurtzeko: *Jatorri atzeritarra biztanleriaren inguruko pertzepzioen eta jarreraren barometroa*. Aurrez, 2004an, beste azterlan bat egin zuen, *EAEko biztanleek atzerriko etorkinei buruz dituzten pertzepzioak, balioak eta jarrerak* izenekoa. Azterlan hori izan zen EAEn gaiari buruz eginiko lehena, eta, harrezkero, 2007tik gaur egun arteko barometroetarako oinarri gisa erabili izan da.

Barometro hau ikerketa sozialerako tresna metodologiko bat da, eta bere helburua da zehaztea zer jarrera eta posizio (ekiteko joera edo jokabidea bera) dituen euskal biztanleria autoktonoak atzeritar jatorriko pertsonekiko. Kalitatezko informazioa ematen du, diskurtso xenofoboak eta arrazistak detektatzeko eta monitorizatzeko, halakoak badirela ikusarazteko, eta, horrez gain, gizarte-ekimenak justifikatzen laguntzen du, estereotipoen eta aurreiritzien aurka borrokatzeko eta politika publikoak hobeto bideratzeko⁵¹.

2004ko lehen ikerketa hura egiteko, Ikuspegiko ikerketa-taldeak dokumentazio eta *desk research* lan handia egin zuen, Espainiako eta Europako antzeko ikerketetan arreta jarritz, batez ere.

Horien guztien artean, arreta berezia merezi izan zuen Vienako *Institute for Social Research and Analysis* ikerketa-taldearen *European Monitoring Centre on*

⁵¹ Ez da ahaztu behar inkestak ematen dituen jarrerei eta portaerei buruzko ezagutza, ezagutza oro bezala, partziala dela. Beraz, oso interesgarria da datu kuantitatiboen bilketa eta azterketa lan kualitatiboekin osatu eta alderatzea, ikertzen diren fenomenoari buruzko narratiba, diskurtso eta azalpen sakonagoetara hurbiltzeko aukera ematen dutelako.

Racism and Xenophobia (EUMC) lanak, bai eta *Eurobarometroa 2000* azterlan espezifikoak ere. Izan ere, barometro hau garatzeko oinarria izan zen.

Ikuspegiko ikertzaile-taldeak euskal gizartearen errealitatera egokitu zituen ikerketa horretan ezarritako dimentsioak, eta, azkenik, 2004ko lehen inkestan sartu zituen dimentsioak definitu zituen, gero xehetasun handiagoz aipatuko ditugunak. Lehenik, ikerketa hau bultzatu zuten kontzeptuez mintzatuko gara. Eta, azkenik, urte hauetan galdetegia diseinatzeko eta bertan jasotako itemak zehatz formulatzeko kontuan hartu ditugun autoreen eta literatura zientifikoaren dokumentazioa aipatuko ditugu.

Horrenbestez, dokumentu honek modu eskematikoan jorratzen ditu euskal herritar autoktonoek atzeritar jatorriko pertsonetikiko dituzten iritzia, pertzepzioak, balioak eta jarrerak neurtzeko lanak. Hiru ataletan antolatuta dago:

1. **KONTZEPTUA:** euskal biztanleriak atzeritar jatorriko pertsonetikiko dituen jarreraren definizioa eta adierazpen kontzeptuala.
2. **KONTZEPTUAK OPERATIBO EGITEA:** inkestaren dimentsioak eta euskal biztanleriak atzeritar jatorriko pertsonetikiko dituen jarreraren adierazleak (gizartea eratzen dutenak eta ezkutuan daudenak).
3. **IREKIERA INDIZEA:** item multzo horretatik lortutako emaitzak laburbiltze aldera, indize bat sintetizatu dugu, euskal biztanleriak atzeritar jatorriko pertsonetikiko dituen posizioak eta jarrerak aldagai konplexu bakar baten bidez adierazteko (balio bakar baten bidez, alegia).

Kontzeptua

XXI. mendearen hasieran Euskadira (eta aurretik Espainiara) atzeritar jatorriko pertsona kopuru esanguratsua iristearekin batera, euskal gizarteak erronka berri horri nola erantzun zion jakiteko interesa piztu zen: Harrera ona egingo genieke etorkin horiei? Modu inklusiboan hartuko genituzke? Aukera emango genieke azkar integratzeko? Edo, kontrara, modu murriztailean eta baztertzailan jokatuko genuke?

Benetan beharrezkoa zen jakitea ea nola eraikiko ziren euskal biztanleriaren pertzepzioak, iritzia, jarrerak eta jokabidea; izan ere, gure inguruan berria zen fenomeno bat genuen aurrean: atzeritar jatorriko pertsonen immigrazioa. Eta bereziki garrantzitsua zen, batez ere, politika publiko egokiak artikulatzeko, pertsona horien harrera antolatze, gizarteratze-prozesuak sortzeko eta, hala, pertsona guztion eskubideak bermatzeko eta gure zuzenbide-estatuaren esparruko joko-arauak (betebeharrak) argi eta garbi ezartzeko.

Azken batean, beharrezkoa zen euskal biztanleriak atzerritar jatorriko pertsonen etorreraren aurrean zituen jarrerak ezagutzea, hau da, atzerritar jatorriko etorkinekiko zer pentsatzeko, sentitzeko eta portatzeko modu dituen jakitea.

Kontzeptuak operatibo egitea

Ikuspegi sortu zen une beretik, ikerketa-taldea berariazko tresna bat eraikitzen ari da, jakiteko zein diren EAEko biztanleek atzerriko immigrazioarekiko dituzten jarrerak eta posizioak, eta zer bilakaera duten.

Esan dugunez, 2004ko lehen barometro hartan, galdetegiaren egituraketan eta lanketan kontuan hartu beharreko dimentsioak definitze aldera, Ikuspegiko ikerketa-taldeak *European Monitoring Centre of Racism and Xenophobia (EUMC)* eta *Eurobarometroa 2000* txosten espezifikoak hartu zituen oinarritzat, *Institute of Social Research and Analysis* lantaldeak eginikoak (E. Thalhammer, V. Zucha, E. Enzenhofer, B. Salfinger eta G. Ogris, Viena, 2000).

Txosten horretan, orduko Europar Batasuneko 15 herrialdeetako 16.078 pertsonari (tartean, Espainiako 1.000 pertsonari) egindako inkesta batetik lortutako datuak hainbat aldagairen arabera aztertu ondoren, biztanle autoktonoek atzerritar jatorriko pertsonetikiko zuten jarreraren barne-egitura osatzen zuten zazpi dimentsio identifikatu ziren:

- *Blaming minorities* (Errua gutxiengoei egozte).
- *Policies improving social coexistence* (Bizikidetzaren soziala hobetzen duten politikak).
- *Restrictive acceptance of immigrants* (Etorkinen onarpen murriztailea).
- *Disturbance* (Istiluak).
- *Multicultural optimism* (Baikortasun multikulturala).
- *Conditional repatriation* (Baldintzapeko aberriaraztea).
- *Cultural assimilation* (Asimilazio kulturala).

Planteamendu horretatik abiatuta, Ikuspegiko ikerketa-taldeak, bilera monografiko, kontsulta eta literatura zientifikoaren berrikuspen ugariaren ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan ikertu beharreko hamar dimentsio ezarri zituen:

1. **Bolumenaren pertzepzioa:** euskal biztanleriak atzerriko immigrazioaren kopuruari buruz duen pertzepzioa, EAEen bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen presentzia zenbateko eta baloratzeko eskatuta.
2. **Immigrazioa arazotzat hartzea:** euskal biztanleriak migrazioaren problematizazioaz duen pertzepzioa.

3. **Ekonomiaren gaineko ondorioak:** atzerriko immigrazioak euskal ekonomian izan ditzakeen ondorio positibo edo negatiboak buruz euskal biztanleriak dituen jarrerak eta iritziak.
4. **Euskal gizartearen gaineko ondorioak:** alderdi sozial eta identitarioei dagokienez, euskal gizarteak zenbateraino hartzen duen bere nortasunaren aurkako mehatxutzat.
5. **Harreman-espazioak:** euskal biztanleriak atzeritar jatorriko pertsonekin partekatzen dituen harreman-espazioen inguruan dituen posizioak.
6. **Estereotipoak:** euskal gizartean dauden eta zirkulatzen duten estereotipo negatibo faltsuak, narratibak eta diskurtsoak zein diren jakitea, eta zenbateko presentzia duten dimentsionatzea. Garrantzi handiko alderdia da.
7. **Bizikidetza-ereduak:** garrantzitsua da euskal gizarteari ikusaraztea badirela hainbat bizikidetza-eredu desberdin (asimilazionista, multikulturala, interkulturala), bere posizioa defini dezan.
8. **Eskubideetarako eta zerbitzuetarako sarbidea:** zeregoera administratibotan dauden kontuan hartuta, atzeritar jatorriko pertsonak eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko zer muga izan beharko lituzketen, halakorik egon behar balu.
9. **Immigrazio-politika:** euskal biztanleriak atzeritar jatorriko pertsonetikiko duen jarrerak erakusten du, nolabait, atzerriko immigrazioarekiko zer politika aplikatuko lituzkeen, bere esku egongo balitz.
10. **Ondorio globalak:** euskal gizarteak atzeritar jatorriko pertsonak gure gizartera iristeak duen eraginari buruz duen pertzepzio globala eta orokorra.

Dimentsio bakoitzean badira enpirikoki behagarriak diren zenbait adierazle, eta ikerketa-taldeak haietako batzuk aukeratu ditu, gaiaren gainean lan egin eta antzeko helburuak dituzten azterlan eta galdetegi batzuk berrikusi ostean. Honako hauek dira:

1. Bolumenaren pertzepzioa:

- a. Euskadin bizi diren atzeritar jatorriko pertsonen egungo bolumenaren balorazioa;
- b. Euskadin bizi diren atzeritar jatorriko pertsonen ehunekoaren gutxi gorabeherako kalkulua;
- c. Euskadin bizi diren atzeritar jatorriko pertsonen egungo bolumenaren balorazioa berriz ebaluatzea, atzeritar jatorriko biztanleen zifraren datu erreala eman ondoren;

- d. Euskal gizartearen estimazioa, Euskadin datozen urteetan atzerritar jatorriko pertsonen etorrera-bolumenak izan dezakeen bilakaerari buruzkoa;
- e. Euskal gizartearen estimazioa, Euskadin datozen urteetan atzerritar jatorriko pertsonen etorrera-bolumenak izan dezakeen bilakaerari buruzkoa, jatorria kontuan hartuta.

2. Immigrazioa arazotzat hartzea:

- a. Euskadin ditugun arazo garrantzitsuenak, herritarren iritziz (bat-batean emaniko erantzunak);
- b. Arazo pertsonal garrantzitsuenak (bat-batean emaniko erantzunak);
- c. Proposatutako arazo batzuen artean garrantzitsuenak baloratzea eta hautatzea (iradokitako erantzunak);
- d. Euskadin jaiotako pertsonen eta atzerritar jatorriko pertsonen ondorengoen etorkizunaren balorazioa;
- e. Zer posizio duen biztanleriak, familia-erreferenterik ez duten gazte atzerritarrek (adinez nagusiak) gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun eta arazo gehiago dituztela dioen diskurtsoari dagokionez.

3. Ekonomiaren gaineko ondorioak:

- a. Zer posizio duen biztanleriak, atzerriko immigrazioak soldatei eragiten diela dioen estereotipoari dagokionez;
- b. Zer posizio duen biztanleriak, lanpostu jakin batzuk betetzeko immigrazio behar dela dioen diskurtsoari dagokionez;
- c. Zer posizio duen biztanleriak, immigrazioak familia eta lana bateratzea errazten duela dioen ideari dagokionez;
- d. Zer posizio duen biztanleriak, immigrazioak bertako biztanleek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituela dioen diskurtsoari dagokionez;
- e. Zer posizio duen biztanleriak, immigrazioak bertako biztanleriari lana kentzen diola dioen narratibari dagokionez;
- f. Zer posizio duen biztanleriak, immigrazioak langabezia handitzen duela dioen narratibari dagokionez.

4. Euskal gizartearen gaineko ondorioak:

- a. Zer posizio duen biztanleriak, etorkinen presentziak Euskadiko kultura-bizitza aberasten duela dioen narratibari dagokionez;
- b. Zer posizio duen biztanleriak, atzerriko immigrazioak EAE osoan euskararen garapenean izan dezakeen eraginari dagokionez;
- c. Zer posizio duen biztanleriak, atzerriko immigrazioak eremu euskaldunetan euskararen erabilerari eragingo diola dioen ideari dagokionez;

- d. Zer posizio duen biztanleriak, atzerriko etorkinen etorrerak euskal nortasunari eragin diezaiokeela dioen ideari dagokionez;
- e. Zer posizio duen biztanleriak, etorkinen presentziak abertzaleen asmoetan eragin negatiboa izan dezakeela dioen narratibari dagokionez;
- f. Zer posizio duen biztanleriak, atzeritar jatorriko pertsonen erlijio-praktikek euskal biztanleriaren egungo bizimodua arriskuan jar dezaketela dioen narratibari dagokionez.

5. Harreman-espazioak:

- a. Biztanle autoktonoek zenbateraino onartzen duten auzo edo etxebizitza-bloke berean atzeritar jatorriko biztanle askorekin bizitzea;
- b. Biztanle autoktonoek zenbateraino onartzen duten lan- edo ikasketa-espazioa atzeritar jatorriko biztanle askorekin partekatzea;
- c. Biztanle autoktonoek zenbateraino onartzen duten atzeritar jatorriko pertsona bat buruzagi izatea;
- d. Biztanle autoktonoek zenbateraino onartzen duten beren seme-alabek atzeritar jatorriko lagunekin duten harremana;
- e. Biztanle autoktonoek zenbateraino onartzen duten beren seme-alabak atzeritar jatorriko ikasle askoko ikastetxe batera joatea;
- f. Biztanle autoktonoek zenbateraino onartzen duten beren seme-alabek atzeritar jatorriko bikotekideak izatea;
- g. Biztanle autoktonoek zenbateraino onartzen duten atzeritar jatorriko pertsonak beren saltokiak irekitzea;
- h. Biztanle autoktonoek zenbateraino onartzen duten atzeritar jatorriko pertsonak elkarren artean beren hizkuntzan hitz egitea;
- i. Biztanle autoktonoek zenbateraino onartzen duten atzeritar jatorriko pertsonak jatorrizko herrialdean bezala janztea;
- j. Biztanle autoktonoek zenbateraino onartzen duten atzeritar jatorriko pertsonak beren elikadura-establezimenduak izatea;
- k. Biztanle autoktonoek zenbateraino onartzen duten atzeritar jatorriko pertsonak beren erlijioetako tenpluak izatea;
- l. Biztanle autoktonoek zenbateraino onartzen duten atzeritar jatorriko pertsonak plaza eta espazio publikoetan egotea;
- m. Biztanle autoktonoek zenbateraino onartzen duten atzeritar jatorriko pertsonak sukaldaritza exotikoko edo atzerriko jatetxeak irekitzea;
- n. Biztanle autoktonoek zer harreman-maila duten atzeritar jatorriko pertsonekin, eremu pribatuan: etxean, familian, lagunartean...;
- o. Biztanle autoktonoek zer harreman-maila duten atzeritar jatorriko pertsonekin, eremu publikoan: lanean, banketxeetan, saltokietan, erabiltzen dituzten garraio publikoetan, taberna edo kafetegietan, etab;

- p. Biztanle autoktonoek zer harreman-maila duten atzerriar jatorriko pertsonekin, aisialdian eta denbora librean.

6. Estereotipoak:

- a. Zer posizio duen biztanleria autoktonoak, ikasle etorkinen presentziak euskal eskoletan hezkuntza-maila jaitsi dezakeela dioen estereotipoari dagokionez;
- b. Zer posizio duen biztanleria autoktonoak, atzerriar jatorriko pertsonen etorrerak euskal gizartearen segurtasunari negatiboki eragiten diola dioen estereotipoari dagokionez;
- c. Zer posizio duen biztanleria autoktonoak, atzerriar jatorriko pertsonen etorrerak matxismoa eta genero-indarkeria areagotzen dituela dioen estereotipoari dagokionez;
- d. Zer posizio duen biztanleria autoktonoak, euskal gizartera iristen diren atzerriar jatorriko pertsonen modu eraginkorrean integratzeko asmorik ez dutela dioen estereotipoari dagokionez;
- e. Zer posizio duen biztanleria autoktonoak, atzerriar jatorriko pertsonen espazio publikoak gaizki erabiliz okupatzen dituztela dioen estereotipoari dagokionez;
- f. Zer posizio duen biztanleria autoktonoak, atzerriar jatorriko pertsonen gure gizarte- babeseko sistematik onura gehiegi ateratzen dituztela dioen estereotipoari dagokionez;
- g. Zer posizio duen biztanleria autoktonoak, atzerriar jatorriko pertsonen ordaindu beharko luketena baino zerga gutxiago ordaintzen dituztela eta trukean gehiago jasotzen dutela dioen estereotipoari dagokionez;
- h. Zer posizio duen biztanleria autoktonoak, atzerriar jatorriko pertsonen euskal osasun-sistemaz abusatzen dutela eta larrialdi-zerbitzuak kolapsatzen dituztela dioen estereotipoari dagokionez;
- i. Zer posizio duen biztanleria autoktonoak, atzerriar jatorriko pertsonen babes ofizialeko etxebizitza gehienak eskuratzen dituztela dioen estereotipoari dagokionez.

7. Bizikidetzaz-ereduak:

- a. Euskal udalerrietan atzerriar jatorriko biztanleen eta biztanle autoktonoen arteko bizikidetzaz-giroaren eta gizarte-harremanen balorazioa;
- b. Atzerriar jatorriko biztanleriaren eta biztanleria autoktonoaren arteko azken aldiko harreman sozialen bilakaeraren balorazioa;
- c. Euskal gizarteak zenbateraino egoki ikusten dituen gehienbat atzerriar jatorriko etorkinei egotzitako jantziak erabiltzea (hijaba, txadorra, txilaba, nikaba, tunika, burka, bainujantzi islamikoa);

- d. Zer posizio duen biztanleriak, Euskadin bizikidetza hobetzeko, bertakoek etorkinen ohitura eta tradizio batzuen berri izaten eta haietara egokitzen ahalegindu behar luketela dioen ideari dagokionez;
- e. Zer posizio duen biztanleriak, euskal gizartearentzat onena guztiok ohitura eta usadio berberak partekatzea litzatekeela dioen ideari dagokionez;
- f. Zer posizio duen biztanleriak, euskal gizartearentzat onena hura osatzen dugun guztiok harrera-herrialdeko hizkuntzez hitz egitea litzatekeela dioen ideari dagokionez;
- g. Zer posizio duen biztanleriak, Euskadin bizikidetza hobea lortzeko, etorkinek gure ohiturak eta tradizioak ezagutzen eta horietara egokitzen ahalegindu beharko luketela dioen ideari dagokionez;
- h. Zer posizio duen biztanleriak, erabat onartuak izateko, etorkinek gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren eta erlijioaren alderdiei uko egin behar lieketela dioen ideari dagokionez;
- i. Zer posizio duen biztanleriak, Euskadin bizikidetza hobea lortzeko, bertako biztanleen eta etorkinen artean ahalegin partekatua behar dela dioen baieztapenari dagokionez;
- j. Zer sinpatia- edo enpatia-maila duen biztanleria autoktonoak, atzerriko etorkinen jatorriari dagokienez: Mendebaldeko EB, Errumania, Brasil, Saharaz hegoaldeko Afrika, Bolivia, Magreb, AEB, Kolonbia, Ekuador, Peru, Argentina, Pakistan, Nepal, Bangladesh, Txina, Paraguai, Nikaragua, Honduras, Guatemala...;
- k. Zenbateraino hartzen dituen euskal biztanleriak eskubide osoko euskalduntzat atzeritar jatorriko etorkinen seme-alabak;
- l. Atzeritar jatorriko pertsonak eta haien ondorengoak eskubide osoko euskal herritartzat hartzen lagun dezaketen inguruabarrak baloratzea (hemen bizitzea, hemen lan egitea, hemen ikastea, euskaraz hitz egitea, bertako pertsona batekin ezkontzea, seme-alabak hemen jaiotzea, kuadrilla bat izatea, etab.);
- m. Zenbateraino hartzen diren atzeritar jatorriko etorkinen ondorengoak eskubide osoko euskalduntzat, jatorriaren arabera;
- n. Euskal herritarrek islamarekiko duten konfiantza-maila;
- o. Zenbateko irekiera-maila egozten zaion euskal gizarteari, atzeritar jatorriko etorkinei dagokienez;
- p. Zenbateko irekiera-maila egozten dion nork bere buruari, atzeritar jatorriko etorkinei dagokienez;
- q. Nola baloratzen den euskal gizarteren jokabidea, atzeritar jatorriko pertsonen gizarteratze-prozesuarekin zerikusia duen guztian.

8. Eskubideetarako eta zerbitzuetarako sarbidea:

- a. Zer posizio duen biztanleriak, atzeritar jatorriko pertsonak diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeari dagokionez;

- b. Zer posizio duen biztanleriak, atzerritar jatorriko pertsonen seme-alabek hezkuntza publikoa autoktonoen baldintza berberetan jasotzeari dagokionez;
- c. Zer posizio duen biztanleriak, atzerritar jatorriko pertsonen osasun-laguntza autoktonoen baldintza berberetan jasotzeari dagokionez;
- d. Zer posizio duen biztanleriak, atzerritar jatorriko pertsonen babes ofizialeko etxebizitzak autoktonoen baldintza berberetan eskuratzeari dagokionez;
- e. Zer posizio duen biztanleriak, atzerritar jatorriko pertsonen familia berrelkartzeko autoktonoen baldintza berberak izateari dagokionez;
- f. Zer posizio duen biztanleriak, atzerritar jatorriko pertsonen, autoktonoen bezala, botoa emateko eskubidea izateari dagokionez;
- g. Zer posizio duen biztanleriak, atzerritar jatorriko pertsonen laguntza juridikoa autoktonoen baldintza berberetan eskuratzeari dagokionez;
- h. Zer posizio duen biztanleriak, atzerritar jatorriko pertsonen lanbide-heziketako doako ikastaroak autoktonoen baldintza berberetan eskuratzeari dagokionez;
- i. Zer posizio duen biztanleriak, atzerritar jatorriko pertsonen Gaztelania eskolak autoktonoen baldintza berberetan eskuratzeari dagokionez;
- j. Zer posizio duen biztanleriak, atzerritar jatorriko pertsonen Euskara eskolak autoktonoen baldintza berberetan eskuratzeari dagokionez;
- k. Zer posizio duen biztanleriak, atzerritar jatorriko pertsonen beren jatorriko hizkuntzako eskolak doan jasotzeari dagokionez.

9. Immigrazio-politika:

- a. Zer posizio duen biztanleriak, langabezian geratzen diren atzerriko etorkinek jatorrizko herrialdera itzuli behar luketela dioen narratibari dagokionez;
- b. Zer posizio duen biztanleriak, delituak egiten dituzten etorkinak kanporatu behar liratekeela dioen jarrerari dagokionez;
- c. Nola definituko lukeen atzerritar jatorriko pertsonak herrialdean sartzeko politika;
- d. Nola definituko lukeen bizileku-baimenik gabe herrialdera sartzen diren etorkinen gaineko gobernu-jarduera;
- e. Nola definituko lukeen gobernuaren politika, asiloa eta babesa eskatzen duten pertsonen dagokionez;
- f. Zer posizio duen biztanleriak, asiloa eta babesa eskatzen duten pertsonen gaineko gobernuaren jarrerari dagokionez, zein herrialdeetatik datozen kontuan hartuta;
- g. Zer posizio hartu beharko luketen EAEko administrazioek, Euskadira iristen diren familia-erreferentziarik gabeko adingabeei dagokionez;
- h. Zer posizio hartu beharko luketen EAEko administrazioek, Euskadira iristen diren familia-erreferentziarik gabeko adingabeei dagokionez, adin-nagusitasunera iristen direnean;

- i. Zer posizio duen biztanleriak, euskal erakundeek familia-erreferenterik gabeko adingabeen eskubideak bermatu behar lituzketela dioen ideari dagokionez;
- j. Nola baloratzen duten erakundeek familia-erreferenterik gabeko adingabe eta gazte atzeritarrek gehiegi babesten dituztela dioen narratiba;
- k. Nola baloratzen duten familia-erreferenterik gabeko adingabe eta gazte atzeritarrei gizarteratzen laguntzeko beharra;
- l. Nola baloratzen duten Espainiako Gobernuaren politika, atzeritar jatorriko pertsonak hartzeari eta gizarteratzeari dagokionez;
- m. Nola baloratzen duten Eusko Jaurlaritzaren politika, atzeritar jatorriko pertsonak hartzeari eta gizarteratzeari dagokionez.

10. Ondorio globalak:

- a. Zer posizio duen biztanleriak, atzeritar jatorriko etorkinen etorrerak gure biztanleriaren zahartze progresiboaren ondoriozko arazoak modu eraginkorrean eta positiboan konpon ditzakeela dioen narratibari dagokionez;
- b. Nola baloratzen diren atzeritar jatorriko etorkinen etorrerak euskal gizartean dituen ondorio globalak, izan positibo edo negatiboak.

Abiapuntu horretatik, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiko ikerketataldeak zenbait item zehatz idatzi zituen, eta, hala, barometro honetako galdera bakoitza hamar dimentsio horietako batean kokatuta dago, eta adierazle bakoitza galdetegiaren item batean edo batzuetan zehazten da.

Gure barometroan lortutako emaitzak gure inguruko beste azterlan batzuek emandakoekin alderatu ahal izateko (Espainian CISek eginikoekin edo Europakoekin, hala nola Eurobarometroarekin), dimentsio eta adierazle baten informazio-helburu espezifikoak bat datozenean beste azterlan horietakoekin, formulazio berari eustea erabaki genuen. Bat ez datozenean, berriz, ikerketataldeak formulazio bat proposatu, eta, gainerako taldekideekin kontrastatu ostean, galdetegian sartzen du.

Horrez gain, bata bestearen ondoren eginiko kontsultetan lortutako emaitzen azterketa sistematikoak eta landa-laneko sareak emandako txosten espezifikoek, bi-biek, adierazle (galdera) guztien kalitateari buruzko informazioa ematen digute, eta, hala, gaizki funtziona dezaketen itemen idazketa zehatza aldatzen dugu edo nabarmen lerratuta dauden edo fenomenoak azaltzeko gaitasun nahikorik ez duten galderak ezabatzen ditugu. Urtero egiten dugu berrikusketa- eta kontraste-lan hori, itemen eta galdetegi osoaren edukia eta formulazio zehatza eguneratu eta informazioa biltzeko prozesua (landa-lana) abiatu aurretik.

Irekiera Indizea

Irekiera Indizeak datu bakar batean laburbiltzen du galdetegiko itemen multzo baten bidez lortutako informazioa. Item horiek aukeratzeko bi irizpide hartzen dira kontuan: 1) irizpide estatistikoa, gehien diskriminatzen duten itemak hautatzen ditugulako (aldakortasun handiena jasotzen dutenak edo bariantza handiena azaltzeko gai direnak); 2) adituen irizpidea, aldez aurretik ezarritako dimentsioekin bat datozen item diskriminatzaileak erabiltzen ditugulako azkenean, ikertzaile-talde adituaren iritzia jarraituz.

Indize hori zehazteko, Barometroaren galdetegiko 65 galderei emandako erantzunetan oinarritzen gara. Item horiek lehen adierazi ditugun hamar dimentsioetan multzokatu, eta behar bezala haztatzen dira, pertsona bakoitzaren puntuazioa 0 punturen (posizio itxienak eta intoleranteenak) eta 100 punturen (posizio irekienak eta toleranteenak) arteko eskala batean mugi dadin.

Zehazki, honela dago antolatuta:

1. **Bolumenaren pertzepzioa:** dimentsio hau galdetegiko 3 itemek osatzen dute, eta haiek behar bezala haztatuta, 0 eta 10 puntu arteko indize partzial bat lortzen dugu;
2. **Immigrazioa arazotzat hartzea:** dimentsio hau galdetegiko 3 itemek osatzen dute, eta haiek behar bezala haztatuta, 0 eta 10 puntu arteko indize partzial bat lortzen dugu;
3. **Ekonomiaren gaineko ondorioak:** dimentsio hau galdetegiko 5 itemek osatzen dute, eta haiek behar bezala haztatuta, 0 eta 10 puntu arteko indize partzial bat lortzen dugu;
4. **Euskal gizartearen gaineko ondorioak:** dimentsio hau galdetegiko 6 itemek osatzen dute, eta haiek behar bezala haztatuta, 0 eta 10 puntu arteko indize partzial bat lortzen dugu;
5. **Harreman-espazioak:** dimentsio hau galdetegiko 15 itemek osatzen dute, eta haiek behar bezala haztatuta, 0 eta 10 puntu arteko indize partzial bat lortzen dugu;
6. **Estereotipoak:** dimentsio hau galdetegiko 7 itemek osatzen dute, eta haiek behar bezala haztatuta, 0 eta 10 puntu arteko indize partzial bat lortzen dugu;
7. **Bizikidetza-ereduak:** dimentsio hau galdetegiko 6 itemek osatzen dute, eta haiek behar bezala haztatuta, 0 eta 10 puntu arteko indize partzial bat lortzen dugu;

8. **Eskubideetarako eta zerbitzuetaarako sarbidea:** dimentsio hau galdetegiko 12 itemek osatzen dute, eta haiek behar bezala haztatuta, 0 eta 10 puntu arteko indize partzial bat lortzen dugu;
9. **Immigrazio-politika:** dimentsio hau galdetegiko 5 itemek osatzen dute, eta haiek behar bezala haztatuta, 0 eta 10 puntu arteko indize partzial bat lortzen dugu;
